

EAE-KO MEMORIA SOZIOEKONOMIKOA 2025

Laburpena eta Ondorioak





LABURPENEA

I. EKONOMIA

Munduko jarduera ekonomikoak erritmo apalean hazten jarraitu zuen 2025ean eta erresistentzia-gaitasuna erakutsi zuen.

AEBko politika ekonomikoen lehentasunak nabarmenki aldatu ziren eta horrek urtea markatu zuen. Izan ere, muga-zergak gehitu zituen eta ia mende batean izan duten mailarik handienera iritsi ziren. Mundu-ekonomian sortutako inpaktua merkataritza-kideen erantzun mugatuak leundu zuen arren, etorkizuneko merkataritza-akordioen inguruko zalantzagarritasunak altua izaten jarraitu zuen.

Kontrako efektu horiek gorabehera, munduko jarduera ekonomikoari eutsi zioten beste faktore batzuek. Adimen artifizialari lotutako inbertsioen indarrak teknologia-produktuen merkataritza suspertu zuen eta errenta aldagarriko merkatuek zenbait ekonomiatan irabaziak erregistratzen lagundu zuen. Gainera, enpresek eta etxeek atzerriko ondasunen erosketak azkartu zituzten muga-zergak igo zitezkeela aurreikusita, eta horrek, gutxienez behin-behinean, babestu egin zuen manufakturen ekoizpena eta esportazioak.

NDFren balioespenen arabera, munduko BPGd benetan % 3,4 hazi zen 2024tik 2025era bitartean. Ekonomia aurreratuak % 1,9 areagotu dira: AEBko BPGd % 2,1 hazi da; Eurogunekoa % 1,4, eta Japoniakoa % 1,2. Hazten eta garatzen ari diren merkatuetako ekonomietan igoera % 4,4koa izan zen; Asiako ekonomia berriak % 5,5 hazi ziren (Txina % 5 eta India % 7,6), Europakoak % 2, eta Latinoamerika eta Karibekoak % 2,4. Errusia, bestalde, % 1 hazi da.

Mundu-merkataritza % 5,1eko erritmoan hazi zen. Merkataritza-egunak muga-zergen egoera berrira egokitu ziren eta zenbait fluxu beste herrialde batzuetara desbideratu ziren.

Inflazioari dagokionez, 2025ean gutxitzen jarraitu zuen. Inflazio orokorra kontsumo-prezioen indizearen (KPI) arabera neurtuta, % 2,2ra jaitsi zen 2025eko abenduan eta 2024ko abenduan % 3koa zen.

Energiako lehengaien prezioen joera beheranzkoa izan zen 2024 eta 2025 artean.

Brentaren prezioak % 15,1 gutxitu ziren 2024 eta 2025 artean. Kupel bakoitzaren prezioa urtarrilean 80 \$ zen eta urte bukaeran 63,3 \$.

Interes-tasek gutxitzen jarraitu zuten 2025eko lehen seihilekoan, Europako Banku Zentralaren (EBZ) eta beste banku zentral batzuen erabakiek babestuta. Hala eta guztiz ere, 2025eko ekainean, zalantzagarritasuna ikusirik, EBZk zuhurtziazko etenaldi estrategikoa egin zuen.

Horrela, EBZ % 3,15eko esku-hartze tasarekin hasi zen urtarrilean, eta % 2,15ekoarekin amaitu zuen abenduan. AEBko Erreserba Federala % 4,5ekin hasi zen urtarrilean, eta % 3,75ekin amaitu abenduan. Japonian, aldiz, esku-hartze tasa % 0,25ean hasi zen urtarrilean, eta abenduan % 0,50ekin amaitu.

Euroguneko moneta merkatuko interes-tasei dagokienez (gordailuak), gutxitzen jarraitu zuten, urteko batezbestekoan eta epe guztietan. Urteko bilakaerak erakusten du hilabetez hilabete gutxitu egin dela azarora arte, eta abenduan joera aldatu egin zen. Zehazki, 2025eko abenduan Euriborra oraintxe jarraitzen duen bezala kokatu zen: hilabetera +% 1,92, hiru hilabetera +% 2,05, sei hilabetera +% 2,14 eta urtebetera +% 2,77.

Bestalde, moneta-erakunde finantzarioek EDBko etxeei emandako interes-tasa gutxitu egin zen kontsumorako kredituetan, % 8,53tik % 8,22ra, eta etxebizitza erosteko kredituetan % 3,96tik % 3,56ra.

Dibisa-merkatuarekin lotuta, euroa balioztatu egin zen yenaren aurrean eta are nabariago AEBko dolarraren aurrean, 2024 bukaerarekin konparatuta. Zehazki, aldaketa nominalaren tasa 0,854 €//\$ izan zen 2025eko abenduan, eta 0,954 €//\$ 2024ko abenduan. Horrek esan nahi du euroak dolarrarekiko % 11,7ko balioztapena izan zuela.

Burtsa-merkatuetan, Euro Stoxx zabalak eta Ibex 35ek igoerak izan zituzten 2024 eta 2025 artean.

Eurogunean, BPGd erreala % 1,4 hazi zen 2025ean, eta % 0,9, berriz, 2024an, Europako Banku Zentralaren arabera.

Eskaeraren ikuspegitik, hazkundea babestu zuen barne-eskaera indartu izanak, kanpoko asaldura soberan kontentsatu baitzuen. Bilakaerarik pozgarriena inbertsioarena izan zen. Enpresa-inbertsioa erritmo onean hazi zen, aktibo ukiezinen (adimen artifiziala, softwareak eta digitalizazioa) inbertsioek sustatuta, Europako enpresek teknologia digitalak ezarri baitzituzten.

Eskaintzaren ikuspegitik, manufaktura-sektorea pixka bat berreskuratu zen eta zerbitzuen egonkortasunarekin batera, ezinbestekoak izan ziren Euroguneke 2025eko ekonomiaren erresistentzia-gaitasun erlatiboaren kausak ulertzeko, mundu-mailako konplexutasuna gorabehera.

Industria-ekoizpena hazi egin zen 2025ean. Igoera hori nagusiki lehen hiruhilekoan gertatu zen eta honen ondorio izan zen: ekoizpenari behin-behineko sustapena egin zitzaion, denboran aurreratu egin zirelako esportazioak, aurreikusi egin baitzituzten ondoren ezarri ziren muga-zergen igoerak. Hala eta guztiz ere, hazkundearen dinamismoa nabarmenki moteldu zen gainerako urtean, muga-zergak gehitu zirelako, munduko lehia areagotu zelako eta politika ekonomikoekiko zalantzak zeudelako, altua izan arren, pixkanaka murriztu zena.

Zerbitzuen hazkundea moteldu zen arren, Euroguneke zabalkundea babestu zuten. Dezelerazioaren arrazoiak bat etxeetako zuzentzea izan zen; aurreko sektore horren aurrezpenean ikusi zen eta testuinguru orokorrean arrisku geopolitikoek eta zalantzagarrtasun ekonomikoak iraun egin zuten. Aldi berean, zerbitzu digitalek eta informazioaren teknologiak nolabaiteko erresistentzia-gaitasuna erakusten jarraitu zuten. Izan ere, automatizazioko, zibersegurtasuneko eta adimen artifizialeko enpresen inbertsioa mantendu izanak mesede egin zien.

Testuinguru horretan, EUROSTATen datuen arabera, Euroguneke administrazio publikoek BPGd-rekiko duten zorra % 87,8ra iritsi zen 2025ean. Ratorik handienak herrialde hauetan izan ziren: Grezian (% 146,1), Italian (% 137,1), Frantzian (% 115,6), Belgikan (% 107,9) eta Espainian (% 100,7); eta txikiak Estonian (% 24,1), Luxenburgon (% 26,5), Danimarkan (% 27,9) eta Bulgarian (% 29,9). Defizitari dagokionez, Eurogunean BPGd-ren % 2,9n kokatu zen. Ratio altuenak Errumanian (% 7,9), Polonian (% 7,3) eta Belgikan (% 5,2) izan ziren. Ziprek, Danimarkak, Irlandak, Greziak eta Portugalek superabita izan zuten.

Espainiako ekonomiaren BPGd, EINen datuen arabera, % 2,8 hazi zen benetan 2024 eta 2025 artean, aurreko urtean baino zazpi hamarren gutxiago. Eskari nazionalari esker, 3,6 puntuko ekarpena egin zion aurreko urteko BPGd-ren hazkunderari, aurreko urtean baino hiru hamarren gehiago. Bestalde, kanpo-eskariak -0,7 puntuko ekarpena egin zuten, 2024an baino 9 hamarren gutxiago.

Ordinketa Balantzari dagokionez, 2025ean berriz ere izan zuen Espainiako ekonomiak finantzatzeko ahalmena¹. Finantzaketa-ahalmen hori (superabita) 66.741 milioi eurokoa izan zen, hau da, BPGd-ren % 4; 2024an, berriz, BPGd-ren % 4,3 izan zen.

Finantza publikoei lotuta, administrazio publikoek, oro har, 40.330 milioi euroko defizitarekin itxi zuten 2025. urtea (EBko araudia betetzeko egindako informazioaren arabera), hau da, BPGd-ren % 2,4ko ratioarekin, 2024an erregistratutako % 3,2ko ratioa baino txikiagoa hori. Saldoaren hobekuntza nabarmena da ibilbideari erreparatu gero; 2022an % 4,6ko defizita izan zen eta 2025ean % 2,4koa. Azpisektoreka, toki-erakundeek izan ezik, agente guztiek

¹ Hori gertatzen da ekonomiaren sektoreek sortutako aurrezpena, egindako inbertsioari aurre egiteko nahikoa denean, eta, beraz kalkulatzeko, Kontu Arrunteko Balantzaren, Kapital kontuaren eta kanpoan bizi diren egoiliarren inbertsioen saldoak kalkulatu dira.

defizitarekin itxi zuten 2025. urtea: Administrazio Zentralak BPGd-ren % 2, autonomia-erkidegoek % 0,4 eta Gizarte Segurantzak % 0,3. Toki-erakundeek, bestalde, BPGd-ren % 0,3ko superabita izan zuten.

Diru-sarrera publikoak areagotu izanari esker izan da posible laguntza-neurrien ezarpena eta defizitaren murrizketa bateragarriak izatea. Baliabide publiko ez-finantzarioen guztizkoa % 7,7 igo zen 2024aren aldean, eta 724.554 milioi eurora iritsi zen, Ekonomia, Merkataritza eta Enpresa Ministerioaren “Adierazle ekonomikoaren laburpenean” jasotako Sektore Publikoaren Aurrekontu Betearazpenaren datuen arabera. Diru-sarreraren hobekuntza gastu publikoaren hazkunderari eustearekin osatzen da, eta hori bateragarria da laguntza-neurri beharrezkoenei eustearekin. Gastu publiko agregatua % 5,5 hazi zen 2025ean.

Orain, **EAEko ekonomiaren bilakaera azalduko dugu.**

EUSTATen Jarduera Ekonomikoen Direktorioko (JEGID) azken datuek, 2025eko urtarrilekoak, EAEn 146.404 **enpresa**² aktibo zenbatu dituzte, 959.515 pertsonari lana ematen dietenak; beraz, batez besteko tamainak handitzen jarraitzen du eta 6,55 enplegukoa da enpresa bakoitzeko. 2024ko urtarrilaren 1etik 2025eko urtarrilaren 1era, enpresa-kopurua % 0,8 gutxitu zen (1.120 enpresa gutxiago) eta langileek bariazio positiboa erregistratu zuten (+% 1,5).

Gizarte Segurantzaren inskribatutako enpresei dagokienez, 2025eko abenduaren amaieran langileak Gizarte Segurantzaren inskribatuta zituzten enpresak 57.474 izan ziren, hau da, % 0,2 jaitsi ziren 2024ko aldi berarekin alderatuta (437 enpresa gutxiago) eta aurreko aldiandako % 0,6ko jaitsierari gehitu zitzaion. Jarduera-sektoreen arabera, guztietan ikusten da beherakada, eraikuntzan ez ezik: lehen sektorean (—% 3,4), industrian (—% 1,9), eta zerbitzuetan (—% 0,1); eraikuntzak % 1,2ko hazkundera izan du.

EUROSTATen³ arabera, 2021ean 30,1 milioi enpresa zeuden EBko enpresa-ekonomian⁴ eta 156,1 milioi langile zituzten. Ondorioz, batez besteko tamaina bost enplegukoa zen enpresa bakoitzeko, eta gehienak (% 99,1) 50 pertsona baino gutxiago enplegatzen dituzten enpresa mikro edo txikiak ziren. Eta 2022ko datuekin, % 94,2k hamar langile baino gutxiago zituzten. Kontrara, bakarrik % 0,2k zituzten 250 langile edo gehiago.

EUSTATen Kontu Ekonomikoek erakusten dute euskal ekonomian 2025. urte osorako **BPGd-ren urte arteko hazkundera**, termino errealean, % 2,3koa dela 2024koarekin alderatuta; ehuneko 0,2 puntu txikiagoa da 2024koa baino, eta bost hamarren gutxiago Espainiako ekonomiarako zenbatetsitakoa baino (% 2,8 EINen arabera). Hala ere, EAEko hazkundera Eurogunekoa (% 1,4) eta EB-27koa (% 1,5) baino handiagoa da, EUROSTATen datuen arabera.

Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren informazioaren arabera, EAEko ekonomiaren termometroak 99,4ko balio leunarekin hasi zuen 2025. urtea eta abendua 104,2ko balioarekin bukatu zuen hazkunde irmoaren zonan⁵.

Eskariaren aldetik, barne-eskariaren portaera BPGd-rena baino positiboagoa izan zen, % 2,8ko hazkundera izan baitu 2025ean oro har. Hala, kanpo-eskariak BPGd-ren hazkunderari egiten dion ekarpena negatiboa izan zen (—0,5 puntu). Gastu pribatuaren eta gastu publikoaren baterako bilakaerak azken kontsumoko gastuaren % 2,5eko hazkundera ekarri du, 2024koa baino % 0,3 puntu txikiagoa. Kapital-eraketa gordinak % 4ko urte arteko aldakuntza-tasa erregistratu zuen. Ekipo-ondasunetan egindako inbertsioa % 4,3 hazi zen, eta kapital-eraketa gordinaren gainerakoa, eraikuntzari lotuago dagoena,

² Enpresa: Establezimenduen jarduerari babesa ematen dien unitate juridikoa, hau da, sozietatea, erakundera, organismoa, pertsona fisikoa edo ente publiko edo pribatua, izaera juridiko propioa duena, zeinaren erantzukizun eta zuzendaritza pean gauzatzen diren jarduera horiek. 2012. urtetik aurrera, EUSTATen estatistikan lehenengo sektoreko enpresak sartzen dira.

³ Txostenak: Key figures on European business, 2024ko edizioa eta Key figures on Europe, 2025eko edizioa.

⁴ Enpresa-estatistikek barne hartzen dituzte industria, eraikuntza, banaketa-merkataritza eta merkatuko beste zerbitzu batzuk eta kanpoan uzten dituzte jarduera ekonomiko batzuk, besteak beste, nekazaritza, basogintza eta arrantza, baita administrazio publikoa ere.

⁵ EAEko BPGd-rekin korrelazio handia duten hileko ehun aldagai inguru konbinatzen dituen adierazle sintetikoa da.

Beharpena: $x < 50$

Hazkunde txikia: $50 < x < 100$

Hazkunde sendoa: $x > 100$

% 3,8. Bi ratioen hazkundera azkartu egin zen 2024rekin konparatuta: Ondasun-ekipoak % 1,9 puntu eta KEGren gainerakoa 0,9 puntu.

Kanpo-sektorearen bilakaeran, termino nominaletan, Kanpo-merkataritzaren Estatistikak (Aduanen Erregistroetan oinarritua) atzerriarekiko (ez du barne hartzen estatuaren gainerakoa) ondasunen kanpo-merkataritzari buruz ematen dituen behin-behineko datuek erakusten dute 2025ean esportazioak % 3,6 jaitsi direla (29.851,2 milioi euro guztira). Esportazio ez-energetikoak (guztizkoaren % 95,7) % 1,6 murriztu ziren eta energetikoak % 33,3. Era berean, inportazioak (26.611,3 milioi euro) % 1,6 gutxitu ziren 2024rekin alderatuta. Ez-energetikoak (guztizkoaren % 78,9) % 5,3 hazi ziren eta energetikoak % 20,8 gutxitu ziren.

EAEko kanpo-merkataritzak 3.239,9 milioi euroko saldo positiboa izan zuen 2025an, % 112,2ko estaldura-tasarekin.

Eskaintzaren ikuspegitik, agregatu makroekonomiko handi guztiek, lehenengoak izan ezik, 2025ean urte arteko bariazio positiboak erregistratu zituzten, baina jokaera ezberdinekin.

Industria eta energia % 0,4 hazi zen. Manufaktura-industria erritmo pixka bat txikiagoan hazi zen (% 0,3). Kasu bietan, hazkundera asko moteldu zen aurreko urtean erregistratutakoarekin konparatuta (% 2 eta % 1,7 hurrenez hurren).

Industria Produkzioaren Indizeari (IPI) buruzko datuek erakusten dutenez, EAEko industria-jarduerak igoera nabarmena izan zuen 2025eko urtarrilean (*aurreko urtean metatutako aldi beraren aldean* $A(m-12)$), baina gero hazkunde negatiboak izan zituen eta hilabeteetako gorabeherekin, urte osoan gertatu ziren, baina udatik aurrera ez ziren hain zorrotzak izan. EAEn pisu handiena duten bost azpisektore industrialetatik hiruk hazkundeak izan dituzte: Makinak eta ekipo elektrikoak fabrikatzea (% 2,6), Garraio-materiala fabrikatzea (% 2,3) eta bestelako ataletan bildu ez diren makinak eta ekipoak fabrikatzea (% 0,7). Kontrara, kautxuzko produktuak eta metalezkoak ez diren bestelako produktu mineralak fabrikatzeak (—% 1,1) eta oinarrizko metalak eta metalezko produktuak fabrikatzeak (makinak eta ekipoak salbu) (—% 2,6) jaitsierak izan dituzte.

EAEko industriaren teknologia-mailari dagokionez, EUSTATen datuek erakutsi dute urteetan zehar hazi egin dela EAEn ⁶ maila teknologiko ertain eta altuko sektoreen protagonismoa. Hala, 2024an, sektore horietako landunak % 33,5 izan ziren eta 2019an, aldiz, % 32; faktore-kostuen BEG % 36,4 izan zen eta 2019an % 32; eta salmenta garbiak % 34,2 izan ziren eta 2019an % 31,5.

Eraikuntzaren sektorea % 3,7 zabaldu zen (2024an, % 2). Eraikuntzaren egoera-indizeari (EEI) buruzko urteko balantzeak urtetik urterako % 8,2ko batez besteko hazkundera erakusten du lan-egutegiko zenbaki homogeneousotan; % 9,5 igo da eraikuntza, eta % 5,3 obra zibila. Bere aldetik, EEIk (higiezinaren sustapenik gabe) % 7,1eko hazkundera erregistratu du, eraikuntza % 7,9 hazi da eta obra zibila % 5,3.

Zerbitzuen sektorea % 2,8 hazi da urtetik urtera (2024an, % 2,9). Merkatu-zerbitzuek portaera heterogeneoak dituzte. Hala, merkataritza, ostalaritza eta garraioaren adarrak 2025 osoan % 3,3ko hazkundera erregistratu du (2024ko % 2 baino altuagoa), eta gainerako zerbitzuen adarreko jarduerak (hala nola higiezinaren jarduerak, jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak eta, era berean, jarduera finantzarioak eta aseguru-erakundeak) urte arteko % 2,9ko hazkundera erregistratu dute (aurreko urtean, % 3,5koa). Bestalde, merkatukoak ez diren zerbitzuak (hau da, administrazio publikoa,

⁶ ELGEn sailkapenaren arabera, EUSTATEk erabiltzen duena, maila teknologiko altuan hauek daude: 1. Produktu farmazeutikoak fabrikatzea, 2. Produktu informatikoak, elektronikoak eta optikoak fabrikatzea, eta 3. Eraikuntza aeronautikoa eta espaziala. Tarteko-altuan hauek daude: 4. Industria kimikoa, 5. Armak eta munizioak fabrikatzea, 6. Material eta ekipo elektronikoaren fabrikazioa, makinaren eta ekipoen fabrikazioa, ibilgailuen fabrikazioa, 7. Beste garraio-material batzuen fabrikazioa, ontzizintza eta eraikuntza aeronautikoa izan ezik, eta 8. Tresna eta hornidura medikoak eta odontologikoak fabrikatzea. Tarteko-baxuan, hauek: 9. Grabatutako euskarriak erreproduzitzea, 10. Koke-fabrikak eta petrolio finitza, 11. Kautxu- eta plastiko-produktuak fabrikatzea, metalikoak ez diren beste produktu mineral batzuk fabrikatzea. Metalurgia, 12. Produktu metalikoak fabrikatzea, makinak eta armak eta munizioak salbu, 13. Ontzi-eraikuntza, eta 14. Makinak eta ekipamendua konpontzea eta instalatzea. Baxuan, hauek daude: 15. Elikagaien, edariaren, tabakoaren, ehunen eta jantzizintzaren industria. Larrugintza eta zapatagintza. Egurraren eta paperaren eta kortxoaren industria, 16. Arte grafikoa, 17. Altzariak fabrikatzea, 18. Beste manufaktura-industria batzuk; eta 19. Saikatu gabe.

hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuak) % 2,1 hazi dira, 2024an erregistratutako hazkunde-tasaren ehuneko 0,8 puntu azpitik.

EUSTATen txikizkako merkataritzaren salmenta-indizearen hazkundera azkartu egin da 2024tik 2025era bitartean. Horrela, txikizkako merkataritzako salmentak % 3,5 igo dira (lan-egutegiko baldintza homogeneousetan eta prezio konstanteetan), aurreko urteko hazkundearen bost hamarren gainera. Zerbitzuguneak kenduta, % 2,7 gehitu zen. Bestalde, azalera handietako eta elikadura-kate handietako merkataritzaren indizeak (IGSC, gaztelaniaz) % 0,9ko hazkundera izan du, 2024an izandako % 0,5ekoa baino handiagoa, eta 2023an hasitako goranzko joerarekin jarraitu du.

EUSTATen Establezimendu turistiko hartzaileen inkestako datuek erakusten dutenez, 2024 eta 2025 bitartean gora egin zuten EAEko establezimendu turistikoetako (hotel-establezimenduak, landa-ostatuak, apartamentu turistikoak eta aterpetxe turistikoak) sarrerek eta gaualdiek, egonaldiak eta okupazio-mailak⁷. Horrela, sarrerak % 5 gehitu ziren eta 4.619.799 izan ziren eta ostatu-gauak 9.506.416 (+% 4,7 2024rekin alderatuta). Plaza bakoitzeko okupazio-maila % 52,6koa da. Batez besteko egonaldiak 2,1 egunetan mantendu ziren.

Hotel-establezimenduetako sarrerak eta ostatu-gauak sarreren % 84,4 eta establezimendu turistikoetako ostatu-gauen % 81,3 izan dira, baina bestelako turismo-establezimenduen mesedetan murriztu egin dira.

Hotel-kopurua berriro ere gehitu zen 2024 eta 2025 artean, 626tik 641era (+% 2,4), goranzko joerarekin jarraituz; egun bakoitzeko eskainitako logelak % 2,5 hazi ziren eta egun bakoitzeko eskainitako plazak % 2,8. Bestalde, landunak % 3,4 gehitu dira.

Finantza-sektoreari dagokionez, Espainiako Bankuaren datuen arabera, administrazio publikoen titulartasunekoak diren gordailuen saldo osoa 10.648 milioi eurokoa izan zen EAEn 2025 bukaeran. Horrek esan nahi du urtean % 1,6ko igoera izan zela, eta estatuko gordailuen % 6,6 dira. Beste sektore egoiliar batzuetako gordailuen (OSR, gaztelaniaz) balioa 91.694 milioi eurokoa izan zen, hau da, horien balioak % 2,1eko hazkundera izan zuten aurreko urtearekin konparatuta, eta % 5,9ko ratioa Estatuko guztizkoaren gainean. Beste sektore egoiliar batzuen gordailuak modalitate desberdinen arabera aztertzen baditugu (agerikoa, epera eta aktiboen aldi baterako lagapena), hauxe ikusiko dugu: % 73,5 ageriko gordailuak dira, % 14,9 eperako gordailuak eta % 1,2 aktiboen aldi baterako lagapenak. Eperako gordailuak % 1,7 gehitu ziren eta ageriko gordailuak % 2,5.

Gordailu-erakundeek administrazio publikoen eta beste sektore egoiliar batzuen aurrean emandako kredituaren saldo bizia % 3,4 gehitu zen (65.335 milioi eurotik 67.526 milioi eurora). Gehikuntza hori administrazio publikoei (+% 3,1) eta sektore pribatuari (+% 3,4) emandako kredituaren saldoaren igoerak eragin du. Azken hori guztizkoaren % 87,1 da.

EINen datuen arabera, etxebizitzaren gaineko hipoteken kopurua % 21,4 igo zen eta etxebizitza hipotekatuaren gainean mailegatutako batez besteko zenbatekoa % 7,3, 158.976 eurotik 170.506 eurora.

Inflazioarekin lotuta, kontsumo-prezioen indizearen (KPI) urteko tasa orokorra 2025eko abenduan % 2,9 izan zen (Espainian ere bai, % 2,9), 2024ko % 3,6ren azpitik. Hala eta guztiz ere, 2025 berriro ere urte inflazionista izan zen, prezioen hazkundera 2024an erregistratu zenari gehitzen baitzaio. Urteko batez besteko hazkundera % 3koa izan zen (Estatuan % 2,7koa), 2024ko % 3,1en azpitik. Urteko batez besteko tasaren jaitsieran izan zuten eraginarengatik gehien nabarmendu ziren taldeak izan ziren Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak, Alkoholdun edariak eta tabakoa, Jantziak eta oinetakoak, Garraioa eta Aisialdia eta kultura. Inflazioa gorantz presionatu zuten taldeen artean etxebizitza eta hornidurak nabarmendu zen.

⁷ Honela definitzen da: ostatu-gauen guztizkoaren eta eskainitako plaza-kopuruaren (edo logelen, dagokionaren arabera) arteko erlazioa, erreferentziako hilabeteak duen egun-kopurua kontuan hartuta.

Lan-kostuei⁸ dagokienez, EInen “Laneko Kostuen Hiruhileko Inkesta. LKHI” txosteneko datuek adierazten dute EAEn 2025eko laugarren hiruhilekoan % 3,8 egin zuela gora enpresen laneko kostuak langileko, 2024ko epealdi berarekin alderatuta (Estatuan +% 3,8 handitu zen), eta 3.849 eurora iritsi zela, hots, 466 euro gehiago Estatuan baino.

Bere aldetik, **lanaren ustezko produktibitatea** % 0,9 gehitu zen benetan 2025ean, produkzioa enplegua baino gehiago hazi baitzen.

Errentaren banaketa funtzionala: Gure ekonomian sortutako balio erantsia nagusiki berau sortzen lagundu duten ekoizpen-faktoreetan banatzen da eta, bigarrenik, pertsonen eta familien artean, ekoizpen-faktore horien jabetzan duten partaidetzaren eta jasotako askotariko errenten arabera. Argitaratutako azken datuek erakusten dutenez, 2023 eta 2024 bitartean soldatapekoen ordainsaria BPGd-ren guztizkoaren % 47,2 izatetik % 47 izatera igaro da; ustiapeneko soberakin garbia % 30,2tik % 30,7ra, kapital finkoaren kontsumoa % 12,9n mantentzen da eta dirulaguntzen zerga garbiak % 9,7tik % 9,4ra. Denbora-tarte zabalagoekin, 2021 eta 2024 bitartean soldatapekoen ordainsariaren pisua % 48,8tik % 47ra igaro zen; ustiapeneko soberakin garbia % 27,2tik % 30,7ra, kapital finkoaren kontsumoa % 13,7tik % 12,9ra eta dirulaguntzen zerga garbiak % 10,3tik % 9,4ra.

EUSTATEN **errenta pertsonalaren eta familiakoaren estatistikaren** arabera, EAeko 18 urte eta gehiagoko egoiliarren batez besteko errenta pertsonala (errenta osoa) % 4,8 hazi zen 2022 eta 2023 artean, eta 26.271 eurokoa da. 2019rekin konparatuta, gehikuntza % 16,5koa da. Batez besteko errenta pertsonalaren (errenta guztia) % 58 lanaren errentetatik dator, 15.227 € batez beste (+% 4,2, 2023. urtearen aldean), % 29,6 gizarte-transferentzia edo -prestazioetatik⁹, 7.772 € batez beste (2022. urtearekin alderatuta +% 8,6), % 8,1 kapital higiezin zein higigarriaren errentetatik (2.136 €, —% 3,3) eta % 4,3 ekonomia-jardueren errentetatik (1.136 €, +% 4,5).

Batez besteko errenta pertsonala analizatuta errenta-motaren arabera bereizita azken urteetan, ikusten da lan-errenten ekarpenak gutxitzen ari direla, baita ere jarduera ekonomikoenak, eta aldi berean, transferentzia-soberakinak hazi egin dira.

Sexuen arabera, banaketa ezberdina da gizonen eta emakumeen artean, genero-arrakala agerian geratzen delarik. Hala, gizonek 31.641 euroko batez besteko errenta (guztira) lortzen dute, eta emakumeek 21.322 eurokoa.

Errentaren banaketari dagokionez (errenta guztia), 18 urteko eta gehiagoko biztanleria egoiliarraren % 58,9 inguruk EAeko batez bestekoa (26.271 euro) baino errenta pertsonal txikiagoa dute, baina kontuan izan behar da talde horretan sartuta daudela 2023an errentarik jaso ez zutenak (% 12,8); beste muturrean, biztanleria horren % 9ren errenta batez bestekoaren bikoitza da, hau da, 52.542 euro baino gehiagokoa.

Aldi berean, biztanleen % 36,8k 15.000 eurotik beherako errenta pertsonala dute (barne hartzen da errentarik ez dutenen % 12,8).

⁸ Industria, eraikuntza eta zerbitzuak (etxeen enplegatzaile-jarduerak eta lurraldez kanpoko erakunde eta organismoen jarduerak izan ezik).

⁹ Pentsioak eta hartzeko pasiboak, langabezia-prestazio edo -subsidiok, ekintza terroristen ziozko prestazio publikoak, giza immunoeskasiaren birusak erasandakoek jasotako laguntzak eta ezintasun iraunkorren ziozko prestazioak eta Gizarte Segurantzaren ardurapeko seme-alaba bakoitzeko prestazioak.

EAEko **enpresa ez-finantzarioen errentagarritasun ekonomikoa** % 6,5koa izan zen 2023an, eta **errentagarritasun finantzarioa**, berriz, % 10,4koa, 2010etik izandako emaitzarik onenak. Erregistro horiek 2022an eskuratutakoa baino ia ehuneko puntu bat gehiago dira kasu bietan. Zorpetze-ratioa (finantza-geldialdia) 1,6 izan zen (oroharreen bider bat), eta horrek esan nahi du enpresak beren zorraren menpe daudela funtzionatzeko.

Jarduera-sektoreen arabera, 2023an jarduera-sektore guztiek errentagarritasun ekonomiko positiboak izan zituzten berriz ere. Bereziki nabarmendu ziren energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura (% 13,6), Kautxuzko eta plastikozko produktuak eta metalezkoak ez diren bestelako produktu mineralak fabrikatzea (% 11,3) eta Industria kimikoa (% 10,6). Kontrako muturrean egon ziren Ikerketa- eta garapen-jarduerak (% 0,7) eta Jarduera artistikoak, jolasekoak eta entretenimendukoak (% 2), zeintzuek tradizionalki errentagarritasuneko maila txikiak mantentzen dituzten.

Bestalde, **Kanpo Inbertsioen** Erregistroaren datuen arabera, atzerriko inbertsioa kapital eta ondarean murriztu egin da EAEn 2024 eta 2025 artean, 1.047,2 milioi eurotik 528,9 milioi eurora (—% 49,5). Hala, 2025ean Euskal Autonomia Erkidegoa zortzigarren postuan dago inbertsioen bolumenari dagokionez, Madrilen (14.778,9 milioi euro), Kataluniaren (4.293,8 milioi euro), Aragoiren (3.022,9 milioi euro), Andaluziaren (1.311,3 milioi euro), Valentziako Erkidegoaren, Gaztela-Mantxaren eta Gaztela eta Leonen atzetik. Sektoreka, inbertsio guztien gainean duten pisuarengatik bereziki azpimarratzekoak dira Garraioa eta biltegiatzean, Informatika-produktuen eta produktu elektronikoaren eta optikoen fabrikazioan eta Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren horniduran egindako inbertsioak. Lurraldearen ikuspegitik, 2025. urtean, Euskadin egin den inbertsioaren % 51,7 AEBtik dator, eta % 39,4 EB14ko herrialdeetatik ¹⁰. Esparru geografiko horren barruan, nabarmentzekoa da Herbehereetatik egindako inbertsioa: (guztiaren % 17,3).

Bestalde, EAEk atzerrian egindako inbertsioa nabarmen gutxitu da 2024tik 2025era bitartean, 4.770,7 milioi eurotik 416,9 milioi eurora. Hala, EAE seigarren postuan dago autonomia-erkidegoen sailkapenean atzerrian egiten duen inbertsioagatik, Madrilen (8.856,8 milioi €), Asturiasen (698,7 milioi €), Balear Uharteetan, Valentziako Erkidegoaren eta Kantabriaren atzetik. Sektoreen arabera, azpimarratzekoak dira Finantza- eta aseguru-jarduerak, Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura eta Motordun ibilgailuen fabrikazioa eta bestelako garraio-materialak. Lurralde-ikuspegitik, inbertsio guztiaren % 42,6 EB27ra zuzendu da, % 25 Latinoamerikara eta % 27,9 Asia eta Ozeaniara. Zifra horietan sakonduta, EBren barnean azpimarratzekoa da Italian egindako inbertsioa, kanpo-inbertsio guztiaren % 25,3 dena. Latinoamerikan azpimarratzekoa da Brasil (bertara doa % 22,1) eta Asian eta Ozeanian Taiwan, inbertsio guztiaren % 25,4 jasotzen duena.

EAEko sektore publikoari dagokionez, lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren “Aurrekontu-betearazpenaren estatistikaren” arabera, 2024an Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru-aldundiek batera **likidatutako diru-sarrera guztiak** 21.233,1 milioi eurokoak izan ziren eta aurreko urtearekin alderatuta % 0,6 igo ziren (2023an +% 6,7). Zuzeneko eta zeharkako zergen eta transferentzia arrunten diru-bilketak igo egin dira (hurrenez hurren, +% 0,6 eta +% 2,5), eta tasen eta bestelako sarreraren diru-bilketa % 5,2 gutxitu. Gainera, 2023an bezala, finantza-pasiboak % 18,1 gehitu dira (hau da, zorpetze handiagoa). Zorpetzearen igoera hori, 4.4 atalean ikusiko dugun moduan, Eusko Jaurlaritzaren finantzetan (+% 20,1) eta foru-aldundienetan (+% 12) gertatu da. Eusko Jaurlaritzaren diru-sarrerak bakarrik areagotu dira (+% 1,8); izan ere, foru-aldundien sarreraren igoera zerokoa izan da, eta, esan bezala, agregatua +% 0,6koa izan da.

¹⁰ EB14: talde hau (Alemania, Austria, Belgika, Danimarka, Espainia, Finlandia, Frantzia, Grezia, Irlanda, Italia, Luxenburgo, Herbehereak, Portugal eta Suedia) da EBn Atzerriko Inbertsio Zuzenaren hartzaile eta igorle nagusia. Gainera, herrialde horiek buru dira sektore estrategikoetan (energia, teknologia eta defentsa) bloketik kanpo egiten diren atzerriko inbertsioak kontrolatzeko mekanismo berriak ezartzen, EBren araudia betez.

Balantze gisa, Euskal Sektore Publikoak autonomia-erkidegoko BPGd-rekiko dituen diru-sarreraren multzoa, 2023an % 22,8 zena, puntu bat jaitsi da 2024an, % 21,8ra arte (behin-behineko datuak), BPGd diru-sarrera publikoak baino proportzio handiagoan hazi baita (+% 5 termino arruntetan, behin-behineko datuen arabera).

Bigarrenik, **hitzartutako zergen diru-bilketaren** gaineko zifrak aitortu ziren; beraiek osatzen dute zerga zuzenen eta zeharkakoaren multzoa eta guztiaren % 90 baino gehiago dira. 2025ean 20.324,5 milioi eurokoa zen, aurreko ekitaldian baino % 11 gehiago. Zifra horiek 2025eko urrian egin zen azken aurreikuspenaren % 101,2 dira (aurreikusi zena baino 231,8 M € gehiago bildu dira) eta aurrekontu-zifren % 103,1 (19.713,4 M €); horren arrazoi nagusia da barne-eskariaren eta lan-merkatuaren indarra. Gainera, zuzeneko zergapetzearen (+% 9,3) eta zeharkakoaren (+% 12,9) portaera nahiko antzekoa ikusten da.

Bildutako bolumena EAeko 2025eko BPGd arruntaren % 19,7 da behin-behineko datuekin (% 18,6 2024an). Bildutako guztiaren % 39,2 PFEZari dagokio, % 38,3 BEZari (kudeaketa propioa, eta barne-eragiketengatiko eta aduanengatiko doikuntza), % 7,1 Sozietateen gaineko Zergari eta gainerakoa, % 15,4a, zenbait zerga bereziri.

Bestalde, **Euskal Sektore Publikoaren guztizko gastua** (tokiko erakundeak alde batera utzita) 21.795,1 milioi eurokoa izan da 2024an, eta % 1,5 igo da 2023aren aldean, aurreko urteko +% 7ren aldean. Hala, magnitude horrek EAeko BPGd-ren gainean duen ehunekoa 8 hamarren murriztu da, % 23,2tik % 22,4ra, BPGd-ren bilakaera dela-eta (% 5 hazi da zifra arruntetan, behin-behineko datuen arabera). Gastuaren gehikuntza Eusko Jaurlaritzan (+% 3,5) gertatu da, foru-aldundietan murriztu egin baita (-% 0,4), eta agregatuaren aldakuntza +% 1,5koa izan da, partida batzuk erakundeen artean konpentsatzen direlako (transferentzien zati bat, adibidez).

EAeko sektore publikoko gastuaren kapituluaren aldakuntza garrantzitsuenek (tokiko erakundeak salbuetsiz) zenbait ezberdintasun izan dituzte aurreko urteekin alderatuz. Lehenik eta behin, langile-gastuek aurreko urteetako joera positiboari eutsi diote, eta 2023an baino zertxobait gutxiago hazi dira (+% 5,4, aurreko urtean baino 0,9 puntu gutxiago), bai aldundietan (+% 5,7), bai Jaurlaritzan (+% 5,4). Aldi berean, transferentzia arruntak batez bestekoaren gainetik igo dira, 2023an baino proportzio txikiagoan bada ere (+% 3, 5,9 puntu gutxiago). Funtzionamendu-gastuek (ondasun eta zerbitzuen erosketari dagokionez) aurreko urteetako joerari eutsi diote, eta, gainera, aurreko ekitaldietan baino gehiago hazi dira (+% 9,5, eta 2023an, aldiz, +% 4,9). Inbertsio errealei dagokienez (2023an % 31 handitu ziren, eta, horrela, 2020ko jaitsieraren ondoren bilakaera positiboko hiru ekitaldi metatu ziren), 2024an berriro jaitsi dira, kasu honetan % 9 kopuru agregatuan, Eusko Jaurlaritzaren % 19,8ko eta Foru Aldundien % 1,7ko jaitsieraren ondorioz.

Eusko Jaurlaritzaren gastuari dagokionez, 2024ko **"EAeko Aurrekontu Orokorrak gauzatzea"** txostenaren datuek erakusten dute gastua % 3,5 handitu dela 2023tik (obligazio aitortuak), urte horretan % 5 igo baitzen. Gastu-bolumen handiena duten bi sail nagusiak Hezkuntza (% 24,2) eta Osasuna (% 35) dira oraindik ere. Gastu likidatua 14.915,7 milioi eurokoa da, eta gure autonomia-erkidegoko aurtengo BPGd-ren % 15,3 da, behin-behineko datuekin (% 15,5 2023an).

Bestalde, 2024an EAeko Sektore Publikoaren (Jaurlaritzaren gehi foru-aldundiak) sarrera arruntak % 0,6 igo direnez eta izaera bereko gastuak % 5,5 igo direnez, % 42,4 jaitsi da aurrezki gordina, hau da, 1.178,9 milioi euro gutxira. Zenbateko honek gure autonomia-erkidegoko BPGd-ren % 1,2 hartzen du (behin-behineko datuak). Horrez gain, 564,2 milioi euroko (BPGd-ren % 0,6) defizit publikoa erregistratu da (finantzaketa-beharra), finantzazkoak ez diren diru-sarrerak (arruntak gehi kapitalekoak) txikiagoak baitira horrelako gastuak baino. Aurreko ekitaldian 135,2 milioi euroko superabita izana zen (BPGd-ren % 0,1).

Eusko Jaurlaritzaren "Aurrekontuen Betearazpenari buruzko Estatistikak" erakusten duenez, EAeko sektore publiko osoaren (Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundiak) **zorpetze** garbia (zorpetze gordinaren eta amortizazioaren arteko aldea), 2022an eta 2023an ez bezala, positiboa da 2024an: hau da, amortizazioa txikiagoa da zor berriaren jaulkipena baino. Zehazki, 171 milioi euro dira (—151,4 milioi 2023an). Zorpetze gordina nabarmen murriztu zen 2022an (—% 67,1), baina hazi egin zen 2023an (+% 56,9) eta, berriz ere, 2024an, 1.087,1 milioi eurora iritsi zen (+% 18,1); horietatik 834 milioi Eusko Jaurlaritzari dagozkio (+% 20,1), eta gainerako 253,1ak foru-aldundiei (+% 12 2023aren aldean).

Zorpetze gordinaren igoera horrekin batera, dagoen zorraren amortizazioa jaitsi egin da (916,1 milioi euro, eta horietatik 631,9 Eusko Jaurlaritzari dagozkio). Hala, ekitaldiaren amaieran zor bizia % 1,4 handitu da. Ekitaldi-bukaeran, Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek 12.732,8 milioi euroko zorra aurkeztu dute (BPGd-ren % 13,1, behin-behineko datuen arabera; 2023an, berriz, % 13,6). Beste urte batez, zorrik handiena Eusko Jaurlaritzak dauka (guztiaren % 84,6, eta % 84,2 aurreko urtean).

2025ean, bestalde, **bonu jasangarrien** bederatzigarren jaulkipena egin da. Tresna horren bidez, Eusko Jaurlaritzak Garapen Jasangarrirako Helburuei lagundu nahi die, EAEko ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-erronkei aurre egiteko finantzaketa arduratsua eta eraginkorra sustatuz. 2025eko jaulkipena 700 milioi eurokoa da, eta orain arte egindako bederlatzi jaulkipenen zenbateko osoa 5.700 milioi eurokoa da.

Horien eraginari dagokionez, eskuragarri dagoen azken txostenak, 2023koak, dio gobernua 2.521,5 milioi euroko aurrekontua egikaritu zuela Finantzaketa Jasangarriko tresnen bidez finantzatu daitezkeen proiektuetako kategorietan. Guztira 2.207,5 milioi euro erabili ziren proiektu sozialetan eta gainerakoa (313,9 milioi euro) proiektu berdeetan. Guztira egikaritutako aurrekontutik, Finantzaketa Jasangarriaren kargura hautatzeko irizpideak betetzen zituzten proiektuak finantzatu ziren, 700 milioi euroko baliokoak. Zenbateko horretatik, 467 milioi euro (% 67) proiektu sozialetan erabili ziren eta gainerako 233 milioi euroak (% 33), berriz, proiektu berdeetan.

Eta, azkenik, **enplegu publikoari** dagokionez, EAEko administrazio publikoek 148.810 langile zituzten 2025ko urtarrilaren 1ean¹¹, EUSTATen "*Administrazio Publikoen Direktorioko*" datuen arabera. Hau da, aurreko urtean baino % 0,2 gutxiago eta EAEn 2025eko lehenengo hiruhilekoan lan egiten zuten guztien % 15 (% 15,1 2024an), BJAren okupazioari buruzko kopuruak kontuan hartuz gero. Datu horietan ez da aintzat hartzen estatuko administrazioko eta Gizarte Segurantzako langileen multzoa, baina Lurralde Politika eta Memoria Demokratikoko Ministerioak, 2025eko urtarrileko estatistika-aldizkarian kalkulatu zuen EAEn 9.027 pertsona zeudela lanean estatuko administrazio publikoan (horietatik 4.008 estatuko administrazio nagusian eta 5.019 "beste batzuk" kategorian, hau da, nagusiki estatuko segurtasun- eta indar-kidegoetan). Zifra biak batzen baditugu, lanpostu publikoak, 2025 hastean, 157.837 inguru lirateke (aurreko urtean baino —% 0,3). Hala ere, zifra hori estimazio hutsa da; izan ere, erreferentziako datak eta erabilitako metodologiak ezberdinak izan dira¹².

EUSTATen zifrak berriz ere aztertuta, 2025eko urtarrileko 148.810 langile publikoetatik % 64,9 EAEko administraziokoak ziren, % 19,1 toki-erakundeetakoak, % 8,7 foru-aldundietakoak eta gainerako % 7,4a unibertsitatekoak, fundazioetakoak eta beste erakunde publiko batzuetakoak.

Bestalde, funtzionarioak langile guztien % 69,8 ziren (+5,2 puntu 2024rekin alderatuta), % 29,2 langile lan-kontratudunak ziren (—5,3 puntu), kasu bietan Osakidetzaren estatutupeko langileak barne, eta % 1 goi-karguak ziren (aurreko urteetako ratio berbera). Gainera, langile finkoak (funtzionarioak, langile lan-kontratudunak eta estatutupekoak) langileen % 61,1 ziren (2024an baino +3,9 puntu gehiago), % 21,7 bitarteko funtzionarioak ziren (+1,4 puntu) eta % 16,2 aldi baterako langile lan-kontratudunak ziren (—5,4 puntu). Hala, bitartekotasun eta behin-behinekotasun maila % 37,9koa izan zen (% 41,9koa aurreko urtean).

¹¹ Landunak, lanaldi osoko baliokidean.

¹² Ministerioaren datuetan, adibidez, plantilla egonkorra zenbatzen dute, 6 hilabete baino gutxiagoko kontratuak dituzten langileak albo batera utziz.

COVID-19aren pandemiak aurreikuspen ekonomikoak aldatu zituen, eta agerian utzi zuen merkatu bakarraren berdintasun-baldintzak hausteko eta Batasuneko kideen arteko desadostasun ekonomikoak areagotzeko arriskua. 2020ko uztailan Europako Kontseiluak akordio historikoa lortu zuen azkenean, Europako Batzordeak proposatutako irismen handiko neurri-sorta bati buruz, 2021-2027 aldirako Erkidegoko aurrekontuek izango dituzten finantza-aurreikuspenekin lotuta. Europako suspertze-tresna da, **NextGenerationEU** izenekoa, 750.000 milioi eurokoa, eta haren zati nagusia, 672.500 milioi euro, **Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari** (SEM) dagokio.

Laguntza lortzeko, estatu-kideek Berreskuratze eta Erresilientzia Plan Nazionalak egin zituzten, eta 2021eko uztailaren 13an, Europako erakundeek Espainiako Erresumaren Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana onartu zuten. Plan horrek 140.000 milioi euro arteko transferentziak eta kredituak emango dizkio Espainiari 2021-2026 aldian.

Espainiako Gobernuaren Ekonomia, Merkataritza eta Enpresa Ministerioaren “Berreskuratze-planaren V. Betearazpen-txostenaren” arabera, 2025eko maiatzaren 31n autonomia-erkidegoetarako 29.100 milioi euro baino gehiago esleituta zeuden zuzenean kudeatu zitzaten beren eskumeneko funtsak. Funts horietatik 1.402 M€, guztiaren % 4,8, EAEn esleitu zitzaizkion.

2026ko urtarrilaren 31n, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren informazioaren arabera, Estatuak banatutako funtsetatik EAEk 1.307 milioi euro jaso zituen Eusko Jaurlaritzak zuzenean kudeatzeko.

1.307 milioi euro horien % 96 (1.250 milioi euro) proiektuetarako esleitu dira (indarrean daudenak edo amaituta daudenak), eta 1.250 milioi horien % 84,3 gauzatu dira (1.054 milioi euro).

Gainera, Eusko Jaurlaritzak zuzenean kudeatzeko 1.307 M € horiei 3.198 milioi euro gehitu behar zaizkie, sailak “EAEn inpaktua duten beste administrazio-publiko batzuek kudeatzen dituztenak” bezala kalifikatzen dituenak. Horrela, Euskadiri 2026ko urtarrilera arte esleitutako Next Generation funtsen zenbateko osoa 4.505 milioi eurokoa da.

II. ZIENTZIA, TEKNOLOGIA, BERRIKUNTA ETA DIGITALIZAZIOA

I+G+B JARDUERAK

EUSTATen arabera, 2024an, EAEn 2.114,2 milioi euro inbertitu ziren I+Gko jardueretan, (+% 5,6 gehiago). Eginahalari dagokionez, BPGd-aren % 2,15 da; aurreko urteko ehuneko berdina. Ratio hori Estatuko batezbestekoa baino handiagoa da (% 1,5), baina eurogunean ikusitakoa (% 2,29) eta arlo horretan erreferentziazkoak diren herrialdeetan erregistratutakoa baino txikiagoa. Ratio hauek nabarmentzen dira: Hego Korea (% 4,96 2022an), Suedia (% 3,57), AEB (% 3,45 2023an), Japonia (% 3,44 2023an), Belgika (% 3,36), Austria (% 3,26) eta Alemania (% 3,13).

Gastua egikaritzeari dagokionez, enpresek % 76,5 egin zuten ¹³ ; goi-mailako irakaskuntzak % 16,7, eta Administrazioaren mendeko erakundeek gainerako % 6,8. Horrela, enpresa-sektorea da oraindik gastuaren zatirik handiena egikaritzen duena.

Gastu horren finantzaketari dagokionez, sektore pribatuaren partaidetza % 54,9koa da. Administrazio Publikoak gastuaren % 35 finantzatzen du. Eurogunean, EUROSTATen 2021eko datuen arabera, ehunekoak % 56,9 eta % 30,6 dira. Herrialde hauean, I+Gren arloko gastuaren finantzaketa pribatuaren ratioa oso handia izan zen 2023an: Txina, Hong Kong izan ezik (% 79,3), Japonia (% 78), Hego Korea (% 76,1), AEB (% 69,6), Suitza (% 63,7), Suedia (% 63,5), Alemania (% 62,6) eta Belgika (% 60,2).

DOBko I+G jardueretan enplegatutako langileen kopurua (24.409,4 pertsona) igo egin da berriro (+% 4,8). Sexuaren araberako analisiak agerian uzten du jarduera horietan lan egiten duten langile guztien % 37,2 baino ez direla emakumeak; hala ere, horien pisua 3,9 portzentaje-puntu igo da 2010etik, eta 10,7 puntu 2000tik.

Enpresen sektoreko I+G adierazleen analisia honako hau da, Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sareko zentroak eragiketarik kanpo utzita: 2024an I+Gko jarduerak egin zituzten enpresak 1.426 izan ziren, aurreko urtean baino % 3,9 gehiago. Horietatik 638 industria sektorekoak dira (2023an baino 73 gehiago), 725 zerbitzuen sektorekoak (67 gutxiago), 69 eraikuntzakoak (12 gehiago) eta 13 lehen sektorekoak (1 gehiago). Jarduera horietan lanaldi osoan aritzen diren langileen kopuruak gora egin du berriro: 13.104,1etik 13.721,9ra. Langile horietako gehienak zerbitzuetan eta industrian biltzen dira; % 47,4 (6.509,9 DOB) eta % 43,83 (6.631,6 DOB), hurrenez hurren. Enpresek jarduera horietan egiten duten guztizko gastua % 3,9 igo da 2023tik 2024ra bitartean, eta 1.261,7 milioi eurora iritsi da. Nabarmentzekoa da I+G egiten duten euskal enpresen batez besteko tamaina handia; izan ere, 76 langile dira, euskal enpresaren multzoaren batez besteko tamaina baino askoz handiagoa (5,8 lagunekoa). Antzeman dugunez, euskal enpresek beren funtsekin jarraitzen dute I+Gko gastuak finantzatzen, neurri handi batean (guztizkoaren % 72,3 funts propioak dira).

Enpresen berrikuntza jardueri dagokienez, 2023an (Memoria Sozioekonomikoaren edizio honen amaieran eskuragarri dauden azken datuak), EUSTATen arabera, 10 enplegu eta gehiagoko enpresen % 38,4 berritzaileak dira, aurreko urtean baino ehuneko 3 puntu gehiago. EINen 2022ko datuen arabera, 10 enplegu edo gehiagoko EAeko enpresen % 29,8 berritzaileak ziren, Estatuko batezbestekoa baino ratio handiagoa hori (% 23,9). Autonomia-erkidegoen rankingean, EAE dago lehen postuan.

Sektoreka, EUSTATen datuen arabera, industria-enpresen % 44,4, eraikuntza-enpresen % 35,7 eta zerbitzuetakoen % 36,8 berritzaileak dira.

10 enplegu eta gehiagoko enpresek jarduera berritzaileetan egindako gastua, EUSTATen arabera, 3.140 milioi eurokoa da (+% 9,3, aurreko urtearen aldean), hau da, BPGaren % 3,39.

¹³ *Komeni da kontuan hartzea I+G arloko gastuaren zati handi bat Zentro Teknologikoen Sarearen bitartez bideratzen dela; izan ere, zentro horiek, haien izaera juridikoa dela eta, enpresa-sektorearen parte dira eragiketa estatistiko horretan.*

10 enplegu edo gehiago dituzten enpresen % 67,9k uste dute berrikuntza zailtzen duten faktore jakin batzuk daudela. Hauek dira nagusiak: "Enpresaren barruan beste lehentasun batzuk daude" (enpresen % 51,9k adierazi zuten), eta "kostuak altuegiak dira" (enpresen % 44,3k adierazi zuten). Gero, hauek datoz: "enpresaren barruko finantzaketa falta", "laguntza edo dirulaguntza publikoak eskuratzeko zailtasunak", "merkatuko eskariaren inguruko ziurgabetasuna" eta "enpresaren barruan langile kualifikatuak falta dira".

"Europako Berrikuntzaren Adierazleen panelak (EIS) 2025" erakusten du EAE berriz ere "berrikuntza handiko herrialdeak" taldearen barruan kokatzen dela. Zehazki, sintesi-adierazleak 0,605ko balioa du, Estatuaren (0,497) eta EB27ren (0,536) gainetik.

- ESPARRU-BALDINTZAK blokean, EAEk 0,69ko puntuazioa du, eta EB27k 0,54koa; gainera, gure erkidegoak Europako batezbestekoa gainditzen du blokea osatzen duten hiru dimentsioetan: *Giza baliabideak, Ikerketa-sistema erakargarriak eta Digitalizazioa*.
- INBERTSIOAK blokean ere, Euskadik, 0,62ko puntuazioarekin, Europako batez bestekoak (0,55) baino puntuazio hobea lortu du. Eta, *Finantzaketa eta babesa, Enpresen inbertsioa eta Informazioaren teknologien erabilera dimentsioetan*, EAEk EB27k baino puntuazio hobea lortu du.
- BERRIKUNTZA-JARDUERAK blokeak berrikuntza-ahaleginak enpresen mailan erakusten ditu, eta Euskadik Europako batez bestekoaren puntuazio bera lortu du, 0,45. Bloke honetako hiru dimentsioetatik –*Berritzaileak, Laguntzaileak eta Ezagutza-aktiboak*– Euskadi bigarrenaren soilik dago EB27ren aurretik. Berrikuntza-prozesuen etekin gisa sortutako jabetza intelektualeko eskubideen formak atzematen dituen *Ezagutza-aktiboak* dimentsioan, adierazlea 0,32 da, EB27ko batezbestekoaren (0,49) azpitik. Esan dugunez, historikoki aztertuta, EAEk I+G jardueretan inbertsio handiak egin dituen bitartean, dirudienez, oraindik ere zailtasunak dauzka inbertsio hori emaitzetara eramateko, ezagutza-aktiboen adierazleek baxuak izaten jarraitzen dutelako.
- Bestalde, ERAGINEN blokean (enpresen berrikuntza-ahaleginak erakusten ditu), Euskadik Europako batez bestekoaren antzeko puntuazioa lortu du (0,644 eta 0,635, hurrenez hurren). Bloke honetako hiru dimentsioetatik –*Enpleguak inpaktuak, Salmentetako inpaktuak eta Ingurumen jasangarritasuna*– Euskadi hirugarrenean baino ez dago EB27ren aurretik.

Bestalde, "Eskualdeko berrikuntzaren adierazleen panela - Regional Innovation Scoreboard (RIS), 2023" delakoak erakusten duenez, berrikuntzan lider diren eskualdeak, normalean, berrikuntzan lider edo berritzaile indartsu gisa identifikatutako herrialdeetan kokatzen dira EIS 2025ean; eta berritzaile neurritsu eta gorabideko berritzaile gehienak EIS 2025ean berritzaile neurritsu eta gorabideko berritzaile gisa identifikatutako herrialdeetakoak dira. Hala ere, berrikuntza handiko eskualdeak) aurki daitezke berritzaile neurritsuak edo gorabideko berritzaileak diren herrialdeetan; eta eskualde horiei Europako Batzordeak eskualdeko bikaintasun-polo deitzen die. Horien artean dago Euskadi, baina hiru ahulezia erlatibo ditu: enpresek hodeian konputatzea, ETEek prozesu-berrikuntzak sartzeta eta diseinu-aplikazioak sartzeta.

Eusko Jaurlaritzaren ZTBP 2030en tarteko ebaluazioak erakusten du 2030erako erronka nagusiak hauek direla:

- Maila teknologiko handiko esportazioen pisua berreskuratzea.
- Fakturazioa handitzea produktu berriak saltzeagatik.
- Gehien aipatzen diren argitalpenen ehunekoa berreskuratzea.
- Berrikuntzako inbertsioek hainbat jarduera mota hartzen dituzte, hala nola I+G, ingeniariaritzeta eta diseinua, marketina, jabetza intelektualaren kudeaketa, enplegatuen prestakuntza (curriculumaren espezializazioa, hezkuntza duala, STEM arloak indartzea), softwarearen eta datu baseen garapena, aktibo ukigarriak eskuratzeta edo berrikuntzaren kudeaketa bera.
- RISEko posizioa hobetzea. 2025eko edizioan adierazlean posizio ona lortu arren, Euskadi Estatuko rankingeko buru izateari utzi dio lehen aldiz, eta bigarren postura igaro da.

Euskadi 2030 ZTBPrein aurrekontu-zuzkidurari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak konpromisoa hartu zuen I+G+b-ko aurrekontua urtean % 6 handitzeko Euskadi 2030 ZTBPrein barruan. Lehen lau urteetan (2021-2024), 2.390 milioi euro bideratu zituen azkenean, aurreikusitakoa baino % 5,9 gehiago (2.256 milioi euro), urteko batez besteko % 6,9ko igorei

esker. I+G jardueretan egindako inbertsioari dagokionez soilik, 2023an 2.002 milioi eurora iritsi zen Euskadin; urte horretako helburua (1.630 milioi euro) eta 2026rako aurreikusitakoa gainditu ziren. Finantzaketa iturriaren arabera, enpresen ekarpen handia nabarmentzen da, 2023an 2030erako ezarritako helburua gainditu baitzuen.

EKONOMIA ETA GIZARTE DIGITALAK

Biztanleria

EUSTATen “Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta (IGI)-Familiak” inkestaren datuen arabera, 2025ean komunikatzeko eta informazioa eskuratzeko zerbitzuak dira Internet erabiltzen duten ia biztanle guztiak gehien erabiltzen dituztenak (% 99,8), eta, ondoren, entretenimendurako zerbitzuak eta administrazio elektronikoa.

Merkataritza elektronikoki dagokionez, Internet erabiltzen duten 15 urteko eta gehiagoko biztanleen % 56,3k (adintalde horretako EAEko biztanleria osoaren % 50,5) Internet bidez erosi zituzten ondasunak eta zerbitzuak. Internet bidez kontsumitzen duten ia pertsona guztiak erosi dute produktu fisikoren bat (% 92), hala nola arropa, oinetakoak edo osagarriak (% 66,2) edo etxerako ondasunak (% 34,2). Erdiek baino gehiagok zerbitzuren bat erosi dute (% 58), hala nola ostatuak (% 36,8), kultura-ekitaldietarako sarrerak (% 32,5) edo garraio-zerbitzuak (% 29,6). Formatu fisikoan edo deskargatzeko moduan, Internet bidez kontsumitzen duten biztanleen % 16,5ek liburuak, aldizkariak edo egunkariak erosi dituzte.

Enpresak

EUSTATen “Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta (IGI)-Enpresak” izeneko inkestak bederatzi adierazle darabiltza enpresen eraldaketa digitala aztertzeko (4.0 industria)¹⁴. 2024an, enpresaren tamaina edozein dela ere, enpresaren xedeetarako sare sozialak erabiltzea da adierazlerik azpimarragarriena (establezimendu guztien % 53,8k eta 10 enplegu edo gehiagoko enpresen % 76,5ek). Jarraian, "hodeian" dauden zerbitzu informatikoak ageri dira, establezimendu guztien % 31,7k (10 enplegu edo gehiagokoen % 57,3k) ordaintzen baitute ostatatze horrengatik, eta, hirugarren tokian, zibersegurtasun-jarduerak daude, establezimendu guztien % 25,4k egiten baitituzte (10 enplegu edo gehiagokoen % 51,4k). 10 enplegu edo gehiagoko establezimenduetara mugatuz, bigarren taldea aplikazio mugikorrek, gauzen internetek eta big-data analisiak osatzen dute. Eta urrunago daude adimen artifiziala, 3D inprimagailuen erabilera eta robotikaren erabilera.

Bestalde, EINen “Enpresetan IKTak eta merkataritza elektronikoa erabiltzeari buruzko inkestaren” 2024ko datuen arabera, 10 enplegu edo gehiago dauzkaten eta egoitza sozialak EAEn dauzkaten enpresek intentsitate handia erakusten dute IKTen erabileran. Zehazki, EAE lehen postuan dago autonomia-erkidegoen rankingean datuen analitika egiten duten enpresen ehunekoa, hirugarrena hodeian zerbitzuak erabiltzen dituzten enpresen ehunekoa eta AA erabiltzen duten enpresen ehunekoa, eta laugarrena IKT espezialistak dituzten enpresen ehunekoa (hau da, zibersegurtasunean, adimen artifizialean, datuetan, cloud-computingean...)

Teletanari dagokionez, EAE hirugarren postuan dago autonomia-erkidegoen rankingean erregularri telelana egiten duten langileen ehunekoetan, eta laugarrena enplegatuei telelana egiteko aukera ematen dieten enpresen ehunekoetan. Batez beste, langileek astean 2 egunetan egiten dute telelana. Estatuko maila Melillako 3,9 egunen eta EAEko 2 egunen artean dago. Estatuko batez bestekoa 2,4 eguneko da astean.

EUSTATen arabera, euskal enpresetan telelangileen ehunekoa % 11koa izan zen (% 12,3koa 10 enplegu edo gehiagokoetan). Ez da aldaketa esanguratsurik ikusten 2025 eta 2024 arteko ratioan. Sexuaren araberako analisiak erakusten du joera aldatu egin dela; izan ere, ohi ez bezala, 2025ean telelana egiten duten emakumeen ehunekoa gizonena

¹⁴ *Hauk dira: sare sozialak enpresaren xedeetarako erabiltzea, “hodeiko” zerbitzu informatikoak erabiltzea, zerbitzu mugikorrek erabiltzea, gauzen internetea (IoT) erabiltzea, zibersegurtasuneko jarduerak, makrodatuen analisia (big data), adimen artifizialeko sistemak erabiltzea, 3D inprimagailuak erabiltzea eta robotikaren erabilera.*

baino handiagoa da: % 50,6 vs % 49,4 guztizko establezimenduetan, eta % 50,5 vs % 49,5 10 enplegu edo gehiagoko establezimenduetan.

Transakzio elektronikoei dagokienez, merkataritza elektronikoa egin zuten 10 langile edo gehiagoko establezimenduen ehunekoa % 40,4koa izan zen, eta ratio hori ez da aldatu aurreko urtearekiko. Zenbatespenen arabera, salmenta elektronikoa salmenta guztien % 50,1 izan ziren, eta erosketa elektronikoa erosketa guztien % 38,2. Zifra ekonomikoetan, merkataritza elektronikoa hazi egin zen aurreko urtearen aldean.

EUROSTATen datuen arabera, EB-27n, inkestaren aurreko urtean fakturazioaren gutxienez % 1eko merkataritza elektronikoko eskaerak jaso dituzten 10 enplegu edo gehiagoko enpresen ehunekoa (nekazaritza, basogintza eta arrantza, eta meatzaritza eta harrobiak eta finantza sektorea izan ezik) % 20,3ra iritsi da 2025ean. Danimarkak (% 38,6), Lituaniak (% 36,3) eta Irlandak (% 32,2) izan zituzten ratorik handienak. Espainian % 25,4 da.

Administrazio elektronikoa

- Eskaria, bai herritarren aldetik, bai enpresa-sarearen aldetik.

2025ean, azken 12 hilabeteetan administrazio publikoen atarietan informatu, formularioak elektronikoki jaitsi eta/edo bidali edo izapide edo prozedura bat erabat teletramitatu duten 15 urteko eta gehiagoko biztanleen ehunekoa % 64,5koa da, 2024an erregistratutakoa baino ehuneko 0,5 puntu handiagoa.

Administrazio Publikoarekin elektronikoki elkarreragiten duten establezimenduen ehunekoa (administrazio publikoen atarietan informatu dira, inprimakiak elektronikoki jaitsi eta/edo bidali dira edo izapide edo prozedura bat erabat teletramitatu dute) enpresa guztien % 97,7ra iristen da, eta 10 enplegu edo gehiagoko enpresen % 98,7ra.

Izapidetze zuzena izan daiteke, hirugarrenen bitartez (aholkularitza-enpresak...) edo bi prozedurok erabiliz. Hala, enpresen % 62,1ek egiten dituzte izapideak zuzenean, eta % 80,5 da hirugarrenen bitartez izapideak egiten dituzten enpresen portzentajea (horietako zenbaitek zuzenean ere egiten dituzte). Bestalde, 10 langile edo gehiago dituzten enpresek, handiagoak izanik bitarteko gehiago dauzkaten, neurri handiagoan egiten dituzte izapideak zuzenean. Hala, hauexek dira portzentajeak, hurrenez hurren: % 88,7 eta % 66.

Enpresek Administrazioarekin egiten duten izapide motari dagokionez, establezimendu guztietan nabarmentzen dira hauek: BEZa aitortzea (guztizkoaren % 82), informazioa lortzea (% 75,9), inprimakiak eta formularioak lortzea (% 72,1) eta enplegatuen gizarte-kotizazioak aitortzea (% 66,2). 10 enplegu edo gehiagoko establezimenduei dagokienez, honako hauek nabarmentzen dira: informazioa lortzea (tamaina horretako establezimenduen % 87,3), betetako inprimakiak eta inprimakiak itzultzea (% 85,9) eta inprimakiak eta inprimakiak lortzea (% 85,5).

- Eskaintza. "Zerbitzu Publiko Elektronikoen Estatistika" bost urtean behingo eragiketa da. Azkena 2021ean argitaratu zuen Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak.
- Telelanari dagokionez, 2025ean EAEko Administrazio Publikoko telelangileen ehunekoa % 6,1koa izan zen (+0,8). Telelana egiten duten emakumeen ehunekoa (% 60,9) berriz ere handiagoa da gizonena baino (% 39,1), eta, gainera, goranzko joera du.

Eraldaketa digitala: administrazio publikoaren eta enpresen sektorearen arteko konparazioa

- Digitalizazio-adierazleak: administrazio publikoek 4.0 industriaren ezarpen teknologikoko mailak handiagoak dira enpresen sektorearenak baino. Konparazioa 10 langile edo gehiago dituzten establezimenduekin egiten bada, Administrazioak abantaila esanguratsua izaten jarraitzen du.
- Telelana: administrazio publikoen ratioa % 6,1 da, eta enpresen sektorean, berriz, ia bikoiztu egin da (% 11).

Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia eta gizarte digitalak, DESI 2024

DESIren 2024ko edizioak EAE positiboki kokatzen du digitalizazioaren egoerari dagokionez, aztertutako adierazleen % 74 Europako rankingeko lehen 10 posizioen artean baitaude, eta horietatik hamar, lehen bosten artean. 2023ko konparazioan, joera positiboa da (adierazleen % 83 hazi egin da), eta, estatu kideekiko jarduerari erreparatuz gero, emaitza ere positiboa da, horien % 71k bere posizioak mantentzen edo hobetzen baititu

- **Dimentsioei** dagokienez, honako hau dago:
 - Gaitasun digitalak. EAEk maila altuak ditu giza kapitalean eta mundu digitalean moldatzeko prestakuntzan. Hala ere, muga batzuk ditu alderdi espezifikoagoak aztertzen direnean, hala nola eduki digitala sortzeko gaitasunak edo IKT graduatuak, non posizioak tartekoak diren.
 - Azpiegitura digitalak. Digitalizazioaren arloan duten indar handia dira.
 - Enpresen eraldaketa digitala. Euskal enpresek jarduera ona izaten jarraitzen dute digitalizazio prozesuan, baina indartu beharreko arloak dituzte. Teknologia konplexuagoak eta potentzial handiagokoak sartzeak (datuen analitika, hodeiko konputazio zerbitzuak edo adimen artifiziala) emaitza zuzenak erakusten ditu Europako batez bestekoarekin alderatuta, baina enpresa guztien % 50 gainditu gabe. Azpimarratu beharreko beste puntu bat da ETEen merkataritza elektronikoak ez duela lortzen Europako mailara iristea, nahiz eta negozio-bolumenaren proportzioa hobetu egin den.
 - Zerbitzu publikoen digitalizazioa. Euskal Administrazio Publikoaren digitalizazioaren balantzeak sarritan gertatzen diren egoera paradoxikoak islatzen ditu.
- Erronka esanguratsuenak enpresen eraldaketa digitalari buruzkoak dira. Zehazkiago, hiru arlo gakoetan identifikatzen dira gomendioak: inbertsioen bidez abangoardian egoten jarraitzea, etengabeko prestakuntzako eta gaitasunak dituzten pertsonak erakartzeko ekintzak indartzea eta teknologia berriak enpresa gisa hartzea.

Adimen artifiziala Euskadin, BAIC-Basque Artificial Intelligenceren arabera

- 2023tik 2024ra bitartean, Euskadik aurrerapen esanguratsua izan zuen AAren adopzioan, bai esparru publikoan, bai pribatuan. Enpresa sarean, AA sistemak erabiltzen zituzten enpresen ehunekoak % 9,3tik % 12,2ra igo zen. Erakunde publikoen kasuan, adopzioa % 29,1ekoa izan zen 2024an, 2023an erregistratutako mailaren ia bikoitza (% 16,4).
- AAren erabilera nagusiak ekoizpen edo zerbitzu prozesuetan (% 12,6), IKTen segurtasunean (% 9,1) eta I+G edo berrikuntza jardueretan (% 8,2) kontzentratzen dira.
- 2023tik 2024ra bitartean, AA soluzioen enpresa hornitzaileen kopurua % 4,6 hazi zen, eta guztira 91 enpresa zenbatu ziren.
- AAAn diharduten profesionalen kopurua % 25 baino gehiago hazi zen 2023tik 2024ra, 9.500 profesional baino gehiago, eta dagoeneko biztanleria aktiboaren % 0,89 da.

III. INGURUMENA, ENERGIA ETA GARRAIOA

Ingurumena eta energia

Leku batean egiten duen eguraldi meteorologikoa erlatiboki azkar aldatu daiteke. Hala ere, klima (leku jakin batean ohikoak diren baldintzak) ez da hain aldakorra izaten, eta ez da hain azkar aldatzen. Lur Planetaren historian zehar klimak aldaketak jasan ditu. Hala ere, oraingo oso desberdina da aurreko beste batzuekin alderatuta. Giza jarduerak eragindako berotegi efektuko gasen (BEG) emisioek eta gure energia sortzeko moduak handitu egiten dute Lurreko atmosferak beroa atxikitzeko duen gaitasuna, eta, ondorioz, berotze globalaren fenomenoak sortzen da.

IHOBEk argitaratutako “Euskadiko klimaren egoerari buruzko 2025eko txostenaren” arabera, Europa da azkarren berotzen ari den kontinentea, eta Euskadin 2022 eta 2023 urteak izan ziren orain arte erregistratutako bi urte beroenak. Txostenak erakutsi bezala, Euskadin urte beroenen zatirik handiena 2015aren ostean etorri da, bero-boladen egunek gora egin dute (egun bat baino gehiago hamarkada bakoitzeko), eta gertakari horietan erregistratutako batez besteko temperatura maximoa ere igo egin da, eguzki-erradiazioaz gain. Bizkaiko golkoko itsasoaren azaleko temperatura 0,25 ° C goratu da hamarkada bakoitzeko 1981etik, eta itsas maila, aldiz, 2,5 mm urtean 1993az geroztik. Muturreko gertaeren artean, ikusi egin dira ziklogenesi leherkorreko prozesuak dituzten depresioak; uholdeak, elurteak eta kostaldeko inpaktuak eragin dituzten prezipitazio ugariak eta iraunkorreko gertakariak, eta muturreko tenperaturak.

Beraz, **klima-aldaketa antropogenikoa** da gizarte gisa jarki beharreko erronka nagusietako bat. Etorkizuna ekonomia jasangarriago bat lortzean datza, eta, horretarako, **deskarbonizazioak** (atmosfera isurtzen ditugun karbono-emisioak murrizteko prozesu progresiboa) funtsezko zeregina dauka. Emisio horiek murriztea eta neutraitasun klimatikoa lortzen baditugu, pauso oso garrantzitsuak ematen ariko gara berotze globalaren aurkako borrokan.

Neutraitasun klimatikoak esan nahi du BEGen zero emisio garbi erdiestea (xurgapenak emisioak konpentsatu ditzaten), batez ere **emisioak murriztuz, teknologia berdeetan inbertituz eta ingurumena babestuz**.

Klimaren Europako Legeak (2021) emisioak gutxienez % 55 murriztea ezarri zuen 2030erako, 1990arekin alderatuta. EAEn, Energia Trantsizioari eta Klima Aldaketari buruzko otsailaren 8ko 1/2024 Legeak ezarri du emisioak murrizteko helburuak jarduera sozioduktiboa deskarbonizatuz, ekonomia zirkularerako trantsizioa eginez eta klima-aldaketara egokitzuz lortuko direla. Hona hemen helburuak:

- **Berotegi-efektuko gasen emisioak: % 45 murriztea 2030ean**, 2005arekin alderatuta.
- **Energiaren azken kontsumoa: gutxienez % 12 aurreztea 2030erako, eta % 37 2050erako**, 2021eko datuak oinarri hartuta.
- **Energia berriztagarriek energiaren azken kontsumoan parte hartzea: gutxienez % 32 2030ean**, posible izanik gutxienezko ehuneko hori gorantz berrikustea, EBk edo Estatuak ezarritako helburuekin bat etorritik.

IHOBEk argitaratutako “**EAEko 2023ko Berotegi Efektuko Gasen Emisioen Inbentarioaren**” arabera, Euskadiko emisio osoak (inportatutako energia elektrikoa barne) % 36,6 murriztu dira 2005arekin alderatuta, % 22 1990arekin alderatuta eta % 11,3 2022arekin alderatuta. Hala, 2023ko emisioak 1/2024 Legean planteatutako helburuak konplitzeko bidean daude (% 45eko murrizketa 2030ean, 2005arekin alderatuta).

Emisioen ekarpen handiena egiten duten sektoreak garraioa, energia-sektorea eta industria dira. 2023an, hirurek zuzeneko emisioen % 86,7 batu zuten (garraioa: % 37,6, industria: % 18,6 eta energia: % 30,5). Alabaina, energia-sektorearen emisioak gainerako sektoreen energia-horniduraren ondorio direnez, sektore bakoitzean elektrizitatearen eta beroaren emisioak sartzen baditugu, industria- eta garraio-sektorearen emisioak % 30,3 eta % 35,2 bihurtzen dira, hurrenez hurren; energiaren transformazio-sektoreak (koke- eta finketa-jarduerak, eta zentral elektrikoaren barne-kontsumoak eta garraio-galerak) % 12,8ko ekarpena egingo luke, eta bizitegi-sektoreen eta zerbitzuen batura % 14,7 suertatuko litzateke. Nekazaritza- eta hondakin-sektoreek emisio txikiagoak izango lituzkete bi ikuspuntuetatik.

Euskadiko BPG unitate bakoitzeko emisioak 27-EBk 2023an edukitako batezbestekoa baino txikiagoak dira. Biztanle bakoitzeko emisioak, berriz, zertxobait handiagoak dira.

Karbono-neutraltasuna lortzeko, beharrezkoa da berotegi-efektuko gasen emisioak ahalik eta gehien murriztea, sortzen direnak ingurune naturalak (atmosfera, itsasoak eta basoak) xurgatu ditzan. Bestela esanda, ekosistemek CO₂ xurgatzea giltzarri da "zero emisio garbiak" kontzeptuan. IHOBERen datuen arabera, oro har, aztertutako urte guztietan izan da **CO₂ finkatze edo mugitze bat**. Kontuan hartuta UTCUTS sektoreko lurraren erabilera-kategoriak (baso-lurrak, labore-lurrak, larreak, asentukoak, hezeguneak eta beste lur batzuk), aztertutako 20 urteetan baso-lurretan finkatu zen batez ere CO₂a; emisio handienak, berriz, bihurtetarik (baso-soiltzeak eta asentuetarako bihurtetak) eta kudeaketa-aldaketetarik etorri ziren, eta, ondorio gisa, larreak eta belardiak sastrakadi bihurtu ziren. Aipatu beharra dago 1971etik gaur egun arte baso-azalera hedatu egin dela eta horrek CO₂ gehiago finkatzen lagundu duela.

Energiaren edo eskariaren barne-kontsumo gordina, EEERen "Euskadi Energia 2024" txostenaren arabera, % 2,4 gehiago izan zen 2023tik 2024ra, eta 5.998 Ktep-etan geratu zen. **Energiaren azken kontsumoa** % 1 handitu zen 2023arekin alderatuta, eta 4.573 Ktep-etan geratu zen.

Energia primarioaren ekoizpena (608 ktep), aurreko urtearen aldean % 6,9 hazi zena, **energia berriztagarrietan** oinarritu zen nagusiki (580 Ktep).

Autohornikuntza-tasa (energia primarioaren eta eskariaren arteko ratioa) % 10,1ean kokatu zen. Ondorioz, EAERen kanpoko **energia-mendekotasuna** % 89,9an kokatu zen

Elektrifikazio-maila % 24,8koa izan zen, eta balio horrek iraun egin du azken hamarkadan.

Energia-intentsitatea 2023koa baino puntu bat hobea izan zen, hamarkada osoan efizientzia handiagorako joera azpimarratuz. Hala, industriako energia-intentsitatea 34 puntu hobetu da duela hamarkada batetik, garraio-sektorekoa 4 puntu hobetu da eta zerbitzu-sektorekoa 35 puntu.

Faktura energetikoa, 2022an erregistratutako igoseraren ostean, jaitsi egin zen 2023an eta 2024an, eta 6.682 M €-ra iritsi zen. Kostu horretatik, % 57,3 garraio-sektoreari dagokio, % 20,4 industriari, % 11,9 bizitegi-sektoreari, % 9,8 zerbitzu-sektoreari eta % 0,7 lehen sektoreari. Egoitza-sektorean, etxe bakoitzeko faktura % 0,4 igo zen 2023arekin alderatuta, eta 850 eurora iritsi zen etxe eta urte bakoitzeko.

Azken kontsumoa energia motaren arabera aztertuz gero, ikusi dugu petrolioa eta haren deribatuak ageri direla oraindik ere kontsumoaren gehiengo gisa (% 49,6). Atzetik datoz energia elektrikoa (% 24,8) eta gas naturala (% 18). Urrutian kausitzen dira energia berriztagarriak, erregai solidoak (ikatz eta bere deribatuak) eta energia deribatuak.

Kontsumitutako energia zuzenean azken sektoreetan erabiltzen da (industria, garraioa, nekazaritza/arrantza, zerbitzuak eta bizitegiak) edo transformatu egiten da energiaren sektorearen bidez beste energia bat bihurtzeko. **Azken kontsumoa azken sektorearen arabera** aztertuz gero, ikusi da garraioaren kontsumoak Euskadiko azken kontsumoaren % 48 hartzen duela, kontsumoaren serie historikoaren errekorra izanik. Halaber, industria-sektorearen % 32,8 hartzen du (kontsumoaren serie historikoaren minimoa izanik), bizitegi-sektorearen % 10,7 eta zerbitzu-sektorearen % 7,8.

EEERen datuei erreparaturik, 2024an **energia berriztagarrien aprobetxamendua** (barne-kontsumo gordina) 509 ktep izan zen (-% 0,6 aurreko urtearekin konparaturik). Bestalde, iturri berriztagarriek azken kontsumoan daukaten partaidetza-kuota puntu bat igo zen, % 21,4ra iritsi arte.

Energia berriztagarrien energia-hornidurari ekarpenik handiena 2024an biomasak egin zion (gutzizkoaren % 60,3), eta, atzetik, bioerregaiak (% 21,4), energia hidroelektrikoak (% 5,9), eolikoak (% 4,2) eta eguzki-energiak, aerotermiak eta geotermiak, hirurok batera (% 8,2). 2023tik 2024ra bitartean, energia hidroelektrikoa % 42,8 handitu zen, eguzki-energia, aerotermita eta geotermita, hirurok batera, % 28,4, eta biomasa, ordea, % 4,2. Bestalde, bioerregaiak % 22 jaitsi ziren, eta eolikoak % 9,6.

Teknologiaren arabera instalatutako potentziari dagokionez, 2024an gutzizkoaren % 25,6 eguzki-energiari dagokio (% 19,5 fotovoltaikoa eta % 6,1 termikoa), % 20 biomasari (% 9,5 elektrikoa eta % 11,5 termikoa), % 19,6 aerotermitari, % 16,4 energia hidraulikoari, % 14,5 eolikoari eta % 2,8 itsasokoari. 2023tik 2024ra bitartean, fotovoltaikoak 76 MW handiarazi zuen instalatutako potentzia, geotermiak 3 MW, aerotermiak 9 MW, biomasa termikoak 3 MW eta eguzki termikoak mila m².

EAEko **airearen kalitatearen** ebaluazioa, alde batetik, egunero gauzatzen da Eusko Jaurlaritzak argitaratzen duen AIREAREN KALITATEAREN INDIZEAREN medioz, eta, bestetik, urtero sare osoan erregistratutako datuen azterketa egiten da, URTEKO TXOSTENA taxutzeko. Informazio horren eredura, 2024ko jasangarritasun-adierazlea, hau da, kalifikazio “oso ona” eta “ona” daukaten egunen ehunekoak gutzizkoaren % 93,4 osatzen du, eta ratio hori 2,2 puntu hobetu da aurreko urtearekin konparatuz gero.

Hondakinen sorrerari dagokionez, 2023tik 2024ra bitartean kudeatutako **hondakin ez-arriskutsuen** kopuru osoa % 1,7 beheratu zen. Tratamenduari jaramon eginez, % 71,3 birziklatu zen edo harekin konposta egin, % 2,4 energetikoki balioztatu zen eta gainerako % 26,3a ezabatu egin zen.

Hondakin arriskutsuen kopuru osoak % 6,7ko gorakada jasan zuen 2023tik 2024ra bitartean. Tratamenduari jaramon eginez, % 63,1 birziklatu zen edo harekin konposta egin, % 36,8 zabortegira bota zen eta % 0,1 erraustu egin zen.

Hiri-hondakinei dagokienez, EINen datuen arabera, 2023an hiri-hondakinak kudeatzen dituzten enpresek 885,3 tona hiri-hondakin bildu zituzten EAEn (eraikuntza- eta eraispen-hondakinak, EEH, zenbatu barik); 2022an baino % 3,6 gutxiago, alegia. Gaikako bilketaren hondakinak (EHHak kanpo utzita) hondakin guztien % 38,8 suertatu ziren, aurreko urteetan erregistratutako ratioaren azpitik. Estatuan ehunekoak % 23,9koa da, hots, aurreko urteetako ratioaren gainetik.

EAEn gaika bildutako hiri-hondakinen artean, bolumenari erreparatuz, gailen izan ziren papera eta kartoia (gutzizkoaren % 12,3, EEHak zenbatu barik), animalia- eta landare-hondakinak (% 8,6) eta beira (% 7,2).

Per capitaz mintzatuz gero, 2023an 398,8 kg hiri-hondakin bildu ziren biztanle bakoitzeko EAEn (nahastuta eta bereizita). 398,8 kg/bizt. horietatik 244 hondakin nahastuta zeuden, eta 154,8 bereizita bildu ziren.

Tratamendua aztertzeke asmoz, eta EINek ez duenez horren inguruan autonomia-erkidego bakoitzari buruzko informaziorik ematen, Eusko Jaurlaritzaren “EAEko Hiri Hondakinen Estatistika” baliatu dugu, zeinaren arabera, EAEn 434 kg hiri-hondakin kudeatu baitziren biztanle bakoitzeko 2024an. Hala, 2023tik 2024ra bitartean igoera erregistratu zen: 427 kg-tik aipatutako 434 kg-ra igaro zen biztanle bakoitzeko. 434 horietatik 141 birziklatu egin ziren, 36 konpostari dagozkio (ongarri organikoa), 137 balioztatze energetikoaren eta errausketaren xede izan ziren eta 90 zabortegira bota ziren¹⁵.

Ingurumen-babesari dagokionez, EINen “Industriak ingurumen-babesean egindako gastuaren inkesta” deiturikoko azken datuek erakutsi dute EAEn, 2023an, aipatutako gastua (gastu arrunta eta inbertsioa) % 21 handitu zela 2022arekin konparatuz gero. Ahaleginaz bezainbatean (hau da, BPGaren ehuneko gisa), ratioa % 0,38koa da, eta 2022an erregistratutakoaren gainetik dago (% 0,34). Horrela, EAE zazpigarren postuan dago ahalegin handiena egiten duten erkidegoen rankingean.

¹⁵ Alderdiek ez dute gutzizkoa batzen, errefusak eta/edo galerak daudelako gure iritziz. Gainera, 2020tik aurrera ez da obra txikiko etxeko merkataritza-hondakinen isurketari buruzko daturik sartu (ez gaikako bilketari buruz, ez masako bilketari buruz).

Garraioa

Europako erakundeek Europa barneko garraio-sare konpleto eta integratu bat diseinatu eta garatu nahi dute, estatu kide eta eskualde guztiak barruan hartuta. Ondorioztatu zen hura garatzeko modurik onena sare global batez eta oinarrizko sare batez osatutako sistema bat zela. Oinarrizko sarea Europa zeharkatzen duten bederatzi korridoreen inguruan artikulatzen da. Iberiar penintsulatik igarotzen dira bederatzi korridoreetatik bi: Mediterraneoko korridorea eta Atlantikoko korridorea. Kontseiluaren Presidentetzak eta Europako Parlamentuak, gerora, sarea garatzeko zabalkunde-akordioak lortu dituzte. Horrela, etapak hirutan ezarrita geratu dira: Oinarrizko sarea (2030ean amaituko da), oinarrizko sarea zabaldua (2040ra begira) eta sare globala (2050era begira)

Estatuko erakunde publikoek (AENA, ADIF eta PORTUAK eta RENFE OPERADORA) EAEn ingeniartzita zibilean **egindako esleipenei buruz** Garraio Ministerioak argitaratu dituen datuek jaitsierak erakutsi dituzte erakunde guztietan 2024tik 2025era bitartean. Hala, AENAKoak 8,4 M €-tik 5 M €-ra igaro dira, ADIFekoak 99,8 M €-tik 42,5 M €-ra, PORTUAKekoak 87,3 M €-tik 82,9 M €-ra eta RENFE OPERADORAkoak 8,1 M €-tik 0,3 M €-ra.

2024an, EAeko **trenbide-sarea** 549,44 km-ko trenbideak osatzen zuen. Horietatik 517,43 elektrifikatuta zeuden (guztizkoaren % 94,2). 517,43 Km horietatik, % 64,7 ADIFenak dira (eta ADIF ABIADURA HANDIARENak), zeinak 2024an penintsularako ibilbide ertaineko eta luzeko zerbitzuei lotutako azpiegitura kudeatu baitu, baita Bizkaiko eta Gipuzkoako aldiriko zerbitzuei lotutakoa ere (kudeaketa 2025ean eskualdatu zen). Gainerako % 35,3a ETSk kudeatzen du (Bilbo-Donostia-Hendaia linea barne).

Euskal Y-a EAeko trenbide-proiektu nagusia da Atlantikoko korridorearen barruan, eta Gasteiz, Bilbo eta Donostia lotuko dituen abiadura handiko linea bihurtuko da, Irunen eta Frantziaren arteko mugarekin lotuta. Gipuzkoako adarraren plataforma (Bergara-Donostia lotunea), zeina Eusko Jaurlaritzak eraiki baitzuen Estatuak kupoaren kontura finantzatuta, burututa dago daborduko. Adif abiadura handiaren prentsa-oharren arabera, Euskal Y-aren fase berriak bultzatu dira Gasteiz-Bilbo adarreko plataforma osatzen den bitartean. Hamalau zati amaituta daude, eta aurrera egin da gainerako bostak osatzeko: horien artean, Bergarako lotuneko sei zatietatik hiru.

Hona hemen Adif abiadura handiak 2025ean Euskal Y-an abian jarritako **fase berriak**:

- Euskal Y osoa elektrifikatzeko kontratua esleitu da.
- Bizkaiko hiriburura sartzeko eta Bilbao Abandoko geltokia birmoldatzeko proiektuak aribidean daude. Halaber, trenbidea integratzeko obren lehenengo fasea eraikitze proiektua idazteko agindu da, abiadura handia lehenago iristeko Gasteizera.
- Astigarraga-Irun tartean (19 km) hirugarren erreia hedatzen ari da, zabalera iberikoko eta zabalera estandarreko zirkulazioetara egokitzeko mugaraino, eta, aldi berean, Irungo geltokia eraldatzeko eta handitzeko lanak aurrerantz doaz, obren lehenengo fasea amaituta eta instalazioen zati bat zerbitzuan jarrita dagoelarik.
- Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmenak sinatu dira Astigarragako geltoki berria eraikitze (eraikitzen hasita), bai eta Arkautiko trenbide-lotunea ere, Gasteizen integratu dadin. Euskal Y-a + Burgos-Gasteiz abiadura handiko linearako sarbidea.

Bilboko hegoaldeko trenbide-saihesbidea Atlantikoko korridorearen jarduketa estrategikoa da, bideratuta dagoena Bilboko porturako trenbide-irigarritasuna hobetzera eta metropoli-ingurunean salgaien trafikoa optimizatzen. 2017an, Sustapen Ministerioak, ADIFek eta Eusko Jaurlaritzak hitzarmen bat sinatu zuten hegoaldeko trenbide-saihesbidearen proiektuak eta obrak bi fasetan gauzatzeko. I. fasea 2023ko azaroan onetsi zen (informazio-azterketa bat eta ingurumen-inpaktuaren adierazpen bat dauka formulatuta), eta, II. faserako informazio-azterketa idazten ari da.

“Espainiako Trenbidearen Behatokiaren (OFE)” txostenen arabera, portuko trenbide-trafiko gisa ulertzen dira portuetan treneratutako eta trenetik ateratako salgaiak, tonatan adierazita. 2023tik 2024ra bitartean trafikoa % 14,3 jaitسي da Bilboko Portuan, Estatuko portu guztietan jasandako % 5,3ko jaitciera baino gehiago. Pasaiako portuko jaitciera % 25,1koa izan zen.

Egungo garraio-politikek, hainbat eskalatan, **intermodalitatea** daukate oinarri. Esparru horretan funtsezkotzat jo da portuko trenbide-garraioak merkatu-kuota handiagoa eskuratzea. Hala ere, erkidego-eremuan, kuota (bide nabigagarrietako garraioaren kuota ere barne) % 17,1etik % 16,9ra jaitsi da 2023tik 2024ra bitartean, Estatuan % 3,18tik % 2,97ra, Bilboko Portuan % 4,76tik % 3,87ra eta Pasaiako Portuan % 7,52tik % 5,79ra. Banaketa modalaren emaitzek adierazi dute urrun gaudela EBn dauden oreka modalaren balioak lortzetik. Zifrei eutsiz, Estatuan salgaiak errepideetan barrena garraiatzeko merkatu-kuotak % 96 gaintu du 2020az geroztik.

EAEn jatorria edo helmuga duten eta **errepideetan barrena garraiatutako salgaien** bolumena (nazioarteko iragaitzako trafikoa albo batera utzita) 109 milioi Tm-koa izan zen 2025ean, hau da, % 5,2ko igoera jazo zen 2024arekin alderatuta. Guztizkoaren % 44 eskualde barruko trafikoa da, % 46,6 eskualdeen artekoa eta % 6,4 nazioartekoa. Eskualdeen arteko eremuan, trukeen bolumen handiena dela-eta, Gaztela eta Leon, Nafarroa eta Kantabria erkidegoak jo daitezke euskal ekonomiaren merkataritza-bazkide nagusitzat.

EAEko **errepide-sarearen** % 15,3 baino gehiago edukiera handiko bideek osatzen dute, eta Estatuan, berriz, % 10,7. Edukiera handiko bideen % 39,8 ordainpeko autobideak dira, eta Estatuan, berriz, % 10,2. Gainera, ohartu daiteke Estatuan edukiera handiko bide guztien gainean ordainpeko autobideen proportzioak beheranzko joera daukala, eta EAEn, berriz, egonkor mantendu dela gutxi gorabehera.

Portuko trafikoari dagokionez (salgaiak, anoa eta arrantza), Garraio Ministerioaren datuek diotenez, Bilboko Portuan % 7,1 murriztu zen 2024tik 2025era bitartean, eta 32,1 milioi tonatan kokatu zen. Bestalde, Pasaiako Portuan, askoz kota apalagoetan mugitzen den tokian, % 0,1eko igoera jasan zen zirkulazioan, 3,4 milioi tonatan kokatuta.

Aireko trafikoan, AENaren datuen arabera, 2025ean 7.843 mila bidaiari igaro ziren EAEko hiru aireportuetatik (% 90,1 Bilboko aireportutik); 2024an baino % 4,2 gehiago da hori. Salgaien trafikoak, berriz, % 1,8 egin zuen behera, eta 70.176 tonakoa izan zen (% 98,4 Gasteizko aireportuan).

IV. EMPLEGU ETA LAN-HARREMANAK

Lehendabizi, EUSTATen “Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestaren” (BJA) datuen arabera, **EAEko biztanleria aktiboa** 2025. urtearen amaieran (laugarren hiruhilekoko datuak) 1.083.700 pertsonakoa zen, eta horietatik, % 51,4 gizonak ziren (557.400) eta % 48,6 emakumeak (526.300). 2025ean, behin-behineko datuekin, biztanleria aktiboa 6.200 pertsonakoa zen (+% 0,6). Sexuaren arabera, hazkundera desberdina da: emakume aktiboak % 0,8 hazi dira (+4.200), eta gizon aktiboak, berriz, % 0,4, hau da, +2.000 pertsona gehiago.

Bere aldetik, **2024ko eta 2025eko laugarren hiruhilekoetan** enplegua % 1,5 igo da Euskadin (+15.000 lanpostu). Aurreko urtean, berriz, % 1,9 hazi zen (berrikusitako datuak), eta emakume landunen kopurua 10.900 hazi da (guztizko hazkunderaren % 72,7), eta gizonena, berriz, 4.100 (% 27,3). Ondorioz, urtea 1.016.300 landunekin amaitzen da, 524.000 gizonekin eta 492.300 emakumerekin (% 51,6 eta % 48,4, hurrenez hurren). Estatuan, okupazioa % 2,8 hazi da batez beste (IV. hiruhilekoa, EINen BAIren datuak), eta autonomia-erkidego guztiek, Melillak salbu, okupazioaren hazkunderari eutsi diote (iturri horren arabera, EAEk % 2,9ko hazkundera izan du). Sektoreen arabera, azken urteko okupazioaren hazkundera zifra absolutuetan Euskadin zerbitzuetan gertatu da nagusiki; hala, 10.300 enplegu irabazi dituzte (+% 1,4), eraikuntzak 3.000 irabazi ditu (+% 5,2) eta industrian 2.400 enplegu gehiago daude (+% 1,2, eta aurreko urtean % 1,8 jaitsi zen), guztiak ere gizonen enpleguak ziren. Amaitzeko, lehen sektoreak 700 enplegu galdu ditu (—% 7,1).

Kontuan hartu behar diren **EAEko lan-merkatuko beste alderdi batzuk** dira lehenik eta behin, 2024an ez bezala, 2025ean lanaldi partzialeko landunen ehunekoak behera egin duela, (—1,5 puntu) % 17,3raino, EINen BAIren datuekin. Bere aldetik, EUSTATen BJA hartzen badugu iturritzat, lanaldi partzialeko enpleguaren tasa ez da aldatu Euskadin eta % 17,1en mantendu da (2024ko eta 2025eko urteko batez besteko datuak).

Bigarrenik, BAIren arabera, 2025ean jaitsi egin zen baita ere soldatapekoen behin-behinekotasuna (2,2 puntu, % 20,4tik % 18,2ra) sektore publikoaren (—% 1,3) eta pribatuaren (—% 2,0) bilakaeraren ondorioz. Horrenbestez, 2025eko laugarren hiruhilekoan, behin-behinekotasuna EAEko sektore publikoan % 39,8koa izan zen eta % 12,6koa sektore pribatuan. Era berean, BJAko datuen arabera, behin-behinekotasuna 1 puntu jaitsi da, 2025eko laugarren hiruhilekoan % 18,2ra iritsita.

Bestalde, **Euskadin Gizarte Segurantzaren kotizatzen dutenen** (altan dauden afiliatuak) batez besteko kopurua 1.036.804 da (hilabeteko batezbestekoa) 2025eko abenduan. Horietatik % 48,4 emakumeak dira eta % 51,6 gizonak. Zifra hori % 1,2 igo da aurreko urteko hilabete beraren aldean, eta altan afiliatutako 12.294 pertsona irabazi ditu. Jarduera-sektore handiei dagokienez, lehen sektorea % 2,5 jaitsi da eta guztizkoaren gainean duen pisua hamarren bat gutxitu du (% 1,0). Bestalde, industria % 0,3 hazi da, batezbestekoaren azpitik (+% 1,2), eta bere pisuan bi hamarren galdu ditu, % 17,7ra jaitsiz. Eraikuntza % 2,6 hazi da, eta afiliazioaren % 5,8 dauka (+1 hamarren). Azkenik, zerbitzuen sektoreak batezbestekoa baino portaera hobea izan du, % 1,4 igo baita eta bere pisua 1 hamarren gehitu du, alta-afiliazioen % 75,4ra arte.

Produktzio-adarren arabera, gehienetan afiliazio-kopurua igo egin da 2024ko abendutik, salbuespen hauekin: Merkataritza (—% 0,2), Etxeak enplegatzaile gisa (—% 3,7), Etxeko langileak (—% 0,4), eta lehen aipatu dugun Lehen sektorea (—% 2,5). Igoera absolutuak nabarmentzen dira osasunean (+2.207 afiliazio, hots, % 1,9ko igoera), administrazio-jardueretan (+2.121 afiliazio, +% 3,1), jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetan (+1.815 afiliazio, % 2,8ko igoera), eta hezkuntzan (+1.623 afiliazio, +% 1,9ko igoera, 2024ko abenduaren aldean). Hala, lau produktzio-adar horiek afiliazioan urte artean izandako hazkunderaren % 63,2 hartzen dute eta, gainera, altan egondakoen afiliazioa 2025eko abenduan EAEko afiliazioaren % 33,3 izan da.

...

EAEko lan-merkatuak 2025ean zehar izandako bilakaeraren ondorioz, BJAREN **langabezia-tasa orokorra** % 6,2ra iritsi da urtearen amaieran (IV. hiruilekoa) (aurreko urtean baino 9 hamarren gutxiago). (EINen BALren datuen arabera, EAEko langabezia-tasa % 7,5ekoa da). Europar Batasunean langabeziak hartzen duen balio-sorta oso altua da, hala nola Espainiakoa eta Suediakoa (% 9,9 eta % 8,5, hurrenez hurren), baita % 3 inguruko ratioak ere, Txekiar Errepublikan, Polonian eta Bulgarian bezala. Europar Batasuneko batezbestekoa % 5,9koa zen, hots, Eurogunekoa baino 0,3 altuagoa (% 6,2); Estatu Batuek 2025ean % 4,4ko langabezia-tasa izan zuten, eta Japoniak % 2,6koa, erreferentziatzeko beste herrialde batzuk aipatzearen.

2020an, langabeziak sei urtez behera egin ondoren, langabeen kopurua % 16,8 igo zen Euskadin. 2021ean % 11,5 jaitsi zen, eta 2022an eta 2023an joera horri eutsi zitzaion, % 12,5 eta % 17,1 hurrenez hurren. Bazirudien 2024an joera aldatuko zela (+% 0,7), baina 2025ean, berriz ere, langabetuen kopurua gutxitu egin da, kasu honetan, % 11,4, behin-behineko datuekin. Hala, **urtea 67.400 langaberekin amaitu zela uste da**; horietatik % 50,4 emakumeak izan ziren eta % 49,6 gizonak. Adinen arabera, langabeak hiru taldetan gutxitu dira: 25 urtetik beherakoen artean % 8,2 hau da, —700 langabe gutxiago; tarteko adinekoren artean % 4,2 gutxiago (—1.3000 pertsona), eta jaitsierarik handiena 45 urtetik gorakoen artean gertatu zen, langabezia % 18,2 gutxituz (—6.600 pertsona).

Bestalde, 2025eko abenduan, **LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuak** 107.434 langabe erregistratu zituen, hau da, 2024an baino 54 langabe gehiago (—% 0,1, eta Estatuan batez beste —% 5,9, non langabezia 2,4 milioi pertsonatik gorakoa baita). Sexuen arabera, langabeziaren bilakaera ezberdina da eta gizonen artean gutxitu egin da (—% 0,5) eta emakumeen artean gehitu (+% 0,4). Horrenbestez, 2025ean abenduko langabeen % 57,3 emakumeak ziren. Adinen arabera, langabezia bereziki igo da 25 urtetik beherakoen artean eta proportzio txikiagoan 45 urtetiko gorakoetan: langabezia hazi egin da 25 urtetik beherakoen taldean (+% 2,5), eta tarteko adina dutenen artean gutxitu egin da (—% 1,5). 45 urtetik gorakoen artean ere langabezia batezbestekoa baino gehiago igo da, % 0,7.

Ikasketa-mailaren arabera, erregistratutako langabeziak behera egin du bigarren mailako ikasketetan, 2024ko abenduarekin alderatuta (—% 0,7), LHko ikasketak dituztenen artean izandako gorakadaren (+% 2,2) eta hezkuntza orokorreko ikasketak dituztenen artean izandako jaitsieraren (—% 1,8) ondorioz. Jaitsi egin da baita ere ikasketarik ez dutenen edo lehenengo mailako ikasketak dituztenen artean (—% 0,2). Bigarren hezkuntzaren ondorengo ikasketak dituztenen artean, gehikuntza bereziki handia da bigarren eta hirugarren zikloko ikasketak dituztenentzat (+% 4), eta bigarren hezkuntzaren ondorengo ikasketa guztien taldeak % 2,1eko hazkundera izan zuen. Aurten ere, LANBIDEn erregistratuta ageri diren hamar langabetatik sei baino gehiagok (% 61,7, 2024an baino 8 hamarren gutxiago) kualifikazio txikia dutela esan daiteke (lehen edo bigarren mailako hezkuntza orokorreko ikasketak dituztenak). Proportzio hori are handiagoa da gizonen artean (% 64,4 eta emakumeen artean % 59,7).

Kontuan hartzen badugu **langabezian egondako denbora**, 2025ean igo egin da sei hilabete baino gutxiago daramaten langabeen guztizko kopurua (+% 1,8), eta jaitsi, berriz, sei hilabete eta urtebete artean langabezian daramatenena (—% 1,4), batez ere gizonen kasuan (—% 4,3). Eta iraupen luzeko langabeziak, urtebete baino gehiago irauten duenak, behera egin du gizonen artean (—% 0,5) eta emakumeen artean (—% 1,1), eta emaitza metatua % 0,9 jaitsi da. Ondorioz, luzaroko langabeen ehunekoa guztizkoaren aldean lau hamarren jaitsi da 2025eko abenduan, % 47,6raino (% 45,9 estatu osoan). Ratio hori % 43,3koa da gizonen artean (—1 hamarren) eta % 50,7koa emakumeen artean (—9 hamarren).

Bestalde, LANBIDEn bulegoetan erregistraturiko langabeziaren datuek erakusten dutenez, 2025ean % 2,5 gehitu zen EAEn bizi diren atzerritarren langabezia (eta batezbesteko langabezia, aldiz, % 0,1). Hortaz, gora egin du atzerritar langabetuek langabezian duen pisuak, % 19,2tik % 19,7ra.

...

2022an, **lan-erreforma berria** sartu zen indarrean Espainian. Lan-erreformarako, enplegu-egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatua eraldatzeko presazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege-dekretuaren helburu nagusia Espainian lan-merkatuaren egiturazko erreforma gauzatzea da, hartara bereizgarri dituen behin-behinekotasun tasa altuak murrizteko eta, beraz, behin-behinekotasun horren ondorioz enpleguan dagoen prekarietateari aurre egiteko.

Funtsezko helburu horrekin batera, erreformaren beste helburu garrantzitsu batzuk ere lortu nahi dira, hala nola lanaldia murrizteko eta eteteko neurriak bultzatzea, ABEEE direlakoak, lan-kontratuak azkentzearen ordezkoa den aldetik, langileen prestakuntza indartzea eta negoziazio kolektiboa modernizatzea.

Kontratazioak nabarmen egin zuen behera Euskadin 2020an (—% 30,2), COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioz, eta 2021ean susperraldi handia egon zen (+% 22,5). 2022an, kontratazioak % 5,3 egin zuen behera, eta aldaketa handiak egon ziren osaeran, 32/2021 ELDaren ondorioz, 2023ko zifrei ere eragin ziena. 2024an, aldiz, bi aldagaiak gehitu egin ziren eta berriro ere bai 2025ean, % 1,2ko gehikuntzarekin kontratu-kopuruan eta % 0,8koarekin kontratatutako pertsonetan.

Jarduera-atalen arabera, bilakaera desberdina da. Kontratazioan pisurik gehien duten atalen artean, merkataritza (kontratuen % 11,7) batezbestekoaren gaintik hazi da % 3,4, manufakturen industria bezala. Azken horretako kontratuak % 1,9 gehitu dira eta guztiaren % 12,7 dira. Ostalaritza kontratazioaren % 13,7 da eta % 1,7 jaitsi da eta aurreko urtean % 5,1 igo zen. Osasun-jardueren bilakaera ere negatiboa izan da (—% 1,8 2024rekin konparatuta eta kontratuen % 12,4 dira). Administrazio-jarduerak (guztien % 9,7) % 0,7 hazi ziren, % 1,2ko batezbestekoaren azpitik. Aurreko urteetan bezala, sexuaren araberako aldeak ageri dira. Izan ere, manufaktura-industriak gizonen sinatutako kontratuen % 19,2 hartzen du (2024an baino hamarren bat gehiago), eta emakumeen artean, berriz, pisu handiena duten jarduera-atalak Osasun-jarduerak eta Gizarte-zerbitzuen jarduerak eta Ostalaritza dira (bien artean, emakumeek sinatutako kontratuen % 35,9 hartzen dute, aurreko urtean baino 9 hamarren gutxiago. Izan ere, jarduera-sektore biek kontratazioak galdu dituzte).

2025ean kontratatutako pertsonak 280.734 izan dira guztira (+% 0,8), SEPEk emandako datuen arabera. Adin-taldeen arabera, pertsona horietako gehienak, gizonak zein emakumeak, 35 eta 54 urte bitartekoak dira (% 36,6): horien artean, 35 eta 44 urte bitartekoak (guztizkoaren % 18,8) eta 45 eta 54 urte bitartekoak (% 17,8). 25 urtetik beherako pertsonak % 27,6 handia dira, hau da, biztanleria aktiboan duten pisua baino nabarmen gehiago, azken hori % 6,1ekoa baita (2025eko laugarren hiruhilekoaren datua). 25 eta 34 urte bitartekoak % 26,2 dira, eta 54 urtetik gorakoak gainerako % 9,8a. 2024rekin konparatuta, eta sexu bien arteko jokaera nahiko antzekoarekin, 2025ean talde guztiek, 35-54 artekoen talde nagusiak ez ezik, kontratazioak gehitu dituzte, eta bereziki azpimarratu behar da gazteenen taldea; horien kontratuak % 6,9 hazi ziren.

Kontratatutako pertsonen banaketari dagokionez, ikasketa-mailaren arabera, % 42,1ek derrigorrezko edo beheragoko ikasketak ditu, proportzio handiagoa gizonen artean (kontratatutakoen % 45,2) eta txikiagoa emakumeen artean (% 38,7). Bigarrenik, kontratuen % 22,5 Batxilergoko ikasketak dituzten pertsonen dagozkie. Ondoren, % 15,4 ikasketa profesionalak dituzten pertsonen dagozkie eta % 19,2 unibertsitate-ikasketak dituztenei. 2024ari dagokionez, Batxilergoko ikasketak izan ezik (—% 0,4), gainerako ikasketa-mailek gora egin dute; batez ere derrigorrezkoek eta unibertsitate-mailakoek (+% 2,8 eta +% 2,7 hurrenez hurren).

Lanaldi-motarekin lotuta, bilakaera bereziki positiboa gertatzen da lanaldi partzialeko kontratazioetan, batezbestekoaren gaintik hazi dena (+% 5,1, guztira 284.794 kontratu egiten dituzte, % 37,6), eta maila txikiagoan aldizkako lanaldi finkoetako kontratuak, % 2,1 gehitu dira eta guztien % 4,3 dira. Lanaldi osoko kontratuak, bestalde, 440.701 dira, 2024an baino % 1,3 gutxiago (eta guztien % 59,6 dira). Sexuaren arabera, lanaldi partzialeko kontratazioaren pisua desberdina da, zeren eta emakumeek sinaturiko kontratuen ia erdia baita (% 48,2 2025ean). Gizonen sinaturiko kontratuak, berriz, % 26,4 dira. Hala, 2025. urtean emakumeek sinatu zituzten lanaldi partzialeko kontratuen % 65,6 (% 65,3 2024an).

Iraupenari dagokionez, sinatutako kontratu gehienak aldi baterakoak dira oraindik (guztizkoaren % 76,7), 581.704, nahiz eta datu hori 2024an baino % 1 handiagoa den. Bestalde, 2025ean kontratu mugagabeak % 1,8 gehitu dira, eta 176.637 sinatu dira, guztien % 23,3 izan arte (% 9,3 2021ean, lan-erreformaren aurretik).

Gainera, kontratatutako pertsona gehienak hainbat aldiz kontratatu dira urtean zehar. 2025ean kontratatutako pertsonen kopurua (280.734) erregistratutako kontratuen guztizkoa (758.341) baino askoz txikiagoa da. Zifra horiek kontuan hartuz, laneko txandakatze-indizea kalkulatzen da (sinatutako kontratu-kopuruaren eta kontratatutako pertsona-kopuruaren arteko zatidura), emakumeentzat handiagoa izan dena aztertutako sail guztian. Esan bezala, 2025ean gora egin dute kontratuen kopuruak (+% 1,2) eta kontratatutako pertsonenak (+% 0,8); beraz, lan-txandakatzeak gora egin du 2,70era arte (+1 ehunen). Emakumeen kasuan, datua 2,85 kontratukoa da (-2 ehunen) eta gizonena 2,56 (+3 ehunen). Horrenbestez, bi sexuen arteko aldea gutxitu egin da (29 ehunen, aurreko urteko 34en aldean). Aldi baterako kontratuen batez besteko iraupena 2025ean 38 egunekoa da (2024an baino egun bat gutxiago) eta estatu osokoa baino sei egun gutxiago.

“Lanaldi mota” eta “iraupena” aldagaiak gurutzatuta, sinatutako 758.341 kontratuetatik ia erdia, % 47,3 (% 48,1 2024an), lanaldi osoko aldi baterako kontratuak izan ziren, eta modalitate horrek % 0,6 egin du behera (guztizkoaren +% 1,2). Horren atzetik lanaldi partzialeko aldi baterako kontratuak daude, guztizkoaren % 29,4 (% 28,7 2023an), % 3,5 handitu direnak. Hirugarren tokian dago lanaldi osoko kontratazio mugagabea, % 10,8 dena (–0,7 puntu), eta % 4,5 murriztu da. Laugarren tokian, lanaldi partzialeko kontratazio mugagabea % 8,1en kokatu da (% 7,4 2024an) eta % 11,3 hazi da. Azkenik, lanaldi finko eteneko kontratuak % 4,3 dira, % 2,1 haziz.

...

Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailak **EAEn erregistratutako enplegu-erregulazioko espedienteek** buruzko estatistikak argitaratu ditu, eta 298 espediente zenbatu ditu 2025ean (258 espediente 2024an); 6.679 langileri eragin die (–% 29,8), horietatik % 76,9 gizonak. Espediente-motaren arabera, eraginpeko langileen % 66,6 aldi baterako etete-espedienteengatik dira (–% 45 2024ren aldean), % 15,4, lanaldia murrizteko (+% 110,6), eta gainerako % 17,9a, azkentzeko EEEngatik (+% 29,2 aurreko urtearen aldean). Azken horiek, azkentze edo kaleratze kolektiboko EEEEK, beraz, 1.198 langileri eragiten diete (2024an baino 271 gehiago). Ondorioz, aldi baterako etendurako edo lanaldimurrizketako espedienteek, 2025ean, guztira 5.481 langileri eragingo liekete, hau da, EEEEK eragindako ia langile guztiei (% 82,1), eta 8.581 izan ziren 2024an (–% 36,1).

Bestalde, banakako irazpenak eta azkentzeko EEEEK 2025ean eragindako langileen agregatua kontuan hartzen badugu, eta iturritzat Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioa hartzen badugu (12.577 irazpen gehi Ministerioak kontabilizatzen dituen azkentzeko EEEn eragina duten 1.727 langile gehiago), ikusten da % 2,1eko igoera izan dela, aurreko urtean % 8,9 hazi baitzen.

...

Langileen ordezkariak aukeratzearen garrantzia, besteak beste, arrazoi honetan datza: **hauteskunde sindikalen** negoziatio-eremuen arabera emaitzen bidez eta dagokion araudiaren arabera, negoziatio-mahaien osaera lortzen da, sektoreko hitzarmenen negoziatio kolektiboan eta enplegatu publikoen lan-baldintzen negoziatioan langileen ordezkariari dagokionez. Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak jakinarazten du Euskadin 2025eko abenduaren 31ra arte egindako hauteskunde sindikaletan 20.249 ordezkari aukeratu zirela, urtebete lehenago baino % 2,9 gehiago; horietatik 18.652 (% 92,1) sektore pribatukoak ziren eta 1.597 (gainerako % 7,9a) administrazio publikoetakoak. Urte arteko hazkunde hori sektore pribatuan (+587) bakarrik gertatzen da, administrazioan bederatzi ordezkari galdu baitira. Sexuaren arabera, delegatuen % 58,7 gizonetakoak izan ziren (% 41,3 emakumeak, urtebete lehenago baino lau hamarren gehiago), eta emakumezkoen kopurua txikiagoa da enpresetan (% 40,7 delegatu) administrazioan baino, azken horretan parekotasuna hurbilago baitago (% 49,2 emakumeak).

LHKren 2025eko datuen arabera, urtea indarreko hitzarmena zuten langileen % 44rekin hasi zen; % 51,4k, berriz, luzatutako hitzarmen bat zuen berritzeke, eta % 4,6k bertan behera zuen bere hitzarmena. **Negoizatio kolektiboaren** estaldurak, beraz, langileen % 95,4 hartzen zuen (% 94,9 aurreko urtean).

Negoiazio-jarduerari dagokionez, 2025ean zehar **257 hitzarmen erregistratu ziren Euskadin**, 2024an baino % 12,9 gutxiago. Horrek, 128.650 pertsonak lan-baldintzak berritzea ekarri du, aurreko urtean baino % 26,4 gehiago. EAEn eragin handiagoa izan zutenak estatuan baino (72 hitzarmen erregistratu ziren) eta, aldi berean, lehenengoek langile gehiago hartu zituzten (73.778 pertsona; estatu-mailako hitzarmenetan, berriz, 54.873).

Horrenbestez, negoziazio kolektiboaren egoera, urtea amaitzean, hauxe da: langileen % 63,8k indarrean zuen hitzarmen bat (% 19,8, urtean erregistratutako hitzarmenekin, eta % 44, aurreko urteetan); % 31,7k luzatuta zeukan berritzeko eta gainerako % 4,5ak hitzarmena indargabetuta zuen (beraz, egiteko zeuden hitzarmenen % 36,2). Ondorioz, 2025. urtean negoziazio kolektiboaren estaldura % 95,5ekoa izan zen (2024an baino +1 hamarren). Lan Harremanen Kontseiluaren datuek nabarmentzen dutenez, estaldura-maila handiena da 2012ko lan-erreforma onartu zenetik. Sexuen arabera banaketari dagokionez, 2024ren aldean, gutxitu egin zen bai gizonen ehunekoa indarreko hitzarmenekin (% 71,4tik % 68ra), bai emakumeena, eguneratutako hitzarmenekin (% 63tik % 58,6ra). Emaitza horiekin, genero-arrakala handitu da, 2024ko 8,4 puntuetatik 2025eko 9,4 puntuetara.

Lortutako akordioen edukiei dagokionez, EAEn indarrean dauden hitzarmenetan 2025erako itundutako batez besteko soldata-igoera % 3,32koa da (% 3,53 Estatu osoan), eta hitzartutako batez besteko lanaldia 1.700 ordukoa da urtean. Lana eta familia bateragarri egiteko neurriei dagokionez, LHKren txostenak nabarmentzen du indarreko hitzarmenen % 48,7k soilik hartzen dituela barnean 2021ean horrelako neurriak (% 47,2 2020an), horietako gehienek edoskitzeko eskubidea metatzeko aukerarekin lotuta, baita indarreko legerian ezarritakoa hobetzen duten ordaindutako baimen batzuk ere.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren datuen arabera, 2025ean **lan-gatazkei** dagokionez 2023an eta 2024an atzemandako beheranzko joera aldatu egin da: EAEn, aurreko, 208 greba erregistratu dira. Horietan, 35.735 parte-hartzaile izan dira, eta, guztira, lanik egin gabeko 163.857 egun sortu dira. Kopuru horiek urtearekin alderatuta, % 20 jaitsi da greba-kopurua eta % 57,4 gehitu dira lan egin gabeko lanaldiak. Era berean, greba horietan parte hartu duten langileak % 21,3 gehitu dira 2024. urtearekin alderatuta.

Bestalde, EINen “*Lan Kostuen Hiruhileroko Inkestako*” zifren arabera, 2025ean (urteko batezbestekoak), enpresen eta langileen artean **itundutako** hileko ordu-kopurua 148 izan zen, 2024an baino % 0,1 gehiago. Ordu horietatik 120,5 (+% 0,4) hau da, % 81,4, benetan lan egindakoak izan ziren, eta ratio hori bi hamarren gehitu da azken urtean. Era berean, 2025ean lan egin gabeko orduak 28,1 izan dira langile eta hilabete bakoitzeko, 2024an baino % 0,7 gutxiago eta benetan lan egindako orduen % 23,3 dira. Gainera, EINen BAIK dio 2025ean, Estatuko soldatapeko langile guztiek, batez beste astean, aparteko 6.381,3 mila ordu egin zituztela, 2024an baino % 5,2 gutxiago. Horietatik 3.891,3 mila ordaindu ziren, aurreko urtean baino % 2,9 gutxiago. Ordaindutako ordu horiek aparteko ordu guztien % 61 dira (% 59,5 2024an).

Zifra horiei zuzenean lotuta, gogoratuko dugu 2020an lan-merkatuan pandemiaren ondorioz izandako gertakarietako bat, enpleguaren jaitsieraz gain, **telelanaren** zabalkundea izan dela.

2025ean EAeko landunen % 12,6k telelana egin zuen (% 7,7k noizean behin eta % 4,9k egunen erdia baino gehiago), hau da, ehuneko 1,3 puntuko beherakada 2024ko datuen aldean. Gainera, zifra horiek erakusten dute behera egin duela telelana noizean behin egiten duen biztanleriak (−0,7 puntu), eta ohiko telelanak (−0,6). Estatuan, kontrara, telelanaren erabilera orokorrak gora egin du aurreko urtearen aldean, % 15,6ra iritsi baita (+2 hamarren), eta, gainera, gora egin du noizbehinkako telelanak (+0,1) eta ohikoak (+0,1). Datu horiekin, gure autonomia-erkidegoa, telelana egiten duen biztanleria okupatuaren ehunekoa estatuko batezbestekoa baino txikiagoa zuena, ratio horretatik geroz eta gehiago urruntzen da, 2025erako 3 puntuko aldearekin (2024an 1,5). Dena dela, alde horien interpretazio zuzena egiteko zenbait aldagai aztertu beharko lirateke, hala nola egitura produktiboa, eta gainera kontuan hartu estatuko batezbestekoak era askotako datuak jasotzen dituela.

...

Soldatei dagokienez, EINen “*Soldaten Egituraren Urteko Inkestaren*” arabera, langile bakoitzeko urteko batez besteko irabazia 2024an (eskuragarri dagoen azken datua) EAEn 35.170 € zen, hots, % 5eko igoera aurreko urtearekiko. Kopuru hori estatuko batezbestekoa baino % 19,1 handiagoa da denboraldi berean (29.540 €), eta autonomia-erkidegoen zerrendako lehenengoa da. Ondoren, Madril eta Nafarroa datoz. Sexuen arabera soldaten aldeari dagokionez, emakumeen batez besteko soldata txikiagoa zen gizonezkoena baino autonomia-erkidego guztietan 2024an. Hala ere, aldea desberdina da batzuen eta besteen artean. Enpleguak eta okupazioak autonomia-erkidego bakoitzean duten egitura desberdina funtsezko faktorea da aldakortasun hori azaltzeko. EAEn emakumeen soldata batez beste gizonezkoen % 86koa zen. Hau da, % 14ko arrakala, 2024an baino 1,2 puntu gehiago.

Batez besteko % 14ko soldata-arrakala hori izugarri igotzen da soldaten beheko zatian, eta banaketaren 10. pertzentilean % 33,2ra iristen da eta beheko koartilerako % 24,5ekoa da. Soldata ertainak kontuan hartuta, arrakala % 17,1ekoa da eta asko murrizten da soldata altuenen artean: % 9,8ra iristen da goiko koartilean eta banaketaren 90. pertzentilean % 6,4.

Eta, lanaldi desberdinak dituzten langileak berdintasunean ikasi ahal izateko beharrezkoa den lan-ordu normaleko irabazia kontuan hartuta, irabazia, 2024. urtean, 23,06 eurokoa izan zen gure autonomia-erkidegoan, 2023. urtean baino % 4,8 gehiago. Orduko irabazia, urteko batez bestekoa bezala, autonomia-erkidego guztietako handiena da (eta estatuko batez bestekoa —18,77 euro orduko— baino % 22,9 handiagoa). Sexuaren arabera, EAeko emakumeen orduko batez besteko irabazia 22,41 eurokoa zen 2024an (+% 4 2023ko datuekin alderatuta); gizonen kasuan, berriz, irabazia 23,55 eurora igotzen da (+% 5,3). Sexuaren arabera alde horrek esan nahi du emakumeek orduko kobratu zutela Euskadin gizonen jaso zutenaren % 95,2, edo, bestela esanda, orduko irabazia % 4,8 txikiagoa izan zela. Arrakala hori 1,2 puntu handitu da azken urtean.

Bestalde, EINen “*Laneko Prezioen Indizeak*” (lan-merkatuaren prezioen ondorioz soilik eskulanaren prezioan izandako aldaketa neurtzen du, egindako lanaren kalitatean eta kantitatean izandako aldaketek eraginik izan barik) erakusten du 2022tik 2023ra (azken datua) % 4,2 igo dela, estatuko batez besteko aldakuntzarekin alderatuta (+% 2,4). Oinarrizko urtetik (2016-2023) izandako bilakaera aztertuta ageri denez, igoera % 15,9koa izan da: 2023rako EAeko datua 115,9 da, eta estatuko batezbestekoa, berriz, 116,0.

...

Enplegu-politiken arloan, gaur egun indarrean dago **Enplegurako 2030eko Euskal Estrategia**. 2021eko apirilean onetsi zen estrategia hori, eta orain etapa berri bati ekin dio kalitatera, gizarteratzera eta berdintasunera bideratutako enplegu-politikan. Horrez gain, trebakuntzarako eta aktibazioarako eskubide subjektiboari aurre egiten dio, enplegua Euskadik aurrea egiteko eta gizarte-kohesioa lortzeko bitarteko izan dadin. Estrategia lerrokatuta dago Gobernuo programaren ardatzekin, Berpiztu programarekin, Espainiako Gobernuo Estrategiarekin, Next Generation EU proiektuarekin eta Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako Helburuekin, batez ere lan txukunari eta hazkuntza ekonomikoari dagokionarekin. Horren bidez, kalitatezko enpleguak bermatze aldera, administrazioei eskatzen zaie enplegu-zerbitzu publiko aktibatzaileak diseinatzeke, elkarrizketa soziala eta negoziazio kolektiboa sustatzeko, elkarlaneko lan-harremanen alde egiteko eta formula ekonomiko berritzaile, iraunkor eta inklusiboen alde egiteko. Estrategiaren helburua da Euskadiko gizartea eta ekonomia iraunkortasunez eta berdintasunez garatzen laguntzeko lan-merkatu bat antolatzea. Ildo horretatik, berdintasunean kalitatezko enplegu-aukerak emango ditu, gizarteratzea eta giza garapena bultzatzeaz gain.

2025ean, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak strategiaren tarteko ebaluazio-txostena aurkeztu zuen eta azpimarratzen du proiektu eragileen ibilbideak aurrerapen handia izan duela. Lorpen nagusien artean daude legegintza-garapena, enpleguaren zerbitzu publikoaren eraldaketa, prestakuntza-eskaintzaren egokitzapena, kolektibo zaugarrienei ematen zaien arreta eta ebaluazio-sistemen sustapena. Hala eta guztiz ere, hobekuntza-arloak ere identifikatu ziren, adibidez, zerbitzu pertsonalizatuak indartzea, sektore-politikak guztiz integratzea, martxan dauden trantsizioetan laguntzea eta ebaluazio- eta ikaskuntza-prozesuak etengabe indartzea.

Bigarren maila batean, **Enplegurako 2021-2024 Plan Estrategikoak** Enpleguaren 2030eko Euskal Estrategia zehazten eta hedatzen du bere erreferentzia-aldian eta berarekin partekatzen ditu jarduketa-printzipioak: aukera-berdintasuna; aurreratzea, berrikuntza, erantzun azkarrak eta erresilientzia; lurralde-oreka; adostasuna eta kolaborazioa; eta gobernantza irekia eta maila anitzekoa.

2025eko planaren “Azken ebaluazioaren txostenak” adierazten du betetako funtsak 1.940,2 milioi € izan zirela, hasierako aurrekontuaren % 93,7. Jarduketan egite-mailari dagokionez, planaren indarraldian aurreikusita zeuden 205 jarduketetatik 200 egin ziren. Beraz, egite-maila altua izan zen, % 97,6koa, eta % 100era iritsi ziren jarduketa-eremu gehienetan, hurrengo orrialdeko taulan ikus daitekeen bezala. Egiaz, % 100en azpitik daude bakarrik 1. eremua (Enplegua berreskuratzea, mantentzea eta sortzea), 3.a (Enplegua eta prestakuntza erresilientea eta inklusiboa) eta 8.a (Enpleguaren Euskal Legea); lehenengo bietan betetze-maila % 90etik gorakoa izan zen eta hirugarrenean % 80koa.

Planaren balorazio orokorrari dagokionez, agiriak dio planaren indarraldian zehar lan-merkatuaren adierazle gakoan ibilbidea positiboa izan dela. Langabezia-tasak modu jarraituan jaitsi ziren (orokorra eta gazteena) eta behin-behinekotasunaren adierazle bilakaera ere aldekoa izan da, soldata-arrakalak atzera egin du, afiliazioa hazi egin da eta enplegu-sorkuntzan zifra handiak lortu dira. Hala eta guztiz ere, aitortzen da erronka handiak daudela oraindik, adibidez, behin-behinekotasuna. Azken horren ibilbidea beherakoa izan den arren, oraindik ere maila altuetan dago, eta, bestalde, langileen segurtasunean eta osasunean ere hobetzen jarraitu behar da. Gauza bera esan behar da, adibidez, gazteen enplegu-tasaren inguruan. EBko baloreekin konparatuta oso altu mantentzen da, eta berdina gertatzen da 55 urtekoen okupazio-tasekin edo ekintzaitza-adierazleekin. Planaren esparruan jarduketa garrantzitsuak egin diren beste eremu bat talentuaren kudeaketarena da, baina hala ere, arreta berezia ematen jarraitu beharra dago. Egiaz, indartu egin behar dira trebakuntza eta birkualifikazio profesionaleko politikak eta gehiago sakondu behar da enpleguko politika aktiboak optimizatzen. Azken finean, bermatu behar da enplegurako prestakuntza-zerbitzua definitzean ekoizpen-sarearen beharrak, enplegutik urrutien dauden pertsonen beharrak eta talentua jaso behar duen lan-merkatutik eratorritako eskakizunak kontuan hartzen direla.

Bestalde, **LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuak** funtsezko zeregina du EAEko enpleguaren gaineko politika aktiboen garapenean eta planaren ezarpenean, zeren eta haren eginkizunak lan-aktibazioa (enpleguaren sustapena, bitartekotza, orientazioa, eta abar) eta enplegurako prestakuntza (landunak nahiz langabeak) dira.

Aurrekontu-likidazioetatik abiatuta (aitortutako obligazioak), LANBIDEk 2024an 1.231,3 milioi euroko gastua izan zuen, 2023an baino % 6 gehiago; horietatik 819,5 milioi, guztizkoaren % 66,6, Gizarteratze Programara bideratu ziren (2023an baino % 6,3 gehiago), 236,9 milioi euro (gutzizkoaren % 19,2) Enplegu Programara (+% 12,2) eta 119,5 milioi (gastuaren % 9,7) Prestakuntza Programara (+% 1,1). Eta enplegu-politika aktiboetan egindako gastua prestakuntza- eta enplegu-programen batura kontuan hartzea sinplifikatzea badakar ere, gizarteratze-programekin duten berezko lotura dela-eta, LANBIDEk 2024an gauzaturako enplegu-politika aktiboetan 356,4 milioi euroko gastua zenbatetsi daiteke, 2023an baino % 8,2 gehiago, aurreko ekitaldian % 19,7 jaitsi baitzen.

Langileei zuzendutako **etengabeko prestakuntza** ere enplegu-politika aktiboen barruan sartzen da. EAEn, indarrean dagoen araudiaren eta eskumen-banaketaren ondorioz, jarduera horiek LANBIDEk eta estatu-mailan Enpleguan Prestatzeko Estatuko Fundazioak (FUNDAE) kudeatzen dituzte.

FUNDAEK sustatutako ekintzei dagokienez, 2024an EAEn 289.173 prestakuntza-ekintza egin ziren 164.662 langilerentzat, aurreko urtean baino % 4 gehiago, 14.770 prestakuntza-enpresek esku hartu zutelako (+% 2,5 2023ren aldean). 2023an (eskuragarri dagoen azken datua) enplegu-prestakuntzarako eskuragarri zeuden funtsetatik 29,8 milioi € erabili zituzten (+% 4,6 2022rekin alderatuta), eta horien hobariak jaso ziren Gizarte Segurantzako kuotetan.

...

Enplegurako politika pasiboei dagokienez, EAEn 2025ean langabezia-prestazioetarako gastua, SEPEk emandako behin-behineko datuen arabera, 878,64 milioi eurokoa izan zen, 2024an baino % 7,7 gehiago. Zenbateko hori EAEko BPGd-ren % 0,85 da (% 0,83 aurreko urtean), eta estatu osoko langabeziako gastu osoaren % 3,66. Estatuan 24.000 milioi baino gehiago da gastu hori.

2025ean langabeziagatiko prestazioen onuradunak, batez beste, 53.265 izan ziren EAEn, aurreko urtean baino % 3,9 gehiago, SEPEk emandako batez besteko datuen arabera. 53.265 hartzaileratik % 56,4 emakumeak dira (+% 4,8 2024ko datuen aldean) eta % 43,6 (+% 2,8) gizonak.

Eta, abenduko langabezia-prestazioak jaso zituzten 43.013 pertsonetatik, % 71,9 kotizaziopeko prestazioenak ziren (30.935 pertsona), % 28 laguntzenak (12.037) eta gainerako 0,1ek laneratzeko errenta aktiboa jasotzen zuen (41). Estatuan, hilabete horretan bertan, 1,44 milioi onuradun erregistratu ziren, 2024ko abenduan baino 350.000 gutxiago, eta kotizaziopeko prestazioa jasotzen zuten pertsonen ratioa % 62,3 izan zen, % 32,9 laguntzetarako eta % 0,1 laneratzeko errenta aktiborako. Gainera, % 4,7k nekazaritzako aldi baterako langileen laguntza jasotzen zuten.

Zifra horiekin, langabezia-prestazioen batez besteko estaldura, estatuan % 79,1ekoa zen (2024an baino 1 puntu gehiago), eta EAEko datua hori baino txikiagoa da (hilabete horretan erregistratutako langabeen % 53,5ek lehenago lan egin zuen, Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioaren metodologiaren arabera). Estaldura hori 1,5 puntu gutxitu da azken urtean. Ohikoa den bezala, EAEk autonomia-erkidego guztietatik langabeziaren estaldura-tasarik txikienetako bat dauka, Ceuta eta Melilla alde batera utzita berarekin¹⁶.

...

Halaber, bere inguruabar sozialengatik eta ekonomikoengatik (gizartean baztertuta edo arrisku horretan egotea) edo ezintasunen bat izateagatik **lan-merkatuan berdintasunean sartzeko** zailtasun bereziak dituzten pertsonentzako enplegu-politikaren kopuruak aurkeztuko dira. Kasu honetan, helburu nagusia ordaindutako enplegu duina eta inklusiboa bermatzea da, desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei eta pertsona horiek behar dituzten egokitze pertsonal eta sozialeko zerbitzuen prestazioei buruzko Konbentzioaren 27. artikuluan ezarritakoaren arabera. Aldi berean, lan-merkatu arruntean sartzeko bitarteko bat izan nahi dute. Hori guztia, hain zuzen ere, enplegua pertsonak gizarteratzeko bide nagusia dela onartuta.

Lehenik eta behin, EUSTATen Gizarte Zerbitzuen Estatistikak dio 2023an desgaitasuna zuten 9.672 pertsona (horietatik % 63 gizonak ziren eta % 37emakumeak) EAEko 152 **Enpleguko Zentro Berezien** (CEE, gaztelaniaz) langile-erabiltzaileak zirela. Lurreldekoa, Gipuzkoa da CEEetan lan egiten duten desgaituen kopuru handiena duena (gutzizkoaren % 44,5), gero Bizkaia (% 41,3) eta azkenik Araba (% 14,2). Horrez gain, araudian ezarrita dagoenez, gutxienez enpresako plantillaren % 70 desgaituekin osatuta egon behar dute CEEk. EAEn ratio hori 2023an % 78,8koa zen.

Zentro horietan enplegua mantentzeko laguntzei dagokienez, Eusko Jaurlaritzak 2024an helburu horretarako LANBIDEn bitartez 77,7 milioi € bideratu zituen (+% 11,5, 2023rekin alderatuz), hasieran aurrekontuan zeuden 80 milioietatik. Halaber, LANBIDEK, 2024an, 5,5 milioi euro erabili zituen (—% 0,2 2023ren aldean), 5.063 langile desgaituri laguntzeko (—% 0,2) EAEko 41 CEEetan, jarduera profesionalerako laguntza-unitateetako 573 adituren lanari esker.

¹⁶ Arrazoietako bat da langabezia-laguntzari lotzeko, behin kotizaziopeko prestazioa amaituta, bizikidetz-unitatearen errenta kontuan hartzen dela, eta errenta hori, EAEn, laguntza lortzeko gehieneko tartearren gaineratik egoten dela askotan. Hori dela eta, langabezia dauden pertsona askok ezin dute laguntza hori eskuratu, eta sistema horretatik kanpo geratzen dira.

Bigarrenik, Eusko Jaurlaritzak gizarteratze eta laneratzeko modalitate berezi hori **laneratzeko enpresen** bidez hedatzea sustatu nahi du; haren bidez, pertsona bat, bai besteren konturako langile gisa, bai bazkide langile edo laneko bazkide gisa, laneratzeko enpresa batean sartzeko kontratu baten bidez bideratzen da, laneko kontratua lehen kasuan eta sozietatekoa bigarreanean, eta lehenago txertaketarako hitzarmen bat sinatuztik ondorioztatzen da.

Gaur egun, urriaren 31ko 162/2023 Dekretuak laneratzeko enpresen kalifikazioa, horietara sartzeko prozedura eta LANBIDEk kudeatzen duen Erregistroa arautzen ditu. 2024an 36 laneratzeko enpresari eman zitzaizkien laguntzak, eta horien zenbatekoa 14,5 milioikoa izan zen. Laguntza horiek eman ziren 316 laneratzeko posturi (165 emakume eta 151 gizon) eta ekoizpenari eta laneratzeari laguntzeko 132 teknikariren lanposturi laguntzeko. Une horretan aktibo zeuden hiru deialdiak kontuan hartuz gero (2022, 2023 eta 2024 ekitaldiak), sustatutako laneratzeko lanpostuak 933 dira, 183 teknikariren laguntza-lanari esker.

...

Osalanek (Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea) agerian utzi duenez, 2025ean 31,98 **lan-istripu izan ziren** (lan-egunetan baja eragin duten istripu berriak, hain zuzen ere, 1.000 langileko istripu-kopuruaren eta berariaz laneko istripuen kontingentzia estalia duten Gizarte Segurantzako afiliatuen kopuruaren arteko zatiduraren bidez kalkulatu den kopurua) gure autonomia-erkidegoan milako (34,66 milako 2024an eta, beraz, ratioa 2,68 puntu gutxitu da). Sektore bakoitzari dagokionez, intzidentzia handiena eraikuntzan gertatzen da (milako 66,26), eta 5,82 puntu jaitsi da 2024. urtearekin alderatuta. Horren atzetik daude industria milako 62,91rekin (−3,54) eta Lehen Sektorea milako 55,58rekin, eta 8,18 puntu gutxitu da azken urtean. Azkenik, zerbitzuen intzidentzia batezbestekoa baino txikiagoa da, milako 22,14 (−2,1 puntu).

Autonomia-erkidegoei dagokienez, Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioak kalkulatu duen lanaldiko istripuen intzidentziaren indizeak erakusten duenez, Balear Uharteak ziren sailkapeneko buruan istripuetan 2025. urtean (behin-behineko datuak), eta ondoren Nafarroa zegoen. EAEn, milako 29,77ko indizearekin, % 0,46 jaitsi da datua, eta, beste urte batez, estatuko batezbestekoaren gainera eutsi dio (milako 28,86), hein batean sektorearen egituragatik, industriak pisu handiagoa baitu, sektore horretan ezbeharren tasa batezbestekoa baino handiagoa da eta.

V. BIZI BALDINTZAK

V.1. DEMOGRAFIA

EUSTAT¹⁷en *Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuaren* datuen arabera, EAeko biztanleria 2.218.210 pertsonakoa zen 2025eko urtarrilaren 1ean; hau da, 2024an baino 10.203 gehiago (+% 0,5). Igoera hori 2023an (+10.228) eta 2024an (+11.262) gertatutako en atzetik dator, eta, horrela, hiru urtez jarraian bilakaera positiboa ikusi izan da. Lurraldeka, biztanleria-hazkunderik handiena Bizkaian izan da, 2024an baino 5.696 biztanle gehiago baitaude (+% 0,5), 1.155.733 guztira; ondoren, Araban, 337.680 biztanle daude, aurreko urtean baino 2.534 gehiago (+% 0,8); eta, azkenik, Gipuzkoan, 1.973 biztanle gehiago daude, guztira 724.797 (+% 0,3).

Bestalde, EUROSTATen kalkuluen arabera, EB-27ko biztanleria hazi egin zen berriro 2024an, 2024ko urtarrileko 449,3 milioietatik 2025eko urtarrileko 450,4 milioietara (milako +2,4). Beste urte batez, saldo begetatibo negatiboa (heriotza gehiago jaiotzak baino; milako -2,8) orekatu egin da migrazio-saldoarekin (milako +5,2), COVID-19 osteko migrazio-mugimenduengatik eta EBko estatu-kideen babesa jaso zuten Ukrainatik etorritako pertsonen desplazamendu masiboagatik, Errusiak 2022ko otsailean haien herrialdea inbaditu ondoren.

EAEn berriro ere, 2024ko behin-behineko datuek adierazi dute hazkunde naturala edo begetatiboa (jaiotzen eta heriotzen arteko aldea) negatiboa izan dela EAEn, hamabigarren urtez jarraian, aurreko hamarkadan bilakaera positiboa nabaritu ondoren: aurten 12.937 jaiotza erregistratu dira, aurreko urtean baino % 3,8 gutxiago, eta 22.392 heriotza, 2023an baino % 0,4 gehiago. Horren emaitza gisa, hazkunde begetatiboa -9.455ekoa izan da, hots, milako 4,3koa.

Beste gai bati erreparatuz, EUSTATen 2024ko **“Migrazio Mugimenduen Estatistikak”** (MME) azpimarratu egiten du COVID-19aren inpaktuaren ondoren 2021ean hasitako susperraldiaren sendotzea, urte hartan migrazioak nabarmen murriztu baitziren, Estatuko enparauarekin zein atzerriarekin. 2024an, gure erkidegoak 20.870 pertsona gehiago erregistratu zituen guztira (2023an baino % 0,3 gutxiago, urte horretan 20.928 gehiago izan baitziren). Lurraldeka, Bizkaian 11.845 pertsona gehiago ditu (-% 1,9 2023. urtearen aldean), Arabak 3.548 (-% 10,6), eta Gipuzkoak 5.477 (-% 10,2).

...

Immigrazioari dagokionez, Ikuspegik esku artean dituen INEren datuen arabera, 2026ko urtarrilaren 1ean EAEn bizi diren atzerritarrek 340.897 dira (guztizkoaren % 15,1), eta, beraz, 2025ean zehar gehikuntza erregistratu da hamabigarren urtez jarraian (20.153 pertsona gehiago, +% 6,3), atzean utzita gutxieneko hazkunde-zifrak izan zituen 2021-2022 biurtekoa, COVID-19ak demografia-dinamiketan izan zuen inpaktuaren ondorioz. 2023ko, 2024ko eta 2025eko gorakadek finkatu egin dute gure erkidegora iritsi diren migratzaileak berreskuratzeko eta berraktibatzeke joera, eta pandemia aurreko balioei heldu zaie berriro.

Nazionalitateka (2025eko datuak), hamar garrantzitsuenen artean Latinoamerikako zortzi daude (Kolonbia, Nikaragua, Venezuela, Bolivia, Honduras, Ekuador, Paraguai eta Peru), Europar Batasuneko bat (Errumania) eta Afrikako bat (Maroko). Hamar jatorri horiek batuta atzerritar jatorriko biztanleriaren % 60,5era iristen bagara ere, 2008ra atzera eginez gero, pilaketa hori handiagoa zela ikusiko dugu, eta horrek askotariko jatorriko herrialdeen presentzia handiagoa eta dibertsifikazioa erakusten ditu, gaur egun, EAEn bizi diren atzerritarren kolektiboaren osaeran.

Inklusio, Gizarte Segurantzza eta Migrazio Ministerioaren arabera, berriz, 2025eko abenduaren 31n 194.858 atzerritar zeuden EAEn bizileku-agiriak indarrean zituztela, duela urtebete baino % 4,9 gehiago eta hamarkada bat lehenago 2015eko abenduan baino % 56,3 gehiago. Aurreko urteetan bezala, baimen horietako gehienak atzerritartasun-erregimeneko baimenei dagozkie (% 60,1), eta, gainera, urtetik urterako aldaketan, baimen guztien % 8,7 baino gehiago hazi dira. Bigarrenik, erregistro-ziurtagiriek (EBko zirkulazio askekoak) guztizkoaren % 39,3 osatzen dute, eta % 0,3 murriztu dira

¹⁷ EUSTATen *Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak Biztanleen Udal Erroldako administrazio-erregistroak erabiltzen ditu iturri nagusi gisa, eta horrek eguneratuta mantentzen du udalaren informazio demografikoa.*

2024ko datuekin alderatuta. Erresuma Batuko herritarrei emandako baimenak guztizkoaren % 0,6 dira, eta % 4,2 jaitsi dira azken urtean.

Migrazio fenomenoaren pertzepzio sozialari dagokionez, Ikuspegik dio euskal biztanleriak ez duela immigrazioa arazo gisa bizi. Soilik % 3,8k aipatu du berez EAEko lehenengo arazo gisa 2025ean (datu berbera 2024an), eta aipamenak, guztira, % 9,7 dira (2024an % 9,1), gehienez hiru erantzun emateko aukera izanda. Iradokizun modura, elkarriketatutako herritarren % 10,7k aipatu du hori; 2024an, berriz, % 10ek.

Enpleguan, immigrazioarekiko ikuspegi funtzionala (lan-merkatuari dagokionez) nabarmen higatu zen 2008an hasitako krisiaren ondorioz: 2004an, % 80k uste zuen etorkinak behar genituela zenbait sektoretan lan egiteko, eta 2014an, berriz, % 30,4k bakarrik uste zuen hori. Gorabehera batzuekin, 2015az geroztik, ordea, berriro hazi zen ikuspegi utilitarista hori, 2025ean % 77,9raino iritsi arte (+5 puntu 2024ren aldean; orain arte seriean lortutako daturik handiena). Antzeko zerbait gertatu zen beste baieztapen batekin ere, hain zuzen etorkinek bertakoek nahi ez dituzten lanpostuak hartzen dituztela. 2014an % 32,8 zegoen ados baieztapen horrekin (kontsideraturiko serie osoko ratorik txikiena) eta, berriz ere zenbait gorabehera izanik, % 73,6raino iritsi da 2025ean (2024an baino 7,4 puntu gehiago).

Era berean, EAEko biztanleriak immigrazioarekiko ikuspegi utilitarista horren hirugarren adierazle batek izan duen bilakaera hartu dezakegu kontuan: 2025ean inkestatutako pertsonen % 73,7k uste du etorkinak Europara iristeagatik benetan konpon daitezkeela biztanleriaren zahartzearen ondoriozko arazoak (Euskadirena ez ezik, Europa osoarena ere).

Azkenik, urteko inkestan bildutako datuak oinarri hartuta, IKUSPEGIK euskal biztanleriak immigrazioarekiko duen “*tolerantzia-indizea*” egin ohi du. 2020ko Barometroak 2019koak baino indize handiagoa eman zuen (65 puntu, aurreko urteko 60,67 puntuen aldean), serie historikoko altuena. Bilakaera horri dagokionez, IKUSPEGIren txostenak ondorioztatu zuen indize horretan lortutako emaitzak ordura arte oso lotuta egon zirela dinamika makroekonomikoei. Hala ere, 2020an hasitako COVID-19aren krisiak lotura hori hausten zuen egoera berritzaile bat ekarri zuen; izan ere, ekonomiaren gainbeherak ez zuen tolerantziaren beherakada ekarri, kontrakoa baizik. Indizea 2021ean eta 2022an hazi zen berriro, 69,3raino. 2022ko gorakada nabarmena, hein batean, behintzat, Errusiak Ukrainan egindako inbasioaren eta ukrainarrak asilo eta aterpe bila iristearen ondorioz etorri zen. 2025ean, tolerantzia-indizea 65,9ra igo da (+2,4 puntu), aurreko bi urteetan jaitsiera ikusi eta gero. Ikuspegiren ustez, 2023-2025 aldia portaerak eta jarrerak doitzeko garaia izan da, ezohiko gertakariak igarota, eta euskal gizartea osasun- nahiz asilo-krisiaren aurreko jarreretara bihurtu da.

Beste gai bati erreparatuz, Eusko Jaurlaritzaren “*Atzerritar Jatorriko Biztanleriaren Inkestak*” (EPOE) aukera ematen du lau urtean behin jakiteko **zein den atzerritar jatorriko biztanleek beren ingurunearekin duten harremana** eta 18 urteko eta gorako pertsonen gizartean eta elkarteetan duten parte-hartzearen maila. Era berean, ***jokaera arrazistaren eta xenofoboaren pertzepzioarekin lotutako gaiak aztertzen dira, baita horiei lotutako arbuio- eta/edo marjinazio-prozesuak ere***, eta, amaitzeko, biztanleria autoktonoaren gaineko pertzepzioarekin eta etorkizunean gure erkidegoan egingo dituzten bizi-planekin lotutako beste gai batzuk.

2023an, EPOEren azken edizioaren urtean, inkestatutako atzerritar jatorriko biztanleen % 85,4k adierazi zuten ez dutela arazorik tokiko pertsonekin edo taldeekin integratzeko (eta % 90,2k ere ez, beste etorkin-talde batzuekin, izan haien nazionalitate berekoak edo izan beste edozein jatorritakoak), eta,aldi berean, tokiko biztanleekin harremanik bilatzen ez duten edo etorkinekin harremanak izatea nahiago duten pertsonen ehunekoak % 8,7 da. Zifra horiek aldatu egiten dira pertsonaren jatorrizko eremuaren arabera; izan ere, integrazio-arazorik eza % 100era iristen da Paraguaiako jatorrizko pertsonen artean, eta % 97tik gorakoa da Argentinako, Txileko eta Uruguaiako pertsonen kasuan, % 56,1era jaisten da txinatar jatorriko pertsonen kasuan (tasarik txikiena), eta % 69,2koa da Afrikatik datorren biztanleriaren zati handi baten kasuan.

Inklusio-prozesuetan garrantzi handiko alderdia da arrazakeriari edo xenofobiari lotutako problematikak borrokatzea, baita horiei lotutako arbuio- eta marjinazio-prozesuak gainditzea ere. 2023an, atzeritar jatorriko biztanleen % 12,9k arazo horiekin lotutako esperientziak bizi izan zituzten Euskadin, eta proportzio hori jaisten ari da 2018ko % 17,1ekin, 2010eko % 19,6rekin eta 2014ko % 17,5ekin alderatuta. Kasuen % 8,2an, gainera, arrazakeria-, xenofobia-, arbuio- edo marjinazio-esperientzia horiek larritzat jo dira, eta ratio hori 2018ko % 10,2tik beherakoa da, baina 2010eko % 6,5etik eta 2014ko % 4,2tik gorakoa. Kontuan hartutako problematika larrien ezaugarriak aztertuta, honako egoera hauei lotzen zaizkie: Kasuen % 2 maiz irainduak eta etiketatuak izateari buruzkoak dira, % 3,9 diskriminazioko, abusuko, tratu txarreko edo arbuio/isolamenduko jardunbide larriak dira eskolan edo lanean, % 1,5 bizitza sozialean maiz gertatzen diren mespretxu edo arbuio pertsonaleko kasuak dira eta % 0,9, aldiz, zerbitzu publikoetan edo pribatuetan maiz gertatzen diren tratu txarrak.

...

Demografiaren gaia da, gaur egun, gizarte-trantsizioan eragin handiena duen faktoreetako bat. Familia, emantzipazioa, gizarte-politikak, etxebizitza, enplegua, haur-hezkuntza eta antzeko politika sektorialek zuzenean eragiten duten erronka bat. Gazteek emantzipatzeko eta bizitza autonomoko proiektu bat garatzeko dituzten baldintzak aztertzea xede duen funtsezko adierazle bat. Kapitulu honetan ikusi den bezala, Euskadi ugalkortasunari eta jaiotza-tasari buruzko daturik baxuenak dituen Europako herrialdeen artean dago. 2021ean, Eusko Jaurlaritzako Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak sailen arteko gogoeta-prozesu bat bultzatu zuen, Eusko Jaurlaritzaren barruan, eta erakundeen arteko foro-aldundiekin, erronka demografikorako EAEk izango duen estrategiaren edukiak definitzeko. Prozesu hori 2022ko ekainean amaitu zen, "Erronka demografikorako Euskal Estrategia 2030" onetsi zenean.

Euskadiko datuek erakusten dutenez, Europar Batasuneko herrialdeen artean, demografia-balantze baxuena duten herrialdeen artean gaude, eta, beraz, lehenengo mailako gizarte-erronka baten aurrean gaude. Horri gehitu behar zaio Espainiako Estatuan eta Euskadin ELGAko batezbestekoaren azpitik gaudela, familian inbertitzera bideratutako BPGd-aren ehunekoari dagokionez. Konparazioan, balantze onenak eskaintzen dituzten herrialdeak bereizi egiten dira, baliabide gehiago bideratzen dituztelako gazteen bizimodu independenteko proiektuak sustatzera, askotariko neurriekin, eta familiei zuzeneko laguntza ekonomiko handiagoak eta luzeagoak ematen dizkietelako seme edo alaba bakoitzeko. Horrez gain, bateragarritasun-neurriak sustatzen dituzte, migrazioaren etorrera eta gizarteratzea eta laneratzea errazten dute, eta, bestalde, zahartze aktiborako eta osasungarrirako politikak bultzatzen dituzte, adinekoen autonomia sustatzen dute, edo landa-ingurunearen potentziala birbalioesten dute¹⁸.

V.2. BIZI-BALDINTZAK

Europar Batasunean, 2010ean **pobreziaren edo gizarte-bazterketaren arrisku-tasa**, AROPE (ingelesezko siglak: At Risk Of Poverty or social Exclusion), sortu zuten pobrezia erlatiboa neurtzeko, pobrezia-arriskuaren tasaren kontzeptua zabalduz, diru-sarrerak soilik kontuan hartzen baititu azken horrek. Horrela, AROPE tasa pobrezia-arriskuan dauden, gabezia material eta sozialak dituzten edo enpleguan intentsitate baxua duten biztanleak gehituta eraikitzen da. 2024an (herrialdeen arabera eskuragarri dauden azken datuak), pobreziaren edo bazterketaren arriskuak biztanleriaren % 21i eragiten zion EBn, 2023an baino hiru hamarren gutxiago edo, bestela esanda, 93,3 milioi pertsonari, "2030 Agendan" ezarritako irizpideen arabera.

Agenda horren arabera, pertsona bat pobrezia- edo bazterketa-arriskuan dago langabezia-arazoak edo lan-intentsitate txikia dituen familia-unitate batean bizi bada eta familia-unitate horrek gizarte-transferentzien ondoren pobrezia-arriskua badu eta/edo gabezia material eta sozial larria badu.

EAEn (munduko testuinguruan 12. postuan mantentzen da, Irlandaren eta Finlandiaren artean, NBEren 2023ko Giza Garapenaren Indizearen sailkapenaren arabera), pobrezia- eta bazterketa-arriskuak biztanleriaren % 14,7ri eragiten dio

¹⁸ 2022ko eta 2023ko Memoria Sozioekonomikoetara jo dugu Estrategiaren xehetasunak jasotzeko eta 2023ko jarduketak deskribatzeko (azken informazio erabilgarria), hurrenez hurren.

2025ean (EUROSTAT eta EINen metodologiaren arabera), edo, bestela esanda, 325.000 pertsona ingururi, 2024an baino hamarren bat gutxiagori. Intzidentzia hori, beste urte batez, nahiko txikia da Europako testuinguruan, eta Esloveniakoarekin (% 14,4) aldera daiteke, 2024an Europar Batasuneko tasarik baxuenak baitzituzten, Txekiarekin (% 11,3) batera.

EAEk Europako testuinguruan duen posizio konparatiboa oso positiboa da, bai oro har, bai AROPE tasa osatzen duten hiru elementuetan, eta adierazi behar dugu, gainera, azken urtean (2024-2025), adierazle orokorraren bilakaera positiboarekin (beheranzkoa) batera, hiru elementutatik bik bilakaera berdina izan dutela, baina hirugarrenak ez (lan-intentsitate baxuarena):

1. Lehenik eta behin, EBko biztanleen % 16,2 **transferentzia sozialen ondoren pobrezia-arriskuan** zegoen 2024an. Egoera horretan dago, kontsumo-unitate bakoitzeko diru-sarreraren banaketaren medianaren % 60tik beherako diru-sarrerak dituelako herrialde bakoitzean ("pobreziaren atalasea" deritzona; beraz, herrialde bakoitzean, gutxieneko errenta-atalase horretara iristen ez den biztanleriaren ehunekoa neurtuko luke, hau da, "atalase monetarioa"). Ehuneko hori aldatu gabe mantendu da 2023tik, eta bost pertsonatik bat baino gehiago zeuden egoera horretan bost herrialdetan: Bulgaria (% 21,7), Letonia (% 21,6), Lituania (% 21,5), Kroazia (% 20,3) eta Estonia (% 20,2). EAEn, 2025ean tasa % 9,3koa da, 2024an baino hamarren bat gutxiago (2015ean baino 1,6 puntu gutxiago), eta 205.300 pertsona ingururi eragiten die.
2. 2024an, EBko herritarren % 6,4k **gabezia material eta sozial larria** izan dute; izan ere, baliabide-faltak eragindako bizi-baldintzak dituzte, hala nola fakturei aurre egiteko gaitasuna (etxeko ohiko gastuenak), etxea bero edukitzea, edo urtean astebeteko oporraldia hartu ahal izatea. Ratio hori lau hamarren gutxitu da 2023tik, eta 2015eko % 9,7ren azpitik dago. Europar Batasunean, gabezia horren eragina oso desberdina da herrialdeen artean: Eslovenia, Kroazia, Luxenburgo eta Polonia (% 2,5etik behera zeuden 2024an), Errumania (% 17tik gora) eta Bulgaria (% 16,6). Espainiak (EINen datuekin) % 8,1eko tasa du 2025ean (2024an baino -0,2 puntu), eta EAEk % 3koa (-1,6 puntu), hau da, 66.240 pertsona inguru, aurreko urtean baino 35.260 gutxiago.
3. EBko biztanleriaren % 7,9 **lan-intentsitate oso baxuko** familietan bizi zen 2024an, halakotzat hartuta etxeko 64 urtetik beherako helduek azken urtean guztizko lan-potentzialaren % 20 baino gutxiago lan egin zutenean (2023an baino hamarren bat gutxiago). Belgikak (% 11,4), Danimarkak (% 10,6) eta Alemaniak (% 10) zituzten Batasuneko ratorik handienak, eta, Esloveniak, Poloniak eta Luxenburgok % 4tik beherakoak. EAEko 2025erako datua lau hamarren igo da azken urtean, % 6,9tik % 7,6ra (161.000 pertsona inguru, 2024an baino 10.000 gehiago).

Bere aldetik, EINen 2025eko "**Bizi baldintzen inkestaren**" zifretan, ohikoa den arren adierazle batzuk hobetzea eta beste batzuek okerrera egitea, badirudi gure autonomia-erkidegoa hobetu egin dela, salbuespen batzuekin:

- Errenta pertsonalak zein familia-errentak lau urtez igoerak izan dituzte (2025ean % 4,4 eta % 4,1 hazi dira, hurrenez hurren), baina biak estatuko batezbestekoa baino proportzio txikiagoan hazi dira. Zifra horiei esker, EAE autonomia-erkidegoen araberrako zerrendetako lehen postuetan dago, baina kontuan hartu behar da prezioek aldagai horietan duten eragina.
- 2025ean zenbait aldagai hobetu ziren: hilabete-bukaerara iristeko zailtasunak dituzten familien ehunekoa (% 31,5, 2024an baino 1,4 puntu gutxiago), ustekabeko gastuei aurre egin ezin diezaieketenak (% 22, puntu erdi gutxiago) edo ohiko etxebizitza ordaintzeko atzerapenak deklaratu dituztenak; azken horiek ez dira aldatu eta % 5,2n jarraitzen dute. Hala eta guztiz ere, okerrera egin du urtean astebeteko oporraldirik izan ezin duten familien proportzioak, % 18,3tik % 19,5era igaro baita.
- Ziur aski zailtasun eta gabezia handienak islatzen dituzten bi adierazleei dagokienez, biek erakusten dute bizi-baldintzek hobera egin dutela; izan ere, haragia, oilaskoa edo arraina gutxienez bi egunean behin jan ezin duten

etxeen ehunekoak behera egin du (% 5,1etik % 3ra), energia-pobretasunak eragindako familien ehunekoak bezala (% 10,4); 2023-2024 biurtekoan baino 2,2 puntu gutxiagoko intzidentzia gertatu da.

...

Bigarrenik, **2024ko Pobreziaren eta gizarte-desberdintasunen inkestaren** emaitza hau da: 2018-2022ko adierazleen hobekuntzako joera orokorra etenda (beherantz), bai ongizaterik ezarena bai pobrezia larriko arriskuarena, 2024an detektatu da pobrezia-arriskuko eta ongizaterik ezeko tasak gehitu egin direla. Salbuespena da mantentze-pobreziaren arriskua, hamarren eskas bat gutxitu dena.

Aztertzen diren aldagaiei begiratuta, honako hau nabarmenduko dugu:

- **Mantentze-pobreziaren arriskua** (lotuta dago behar oinarrikoenei —elikadura, etxebizitza, jantziak eta oinetakoak— aurre egiteko potentzialki nahikoak diren diru-sarrerarik ez izatearekin) eta kalkulatu da intzidentzia % 7,2koa dela (2022an baino hamarren bat gutxiago) eta 157.948 pertsona direla kaltetuak (—% 0,6). 2008rekin alderatuta, 2024ko pobrezia-tasak handiagoa izaten jarraitzen du (+1,5 puntu), eta 36.073 pertsona gehiagori eragiten die (urte horretan eragindako pertsonen kopurua 121.875 zen). **Ongizaterik ezaren arriskua** (gurea bezalako gizarte batean espero den gutxieneko ongizate-mailari eusteko behar diren gastu-premiekin lotzen dena), ordea, gutxitu egin da 2022 eta 2024 artean, % 22,3tik % 19,2ra igaro baita. Ondorioz, ongizaterik ezaren arriskuan dauden pertsonak 2024an 424.879 ziren, 2022an baino % 12 gutxiago (eta 2008an baino % 20 gehiago).
- **Metatze-pobreziaren arriskuak** honako hauekin du zerikusia: epe ertain eta luzera bizi-baldintza onargarriari eusteko gaitasunik ezarekin eta ohiz kanpoko gastu-premiei aurre egiteko edo diru-sarrerarik eza osatzeko gutxieneko ondare-erreserba bat edukitzeko gaitasunik ezarekin. 2014-2022 aldian adierazle horrek behera egin zuen, % 2tik % 0,2raino. 2024an, hala eta guztiz ere, tasa % 1,1eraino gehitu zen eta horrelako pobrezian zeuden pertsonak 23.753 ziren (2022an baino 20.000 gehiago), baina 2008ko 32.838ren % 27,7 azpitik. Gainera, bilakaera bereziki kontrakoa da dimentsio horretako **ongizaterik ezaren** forma ezberdinetan; 2024an biztanleriaren % 20,5i (452.200 herritar) eragiten zioten, 2022rekin konparatuta bikoitza (% 10,1). Intzidentzia hori, gainera, 2008koa baino (% 18,6) 1,9 puntu handiagoa da.
- Arrisku-problematika edo -egoerak ez direnez automatikoki benetako pobrezia- edo estutasun-bizipen bilakatzen, PGDI **benetako pobreziaren adierazlearekin** osatzen dute azterlana, hau da, arlo batzuetako bizimodu egokiak beste arlo batzuetako gabeziak orekatzen ez dituen egoerak zehazten dituzte. Benetako pobreziaren tasa etengabe ari zen jaisten 2018tik, urte hartan % 6,1ekoa baitzen, eta 2022an, berriz, % 4koa, baina 2024an % 6,1eraino igo zen. Datu horrek esan nahi du benetako pobrezia berriro ere 2008ko % 4,2ren gainetik dagoela. Termino absolutuetan, benetako pobreziak 134.493 pertsonari eragiten zien 2024an; datu hori 2022koa (87.387) baino % 53,9 handiagoa da eta 2008an (89.706) baino % 49,9 gehiago.

Adierazle horren bilakaerari dagokionez, halaber, emaitza hauek nabarmendu behar dira:

- ✓ Benetako pobreziaren adierazle hori hartuta, **EAEko biztanleriak ongizate-pobrezia eskalan duen posizioaren arabera duen banaketa aztertuz** gero, EAEko biztanleriaren erdia baino zerbait gutxiago (% 45,5) erabateko ongizatean zegoen 2024an, eta hori PGDI inkestak maneiatzen duen serie historikoaren proportziorik handienaren (2022an gertatu zena) behetik dago, zehazki, 5,9 puntu beherago. Gainera, pobrezia-motaren batek (I., II. eta III. kategorien batura) eragindako taldeen garrantzia gehitu da. Kategoria horiek biztanleriaren % 24,7ri eragiten zioten 2022an, eta % 27,8ra igaro da 2024an, I. eta II. kategorien pisua handitu delako. Tarteko posizioan kokatzen den taldea (ongizate ia osoa, IV. kategoria) 2,3 puntu handitu da, % 23,9tik % 26,2ra.

- ✓ Lurralde-**dimentsioan**, 2022an ez bezala, orduan pobrezia errealak orokorrean behera egin zuen, 2024an hiru lurraldeetako ratioek okerrera egin zuten, eta ez bakarrik pobrezia errealean, baizik eta metatze-dimentsioan ere bai. Mantentze-pobrezian, ikusi dugun bezala batez bestean hamarren bat gutxitu dena, Gipuzkoa eta Bizkaia hobetu egin dira (tasak murriztu dituzte) eta Arabak okerrera egin du. 2022 eta 2024 artean Bizkaiko benetako pobrezia-tasa % 3,9tik % 6,9ra igo zen eta lurralderik kaltetuena izan zen, % 6,1eko batezbestekoaren gainetik baitzegoen. Arabak % 5,8 izan zuen eta bere tasa zazpi hamarren okertu zen eta Gipuzkoaren ratioa % 4,9 izan zen (txikiena), 2022an baino 1,2 puntu gehiago.
- ✓ Inkesta honetan aztertzen diren **aldagai sozioekonomikoekiko hurbilketa sintetiko batean**, benetako pobrezia-egoeren % 78,7 lau familia-mota espezifikori dagokie 2024an: EBtik kanpoko atzerritarrek osatutakoak (% 55,8), lan egonkorrik gabeko 45 urtetik gorako pertsonak dituzten familia-taldeak (% 12,2), lan egonkorrik ez duten emakumeak buru dituzten guraso bakarrek familiak (% 6, eta horietatik % 3,3 45 urtetik gorakoak eta % 2,7 45 urtetik beherakoak) eta, azkenik, lan egonkorra duten 45 urtetik beherako kideak dituzten familiak (% 4,7). Lau talde horiek benetako pobrezia-egoeretan duten pisu erlatiboa 18,2 puntu gehitu da azken biurtekoan, batez ere EBtik kanpoko pertsonekin osatutako familien pobrezia-egoeren pisua gehitu delako (guztizkoaren % 36,6tik % 55,8ra igaro da) eta, neurri txikiagoan, lan egonkorrik ez duten 45 urtetik gorako familien taldearena (% 11,3tik % 12,2ra). Bitartean, lan egonkorrik ez duten emakumeak buru dituzten guraso bakarrek familiak gutxitu egin dira, 2022an % 10,1 ziren eta % 6ra gutxitu dira.

...

Bestalde, EAEko **familia-sistemen** tipologia nabarmen aldatu da azken hamarkadetan, prozesu demografiko, sozial eta kulturalen ondorioz. Aldaketa nabarmenen artean, honako hauek daude: familia-moten dibertsitate handiagoa; batez besteko tamainaren murrizketa; aldaketa handiak etxe horietako erreferentziazko pertsonen profilean; etxean dauden adingabeen proportzioaren murrizketa eta menpekotasun-egoeren areagotzea.

Azkenengo urteotan, familia-erakundean egondako eraldaketa handiek eta horrek ugalkortasunean izandako eraginak interes publiko handia sorrarazi dute, horrek guztiak dituen ondorioak direla-eta. Ugaltzeko eta laneratzeko adin aproposak bat datozenez gero, emakumezko gazteak egoera zailean daude, seme-alabak izateko erabakiari dagokionez.

EUSTATEk "Lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeari buruzko inkesta" egin du. Inkesta horren 2024ko emaitzak nabarmentzekoak dira. Hasteko, etxetik kanpo lan egiten duten emakumeek gizonen baino % 34,3 ordu gehiago ematen dituzte egunean seme-alaba adingabeak zaintzen, eta % 37,5 gehiago menpekotasuna duten pertsonak zaintzen; gainera, bikotekideek baino % 31,3 denbora gehiago ematen dute etxeko lanetan. Gizonen egunean 3,5 ordu ematen dituzte adingabeak zaintzen (2023an 3,6), eta emakumeek, berriz, 4,7 (2023ko datu bera). Beraz, arrakala 3,7 puntu gehitu da azken urtean. Alde hori dezente handiagoa da mendetasuna duten pertsonen zaintzari dagokionez; jarduera horretan egunean 1,6 ordu ematen dituzte gizonen (2023an 1,9) eta 2,2 ordu emakumeek (2023an 2,3). Gainera, emakumezkoek, batez beste, 2,1 ordu ematen dituzte etxeko lanak egiten, eta gizonaek, aldiz, 1,6 ordu (2 eta 1,6, hurrenez hurren, 2023an).

Batezbesteko horiek batuz, emakumeek etxeko lanetan eta zainketa-lanetan emandako denbora, guztira, 9 ordu dira, gizonen 6,7 orduen aldean. Beraz, arrakala % 34,3koa da. Ratio hori % 32,4koa zen 2022an, eta % 26,8koa 2023an; ez da ikusten joera argirik. Bere gain hartutako kargen desberdintasun horrek etxeko lanen banaketarekiko gogobetetze-mailari eragiten dio; izan ere, emakumeek, batez beste, 10etik 6,1eko gogobetetze-maila adierazten dute beren ezkontideak edo bikotekideak etxeko lanak egiteko eskaintzen duen lankidetzari buruz, eta gizonen 7,8koa.

Enpresan edo erakundean baimen jakin batzuk eskatzeko zailtasunari dagokionez, EUSTATEn inkestaren arabera, landunek, batez beste, 10etik 3,4ko zailtasun-maila dute (2015ean 3,5 eta ez dago 2014ko daturik), eta, 2,5ekoa, zehazki, norberaren arazoak konpontzeko lanetik irteteko baimena lortzeko (2015ean 2,7koa). Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzea errazteko neurrien artean, eszedentziek 4ko batez besteko zailtasuna dute (3,9koa 2015ean), lanaldi-murrizketak ere 4,1eko zailtasuna (3,8koa 2015ean), eta enplegurik eta soldatarik gabeko egunek 10etik 2,9ko zailtasun-

indizea dute (3,4koa 2015ean). Azken urteko aldaketen inguruan, 2024an ez da aldaketarik gertatu zailtasun horietan, salbu eta enplegurik eta soldatarik gabeko egunak eskatzeko zailtasuna, hamarren bat gehitu baita, eta eszedentziak, proportzio berean gutxitu baitira.

Zailtasun horietan ez da antzeman sexuaren araberako desberdintasunik, eta adinak, ziur aski lanpostuko antzinatasunari lotuak, aipatutako uztartze-neurriak lortzeko zailtasunak murrizten ditu. Hala ere, emakumeen artean gizonen artean baino beldur handiagoa dago kontziliazioarekin lotutako zenbait alderdik beren ibilbide profesionalean izan dezaketen eragin negatiboa dela-eta (emakumeen % 30,5ek uste zuten hori, eta gizonen artean, berriz, % 26,5ek, 2020an) (eskuragarri dagoen azken datua).

Horren isla da gizonen neurri horietan (eszedentziak edo lanaldi-murrizketak hartzea) duten ia parte-hartze testimoniala, azken urteotan ez baita nabarmen aldatu. Hala, adingabeak edo mendetasuna duten senitartekoak zaintzeko 5.486 lan-eszedentzien % 17 soilik sinatu zituzten gizonen EAE 2024an, Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioaren datuen arabera (% 16 Estatu osoan). Zaintzagarriko lanaldi-murrizketei dagokienez, Estatu osorako zifrek (Biztanleria Aktiboaren Inkestaren datuak, azpilaginaren aldagaiak, ez dira autonomia-erkidegoen arabera bereizten) adierazten dute 2024an lanaldi partzialean borondatez lan egiten zuten 417.000 soldatapekoen % 8,6 baino ez zirela gizonak, senitartekoak — adingabeak izan edo ez— zaindu ahal izateko.

Ordutegi-motei eta malgutasunari dagokienez, EUSTATen Lana, familia eta norberaren bitzita uztartzeari buruzko inkestaren arabera, 2024an, EAEko langileen % 18,9k ia egunero luzatu behar zuten lanaldia (eta % 15,5ek batzuetan). 2023. urteari dagokionez, ohiko edo noizbehinkako lanaldia luzatu behar duten pertsonen ehunekoak 2,3 puntu egin du behera, % 36,7tik % 34,4ra, lanaldia ia beti luzatzen dutenen ehunekoak behera egin duelako (—1,8 puntu) eta batzuetan luzatzen dutenen ehunekoak ere bai (—0,5).

Lana, familia eta norberaren bitzita bateratzeari buruzko inkestaren arabera, irteera-ordutegi malgua, kontziliazioa hobetzeko tresna osagarria, EAEko langileen % 55,8k baliatzen dute (% 51k 2023an), eta neurri txikiagoan emakumeek (% 51) gizonen baino (% 60,4). Norberaren etxean lan egiteari dagokionez, % 9,7k noizean behin egiten du lan etxean eta % 7,4k egunen erdia gutxienez. Oro har, beraz, enplegua duten pertsonen % 17,1ek noizbehinka edo maizago lan egiten dute etxean (% 15,8k 2023an, % 17,8k 2022an, % 18,7k 2021ean, % 18,1ek 2020an eta % 15,5ek 2019an), eta ratio horrek COVID-19aren eragina izan zuen.

Deskribatutako egoerak arintzeko, 2002tik aurrera Familiei Laguntzeko Planak martxan daude, familiei seme-alaben kopurua askatasunez erabakitzea eragozten dieten oztupo ekonomikoak eta soziolaboralak gaintzeko, eta 2008an Familiei Laguntzeko Legea onartu zuen, familia-politika integralaren esparruari eta oinarriari maila juridiko handiagoa emateko.

“Familiei eta Hurrei eta Nerabeei Laguntzeko Erakundearteko V. Plana 2026-2030” 2025eko uztailan aurkeztu zen, Gobernu Kontseiluak 2026ko otsailan onetsi zuen eta ikuspegi eta printzipio hauetatik planteatu zen: Familiek guztien onerako egiten duten gizarte-ekarpena aitortzea eta laguntzen izaera unibertsalaren alde egitea; familia-aniztasunari balioa ematea, berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatuz; haurtzaroen inbertitzeko erabakia, prebentzio-estrategia gisa; genero-ikuspegia eta interseksionala, laguntzak egokitzeko; komunitate-loturak indartzea eta hurbileko esku-hartzeak arrakastaren gako moduan; apustu irmoa politikak berritzearen eta ebaluatzearen alde, beren inpaktua hobetzeko; haur eta nerabeen eta familien partaidetza bermatzea politikak diseinatzen, ezartzen eta ebaluatzen direnean, eta hazkuntzarako erakundeen eta gizartearen erantzukidetasunean sinestea. Plan hau hiru ardatzetan egituratzen da: Familia-proiektu anitzak eta jasangarriak, haur eta nerabeen ongizate integrala eta baterako gobernantza eta berrikuntza, eta 2026-2030 urteetarako kalkulatu da inbertsio gutzia 871,7 milioi eurokoa izango dela.

Aurrekontua gauzatzeari buruzko informazioari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren “*Familia eta Komunitate Politikako 3124 Programak*” 2024an (finkatutako informazioa duen azken ekitaldia hori da) 121,4 milioi euro bideratu zituen guztira familientzako transferentzia horietara, 2023an baino % 5,6 gutxiago; horietatik 102,4 milioi seme-alabak dituzten familientzako laguntzetarako (guztizkoaren % 84,3) eta 19 milioi uztartzeko laguntzetarako (guztizkoaren % 15,7). 2023an, seme-alabak dituzten familientzako laguntzetara bideratutako funtsak asko handitu dira 27/2023 Dekretu berriaren ondorioz. Dekretu horri esker, hiru urtetik beherako seme-alabak beren kargura dituzten familiek 200 euro ordaintzen dituzte hilean jaiotzen direnetik hiru urte bete arte, eta hilean 100 euro ordainduko dira adingabeak zazpi urte bete arte, hirugarren seme-alaben eta ondorengoen kasuan (familia ugariak). Hori dela-eta, seme-alabak dituzten familientzako laguntzetara bideratutako zenbatekoa 22,9 milioi eurokoa zen 2022an, eta 103,9 milioikoa (+% 354,3) 2023an. 2024an, familientzako laguntza horiek (27/2023 Dekretua) % 10,2 hazi dira, 102 milioi eurotik gorakoak izateraino, eta seme-alabak dituzten familientzako laguntza guztiak % 1,5 jaitsi dira. Kontziliaziorako laguntzei dagokionez, % 23 jaitsi dira aurreko ekitaldiaren aldean.

Bestalde, seme-alabak dituzten familientzako eta kontziliaziorako laguntzen onuradun diren pertsonen (familien) zifrak ezagutzen dira, Ekonomia eta Ogasun Sailak “*Dirulaguntzen Programen Ebaluazioaren*” urteko txostenean sailez sail jasotako informaziotik abiatuta. 2024ko ekitaldiari buruzkoak adierazten du urte horretan 69.163 onuradunek jaso zituztela familientzako laguntzak, 2023an baino % 16,1 gutxiagok. Horietatik 56.484 (guztizkoaren % 81,7) jaiotzagatik eta/edo adopzioagatik familiei ematen zaizkien laguntzei dagozkie (—% 16,9 2023rekin alderatuta), eta 12.679 langile (guztizkoaren % 18,3) uztartzeko-laguntzen onuradun izan ziren (—% 12,6) 2024an.

Nolanahi ere, eta laguntzak jasotzen dituzten familien zifra horiek gorabehera, kontuan hartu behar da Eusko Jaurlaritzaren “*Familiei eta Etxeei buruzko Inkestaren*” emaitzen arabera 2023an EAEko familien % 38k ez zutela seme-alabak dituzten familientzako laguntzen berri.

.....

Azkenik, Europako Batzordeak 2020ko azterlan batean aditzera eman zuenez, azken hamarkadan **bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen** kopuruak gora egin du Batasuneko herrialde guztietan, Kroazian, Polonian eta Portugalen izan ezik, han egonkortu egin baita, eta Finlandian, estatistikoki nabarmen murriztu den herrialde bakarra baita. Ondorioz, gauero 700.000 pertsonak baino gehiagok egiten dute lo aire librean Europan, duela hamarkada bat baino % 70 gehiagok. Egoera horrek, COVID-19aren pandemiak areagotuta, “*Lisboako Adierazpena*” sinatzera eramán zituen Europako erakundeak 2021ean, etxegabetasunaren aurkako borroka Europa sozialerako lehentasun gisa berresteko.

Bizitegi-bazterketa larriko egoeran dagoen pertsona-kopuruari dagokionez, EAEEn bizi direnean artean, haien ezaugarri demografikoak eta bizitza-baldintzak eta bizitza-ibilbideak ezagutzeko, Eusko Jaurlaritzak “*EAEEn bizitegi-bazterketa larrian daudenen egoerari buruzko VII. azterlana*” egin zuen 2024an. Horri esker, 2012tik egiten dituen zenbaketen jarraipena egiteko aukera izan zuen. Hona hemen txostenaren emaitza nagusiak:

- Guztira, bizitegi-bazterketa larrian zeuden 4.326 pertsona zenbatu ziren (2022an 3.380). Horietatik % 36 kalean eta bizitzeko egokiak ez diren beste leku batzuetan detektatu zituzten, adibidez, abandonatutako eraikinetan, ibilgailuetan edo lonjetan (1.556 pertsona). Gainerako % 64ak ikerketa honetan jasotako eta ostatua eta egoitzak zituzten Gizarte Zerbitzuen sareko zentroren batean pasatzen zuen gaua (3.170 pertsona). Zehazki, % 10,3k gizarteratzeko zentro eta pisuetan egiten zuen lo, % 12,9k aterpetxeetan eta gaueko harrera-zentroetan eta % 7,4k indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako harrera-zerbitzuetan. Halaber, 1.447 pertsona (% 33,4) asilo-eskaerak ebaluazio-fasean dituztenentzako estatuko sareko zentroetan zeuden.
- Aurreko kontaketat bezala, kolektiboaren gehiengoa EAEko hiriburuetan hauteman zen (% 72,3, 2022ko % 77,1en aldean). 2016az geroztik gora egin du “*etxerik gabeko*” pertsonen kopuruak Bilbon, 2016an 298 pertsona izatetik 2024an 605 izatera igaro baita, hau da, % 103 gehiago. Donostian, igoera are handiagoa izan da: 2016an 180 izatetik 2024an 413 izatera igaro da (+% 129,4). Kontrara, Gasteizko egoeraren ezaugarri nagusia egonkortasuna da (115 pertsona identifikatu ziren 2016an eta 107 2024an).

- % 89,1 gizonak ziren eta hiriburuetan gizonen pisuak pixka bat gora egitearen joera dago. Hiru hiriburuetan 2024an zenbatutako "etxerik gabeko" pertsonen % 90 gizonak dira eta % 10 emakumeak. Adinaren ikuspegitik, 2018tik aurrera 30 urtetik beherakoen presentzia asko handitu da. 2016an kolektibo horren % 25 eskasa ziren eta 2024an % 41. Aurreko guztiarekin, talde handiena 30-54 urtekoena da (% 50), eta 55 urtetik gorakoena ia ez da aldatu (% 9 2024an).
- 2016az geroztik, atzerritar jatorriko pertsonen pisu erlatiboa etengabe hazi da "etxerik gabeko" pertsonen kolektiboan. Proportzioa 2016an % 63 izatetik 2024an % 84 izatera igaro da. Esan daiteke, hain zuzen ere, "etxerik gabeko" pertsonen kopuruak Euskadin izan duen hazkundearen arrazoi nagusia "etxerik gabeko" atzerritarren kopuruak gora egin izana dela.
- Kolektiboaren ezaugarriak dagokionez, % 38,8k urtebete baino gutxiago darama EAEn, % 26,6k urtebete eta bi urte artean, eta % 22,3k bost urte edo gehiago, barne hartuta bizi osoa Euskadin daramatenak (% 11,6). Eta etxerik ez izatearen kausekin lotuta, galdera hori zuzenean egin eta gero, erantzun zuten egitura-faktoreak direla horren arrazoi nagusia, kasuen % 74,5en aipatu baitzituzten. Kategoria horren barnean, bereziki garrantzitsuak dira arazo ekonomikoak (% 46,5), laneko arazoak (% 35,1) eta administrazio-egoera irregularrengatik sortutako oztopoak (% 31,3). Urruti, elkarriketatuen %21,3k arazo pertsonalak aipatu zituzten eta % 11,2k harreman-arazoak. Soilik % 4,4k aipatu zituzten erakunde-faktoreak, adibidez, erakunderen batetik irten izana, edo harrera-baliabideetan gertatutako abandonuak.
- Prestakuntzari dagokionez, etxerik ez duten hirutik batek (% 33,8) gehienez ere lehen-hezkuntza bukatu zuten eta % 31,5ek oinarrizko bigarren-hezkuntza. Gainerakoek, goi-mailako bigarren-mailako hezkuntza (% 22,8) edo unibertsitate-ikasketak (% 5,7) dituzte. Halaber, etxerik ez duten hamarretik bik nolabaiteko lana edo ordaindutako jarduera egiten dute, baina lan-jarduera aldatu egiten da adinarekin eta gehiago lan egiten dute 30-54 urtekoek (% 24). Datuetatik ondorioztatu da, baita ere, kalean daudenen proportzio handiago batek nolabaiteko jarduerak egiten dituela (% 23), gehienetan, ekonomia informalekoak.

Egoera horren aurrean, euskal erakundeek erakunde arteko akordio bat sinatu zuten 2018an, "Etxerik gabeko pertsonentzako lehen euskal estrategia 2018-2021" garatzeko, Euskadiko udalerrri handietan kalean lo egiten duten pertsona kopurua nabarmen murrizteko -% 20 gutxienez-. Gaur egun, indarrean dago **Bizitegi-bazterketa larriaren aurkako II. Euskal estrategia (2024-2028)**, eta bere xedea da politika publikoak egituratzea, orientatzea eta sustatzea, Euskadin bizitegi-bazterketa larriko egoerak jorrazteko eta, ahal den heinean, horiek deuseztatzeke.

V.3. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUN

Emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa da, lehenengo mailako gizarte-arazoa eta osasun publikoko arazoa, eta botere-harreman desorekatuen eta emakumeen aurkako diskriminazioaren adierazpena, zeinak, gainera, generoaren arabera dauden egiturazko desberdinkeriak iraunarazten baititu. Eusko Jaurlaritzaren 2024ko *Emakumeen aurkako Indarkeriari eta pertsonen arteko beste indarkeria-mota batzuei buruzko Inkesta* da egindako lehenengo inkesta ofiziala, arazo horren larritasuna neurtzeko eta datuak biltzeko Euskadiko emakumeek —edozein eremu publiko edo pribatutan— era askotako indarkeria jasaten duten maiztasunari buruz; besteak beste, bikotea, familia, lana, hezkuntza, komunitatea eta ingurune birtuala.

Inkestak adierazten du, lehenik eta behin, 16 eta 85 urte bitarteko euskal emakumeen % 48,2k **indarkeria matxista** jasan duela bere bizitzako uneren batean, eta % 7,4k azken urtean. Azterlanean jasotako indarkeria-motak aztertzean, ikusten da, lehenik eta behin, emakumeen herena sexu-indarkeriaren biktima izan dela bizitzan zehar, % 28,6k bikotekidearen indarkeria psikologikoa jasan duela, eta % 25,4k indarkeria fisikoa jasan duela edo kaltea jasateko mehatxua izan duela. Indarkeria zer eremutan gertatzen den kontuan hartuta, emakumeen % 29,4k adierazi du

bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik jasan duela, % 33,4k bikotekidea ez denarengandik, eta % 6,9k adierazi du bi testuinguruetan jasan izan duela.

Kopuru horiek ez daude Europakoetatik urrun, eta Genero Indarkeriaren Europako Inkestak (EUROSTAT, 2021eko datuekin) jaso ditu (metodologian aldeak daudela kontuan hartuta, laginen adin-tartean, adibidez): EBn, 16 eta 74 urte bitarteko emakumeen % 30,7k adierazi du bere bizitzako uneren batean indarkeria fisikoa edo sexuala jasan duela (Espainian, % 28,2k), eta emakumeen % 31,8k noizbait indarkeria fisikoa, sexuala edo psikikoa jasan du bikotekidearen edo bikotekide ohiaren aldetik (Espainian, % 28,6k).

Bestalde, indarkeria horrek ez die berdin eragiten emakume guztiei: Euskadin, gehiago dira 45 urtetik beherako emakumeak, batez ere 30 eta 44 urte bitartekoak (% 62,3) eta atzerritarrek (% 61,1; Espainiako nazionalitatea dutenak, berriz, % 46,8). % 18,4k bakarrik eskatu zuen laguntza, baina % 17,3k uste du jaso behar zukeela. Gainera, indarkeria jasan zuten emakumeen % 13,9k soilik jarri zuen salaketa.

Bigarrenik, Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko inkestak adierazten du EAEn lana izan duten 16 eta 85 urte bitarteko emakumeen % 13,2k **indarkeria edo jazarpena jasan duela lan-eremuan** noizbait. Talde horretan, % 2,1ek indarkeria fisikoa jasan du, eta % 1,4k sexu-indarkeria. Horrez gain, lana izan duten emakumeen % 3,1ek indarkeria fisikoa eta/edo sexuala jasan du inoiz lantokian (bien batura ez dator bat eragindako emakume guztien kopuruarekin, emakume batzuek hainbat jazarpen- eta/edo indarkeria-egoera bizi izan baitituzte). Sexu-jazarpenari buruzko datuei erreparatzen badiegu, EAEn bizi diren 16 eta 85 urte bitarteko emakumeen % 10,1ek noizbait jasan du sexu-jazarpena lan-ingurunean. Era berean, % 3,5ek behin baino gehiagotan jasan du laneko jazarpena bere bizitzan zehar, eta bi jazarpen-motak batera kontuan hartzen badira, EAEn bizi diren eta lana izan duten 16 eta 85 urte bitarteko emakumeen % 11,5ek behin baino gehiagotan jasan du sexu-jazarpena eta/edo laneko jazarpena bizitzan zehar.

Emakumeek lan-eremuan jasan duten jazarpenari dagokionez, noizbait jasan dutenen % 9,3k lanera joan gabe egon behar izan du aldi batez, eta egoera hori ohikoagoa da behin baino gehiagotan jazarpena jasan dutenen artean (% 16,4) sexu-jazarpena jasan dutenen artean baino (% 8,7). Gainera, biktimen % 82,4k esan du lagun edo senideren batekin hitz egin duela gertaera horiei buruz, baina % 17,4k ez dio esperientzia hori inguruko inori kontatu. Bestalde, are ezohikoagoa da horrelako bizipenak laneko norbaitekin partekatzea: % 42,8k ez du halakorik egin. Laneko pertsonaren batekin esperientzia partekatzen dutenen artean, gehienek (% 37,8) lankideren batekin partekatu dute. Bildutako datuek erakusten dute, halaber, emakumeen ehuneko oso handi batek ez dituela laneko jazarpen-gertakariak salatzen, ez polizian, ez epaitegian. Soilik % 4,1ek salatu du inoiz, eta % 0,7k azken urtean. Ez salatzeko arrazoi nagusiak hauek dira: jazarpen-egoerak delitu salagarri batekin ez identifikatzea (% 42,3); prozesu judizial batekin lotuta hautematen diren zailtasunak (% 12,8) eta erruduntasuna, lotsa edo blokeo emozionala sentitzea (% 6,9).

Emakumeek jasaten duten jazarpenaren aurka borrokatzeko enpresek dituzten estrategiei buruz, biktimen % 63k adierazi du lantokian ez dagoela prestakuntza espezifikorik laneko sexu-jazarpeneko kasuetan jarraitu beharreko prozedura ezagutarazteko, eta % 58,1ek adierazi du ez dagoela pertsona edo sailik biktima diren emakumeei informazioa edo babesa emateko. Baiezko tasak % 26,2 eta % 28,9 dira, hurrenez hurren, eta gainerako kasuetan prestakuntzak eta asistentzia-mekanismoak planifikatuta daude.

...

EAEko berdintasun-politikak 1988an sortu ziren, **EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundea** legez sortu zenean, emakumeen mugimenduen eskariari eta arlo horretan sinatutako nazioarteko konpromisoei erantzuteko. EMAKUNDEren azken helburua da emakumeen aurkako diskriminazio-mota guztiak ezabatzea eta EAEn emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra lortzea. Horretarako, gure erkidegoko berdintasun-politikak arautu, bultzatu, aholkatu, planifikatu eta ebaluatzeaz arduratzen den erakundea da.

Gaur egun, indarrean dago [Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua](#)

(aurrerantzean, Berdintasunerako Legea). Dekretu horren **helburua** da “*emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan botere publikoen jarduera gidatu behar duten printzipio orokorrak ezartzea, eta zenbait neurri arautzea bizitzaren arlo guztietan emakumeek eta gizonen aukera eta tratu berdinak izan ditzaten sustatzeko eta bermatzeko, eta, bereziki, emakumeen autonomia eta ahalduntzea bultzatzeko eta emakumeek jendartean, ekonomian zein politikan duten estatusa sendotzeko, egiturazko desberdinkeria eta sexuan oinarritutako diskriminazio-modu oro ezabatzen, emakumeen aurkako indarkeria matxista barne dela. Azken batean, jendarte berdinzalea eta indarkeria matxistarik gabea lortu nahi da, non pertsona oro libre izango den, hala eremu publikoan nola pribatuan, bere gaitasun pertsonalak garatu eta erabakiak hartzeko, ohiko rolek generoaren arabera ezartzen dituzten mugak izan gabe; non berdin aintzat hartu, baloratu eta bultzatuko diren emakumeek eta gizonen dituzten portaerak, jomugak eta beharrianak”.*

Plangintzari dagokionez, lehenengo Berdintasun Plana 1991n onartu zen, eta, gaur egun, indarrean dago zortzigarren Berdintasun Plana: [EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategia](#), 2024ko otsailan Gobernu Kontseiluak onartua. Plan horren **xedea** da “*euskal botere publikoei beharrezko jarraibideak eta orientabideak ematea, beren politiken bidez egungo gizarte-antolaketa patriarkalaren ereduaren alternatiba bat eraiki dezaten. Estrategia Eusko Jaurlaritzaren plangintza-tresna da, emakumeek, emakume izateagatik, estrukturalki aurre egin behar dieten desberdintasunak eta diskriminazioak ezabatzen, eta 2030ean gizarte-antolaketa demokratikoagoa, bidezkoagoa, berdinzaleagoa, jasangarriagoa eta indarkeria matxistarik gabea eraikitzen bidean aurrera egiteko. Horretarako, Estrategiak paradigma feminista oinarritu behar du, eta zeharka lagundu behar du balioak aldatzen eta genero-rolak eta estereotipoak ezabatzen”.*

V.4. GIZARTE-BABESA

Lehenik eta behin, EUSTATen 2024ko “**EAEko Gizarte-babesaren Kontuaren**” azken datuen arabera, EAEn eginkizun horretarako erabilitako baliabideak 25.910 milioi euro izan ziren aipaturiko urtean, 2023an baino % 6,3 gehiago (+1.531 milioi). Kopuru hori urte horretako BPGd-ren % 26,4 da (2023an baino 3 hamarren gehiago). Gizarte-babeseko gastu osoak etengabe egin du gora estatistika horrek maneiatzen duen denbora-serie erabilgarrian: biztanleko gastua 6.402 eurokoa izan zen 2008an, eta 11.707 eurokoa 2024an (+% 82,9). Gainera, EUROSTAT erakundeak argitaratutako datuen arabera, 2024. urtean, biztanleko gastua gizarte-babesean EAEn, eroste-ahalmenaren parekotasunaren arabera neurtuta, 12.762 eurokoa izan zen, hau da, EBko batez bestekoaren (10.942 €) eta Estatuko batez bestekoaren (9.044 €) gainetik (Eurogunean 10.962 €, 2023ko datuen arabera).

...

Bigarrenik, 2025ean, milioi erdi pertsona baino gehiago (542.437, lehen zenbatespenaren arabera) **Gizarte Segurantzaren sistemako pentsioen** onuradunak izan ziren gure autonomia-erkidegoan (kotizaziopekoak eta kotizazio gabekoak¹⁹), aurreko urtean baino % 1,1 gehiago. Azken urteotan gertatzen ari den bezala, igoera hori kotizaziopeko pentsioen onuradunen kolektiboaren pisuaren eta bilakaeraren ondorio da, gainerako modalitateak, oro har, gutxieneko kopuruetan mantentzen baitira. Gizarte Segurantzak emandako prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten EAEko biztanleen portzentajea % 24,5era heldu da, aurreko urtean baino bi hamarren gehiago.

Kotizaziopeko pentsioei dagokienez (onuradunen % 97,4 eta gastuaren % 99,2), 2025ean batez beste 528.220 onuradun daude (+% 1,1), eta 584.900 pentsio jaso zituzten (+% 1,1). Izan ere, pertsona batek kotizaziopeko pentsio bat baino gehiago jaso ditzake, eta urteko gastua 13.197,8 milioi eurokoa izan da, hau da, 2024an baino % 5,3 gehiago. Kotizazio gabeko pentsioek, bestalde, 14.217 pertsona estali dituzte 2025ean (urteko batez besteko datua), eta 109,3 milioi euroko gastua sortu dute (+% 5,3 2024. urtearekin alderatuta). Laburbilduz, EAEn pentsioetan egindako guztizko gastua 13.307,1 milioi eurora igo da 2025ean, behin-behineko datuekin, eta % 5,3ko igoera izan du,

¹⁹ Kalkulu horietan ez dira barne hartu laguntza-pentsioak eta Desgaitasunen bat duten pertsonen gizarteratzeari buruzko Legearen ondoriozkoak, desagertuz joan direnak. Gainera, ez dago informazio eguneraturik. Dena den, guztizkoaren gaineko pisua % 0,4ren azpitik dago.

2024. urtearekin alderatuta. Hala, BPGd-ri dagokionez, ehunekoak % 12,9n mantendu da (EUSTATen behin-behineko datuekin).

Gizarte Segurantzaren kotizaziopeko pentsioen EAEko gastua eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren kuoten bilketako zifrak erlazionatzen baditugu, 2024an (bi zifrak eskuragarri dauden azken ekitaldian) gastua 12.531,5 milioikoa izan zen, 9.504,8 milioiko diru-sarreraren aldean, eta, beraz, saldoa negatiboa izango litzateke, 3.026,7 milioi eurokoa, 2023an baino % 3,4 gehiago.

...

EAEko pobrezia- eta gizarte-bazterketari aurre egiteko tresna nagusien artean —Gizarte-zerbitzuei buruzko Legean, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Legean jasotako—, honako hauek daude: Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE), Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria (EPO) eta Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak (GLL), **Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren** sartutako gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko programak.

Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzak hainbat plan egin izan ditu pobrezia- eta gizarte-bazterketaren kontrako borrokaren oinarriak ezartzeko eta aipaturiko araudia garatzeko abiatu beharreko helburuak eta neurriak egituratzeko. Gaur egun, **“Inklusiorako V. Euskal Plana 2022-2026”** dago indarrean, zeinetan urteko 1.202 milioi euroko gastua aurreikusen baita —hezkuntzako eta osasuneko gastuak zenbatu gabe—, hau da, 6.010 milioi euro inguruko gastu metatua egingo da berorren indarraldian.

Eusko Jaurlaritzak egindako 2023-2024 urteetarako I. Plan Operatiboaren balantze-txostenak dio orokorrean 2023rako eta 2024rako kalkulaturako aurrekontuaren % 98 bete dela; zehatzago esanda, 1.476,6 M€ erabili dira 1.506,5 milioi euroko aurreikuspenetik. Horretarako, epigrafe hauetan jasotako ekimen-multzoa martxan jarri da: “politika eragileak (115,5 M€ erabili dira 2023-2024 biurtekoan), “inklusioko esperimendazio-proiektuak” (6 M€), “ibilbide mistoen esperimendazio-proiektuak” (1,1 M€) eta “aldaketarako jarduketak” (1.353,9 M€).

Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren funtsezko prestazioa **Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta** (DSBE) da. Laguntza horien ondorioz, 2024ko PGDI inkestaren arabera, EAEn pobrezia-aren atalase-mailaren azpian bizi diren pertsonen kopurua % 45,3 jaitsi da (—% 45,3 2022an). Zifra horietatik ere ondorioztatzen da sistema hori pobrezia-arriskuan zeuden biztanleen % 63,6 zela erreferentziako urtean: 129.293 pertsona (biztanleria osoaren % 5,9).

2025ean 57.482 bizikidetz-unitatek jaso zuten DSBEa (abenduko datua; 100.000 onuradun inguru), eta laguntza horiek 57.986 izan ziren 2024. urtearen amaieran, beraz, 2024an % 0,9ko jaitsiera izan zen. LANBIDEn 2025eko abenduan aktibo²⁰ zeuden espedienteen fitxaren arabera, bizikidetz-unitateetako 57.482 titularren % 42,3 gizonezkoak dira eta % 57,7 emakumezkoak (aurreko urtean baino hamarren bat gutxiago). Onuradun gehien dituen adin-tartea 45-54 urte bitartekoa da (guztizkoaren % 22,3), eta nabarmentzekoa da 9.444 hartzaille 34 urtetik beherakoak direla (% 16,5, 2024an baino 2 hamarren gehiago). DSBE jasotzen emandako denborari dagokionez, 2025eko urteko batez besteko datuen arabera, titularren % 13,1ek urtebete baino gutxiago darama hartzaille gisa, % 28,6k urtebete eta bi urte artean, % 22k 3 eta 5 urte artean, % 16,6k 6 eta 10 urte artean, eta gainerako % 19,6k 10 urte baino gehiago daramatza DSBE jasotzen.

LANBIDEn zifren arabera, bizikidetz-unitate hartzaillearen titularraren profila (aztertutako seriean ia ez da aldatzen) honako hau da: emakumea, Espainiako nazionalitatearekin, 40 urtetik gorakoa eta oinarritzko ikasketak dituen (% 61,2k derrigorrezko ikasketak ditu —amaituta edo ez—, % 18,2k lanbide-titularen bat, eta % 4,6k unibertsitate-titularen bat). Gainera, urtebete eta 5 urte artean daramatza DSBEa jasotzen (guztizkoaren % 50,6, 2025eko batez besteko datuen arabera). Bestalde, titular hartzaillearen % 27,1 pentsiodunak dira (2024an % 26,6). Era berean, 11.697 pertsonak, hau da, bizikidetz-unitate hartzaillearen % 20,3k, jasotzen dute DSBE soldata-errenten osagarri gisa (—0,6 puntu 2024rekin

²⁰ Erreferentzia-hilabetearen ordainketa-mugimenduren bat izan dutenak.

alderatuta). Eskuragarri dagoen azken datuaren arabera, 2024an prestazioa jasotzen duten titularren % 39,2 atzerritarrak dira (2023an % 38, urteko datuen arabera).

2010ean, 18/2008 Legea garatzeko, **Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria** (EPO) jarri zen abian. Prestazio ekonomikoen sistema bat bideratzea du helburu, DSBEn osagarri, biztanleriaren talde ahulenei etxebizitzarekin lotutako gastuei aurre egiteko aukera emateko.

Indarraldiko lehenengo urtean (2010), guztira 51 milioi eurotik gorako gastua eragin zuen EPOk, eta urtez urte joan da handitzen gastua, 2016an 91 milioi eurotara iritsi arte (orain arteko zenbatekorik altuena). 2025ean 30,3 milioi euro erabili ziren prestazio horretarako (—% 60,3 2024ko datuekin alderatuta). Zenbateko horretatik, 6 milioi Arabari dagozkio (guztizkoaren % 19,7), 17,6 milioi Bizkaiari (% 58,1) eta 6,7 milioi euro Gipuzkoari (% 22,2). Jaitsiera handi horren arrazoia da Etxebizitzarako eskubide subjektiboa arautzen duen 147/2023 Dekretutik aurrera, Etxebizitzaren Prestazio Ekonomikoa sortu zela; geroago, EPO ordezkatu zuen.

EPO abian jarri ondoren, **Gizarte Larrialdiko Laguntzak** (GLL) bere jatorrizko helburua berreskuratu zuen (oinarrizko beharrian espezifikoei aurre egiteko aldizkakoak ez diren prestazioak dira, batez ere etxebizitzarekin zerikusia dutenak, gizarte-bazterketako egoerak prebenitzeko, ekiditeko edo leuntzeko gastuei aurre egiteko baliabide nahikorik ez daukaten pertsonen egoera zehatzetan sortzen zaizkienak) eta bere aurrekontu-partida nabarmen murriztu zen: 2010. urtean (informazio finkatua daukagun azken urtea) laguntza horretarako 24 milioi euro bideratu ziren, aurreko urteko 54,5 milioien aldean. 2024an (eskura dagoen azken datua, dagokion estatistikaren arabera) 48,38 milioi euro bideratu ziren laguntza horietara (2023an baino —% 3,6).

2024an 27.589 kontsumo-unitate hartzaile zenbatu dira, 2023an baino % 4 gutxiago; horietatik 3.694 Araban bizi ziren (guztizkoaren % 13,4), 8.260 Gipuzkoan (% 29,9) eta gainerako 15.635 Bizkaian (% 56,7). Guztira, urtean 61.330 laguntza eman ziren (2023an baino —% 6,7) kontzeptu ezberdinengatik, hala nola oinarrizko premiak (12.298 laguntza, guztizkoaren % 20,1), alokairua (8.144 laguntza, % 13,3), energia (15.515 laguntza, guztizkoaren % 25,3) edo etxebizitza mantentzeko lanak (17.050, laguntzen % 27,8). Laguntza bakoitzeko batez besteko zenbatekoa 1.753,73 eurokoa izan zen (2023an baino +% 0,5).

Behin-behineko datuekin, Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak 459,6 milioi euro gastatu zituen orotara 2025ean, 2024an baino % 11,5 gutxiago. Honelaxe daude banatuta: 380,9 milioi Diru-sarrerak Bermatzeko Errentan egindako gastuari dagozkio (kopuru osoaren % 82,9, eta 2024an baino % 3,4 gutxiago), 30,3 milioi Etxebizitzako Prestazio Osagarriarako (kopuru osoaren % 6,6 eta 2024an baino % 60,3 gutxiago) eta, azkenik, 2025eko zenbatekoa falta denez, kalkulatu dugu 48,4 milioi euro (2024ko datua) erabili zirela Gizarte-larrialdietarako laguntzetarako (sistemaren % 10,5).

Konparazioa egite aldera, Eskubide Sozialen eta 2030 Agendaren Ministerioaren *“Gizarteratzeko Gutxieneko Errenten Txostenari”* esker, autonomia-erkidegoen diru-sarrerak bermatzeko sistemen zifra handien urteko jarraipen konparatiboa egin daiteke, araudien heterogeneotasuna eta sistema horien garapen-mailak kontuan hartuta betiere. 2024ko txostenaren arabera (argitaratutako azkena), gure autonomia-erkidegoak DBE gehi EPO gastuetarako erabili zuen estatuan autonomia-erkidegoek prestazio horietara bideratutako funts guztien % 30en baliokidea. Euskal biztanleriak estatu osoan duen pisuaren arabera egokitu beharko litzaiokeena baino askoz ehuneko handiagoa da; izan ere, % 4,6koa zen erreferentziazko urtean.

2020an, estatuan **bizitzeko gutxieneko diru-sarrera** (BGDS) sortu zen. Pandemiaren krisialdi bete-betean agertu zen, eta COVID-19ak Espainian eragindako zaurgarritasun ekonomiko eta sozialaren gorakadari erantzun zion. Hala ere, ez da pandemiari lotutako koiunturazko neurria, egiturazko tresna bat baizik, zeinaren agerpena osasun-krisiak bizkortu baitu. Tresna honen helburua da konponbidea ematea diru-sarrerak bermatzeko Espainiako ereduaren ahuleziei eta lurralde-aniztasunari.

Gizarte Eskubide, Kontsumo eta Agenda 2030 Ministerioaren *“Estadísticas IMV”* txostenaren arabera, 2025eko abendura arte GSINK 1.144.147 etxeri aitortu die prestazio hori, eta 3,4 milioi pertsonak jaso dute prestazioa. Laguntza

horietara bideratutako funtsen zenbateko osoa, martxan jarri zenetik 2025eko abenduaren 31ra arte, 18.408 milioi eurokoa da (5.051 azken urtean).

Iturri horrek erakusten duenez, EAEn 41.542 ebazpen onetsi ziren 2025eko abenduaren 31ra arte, eta datu hori 96.943 onuraduni dagokie, guztira 900,1 milioi euro ordainduta. 2025ean, Euskal Enplegu Zerbitzuak 237,8 milioi euroko laguntza horiek izapidetu zituen (2024an baino % 0,1 gehiago).

Azkenik, **esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatuz** gizarteratzea bultzatzeko programen barruan, 2024an Eusko Jaurlaritzak esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak eman zituen, guztira 4,79 milioi eurokoak, aurreko urteetako zenbateko bera. Laguntza horietatik, 3,74 milioi (% 81,6) "esku-hartze soziala" ildora bideratu ziren, % 12,5 (600.000 euro) "indartze asoziatibora" eta gainerako % 5,8a (450.000 euro) "ezagutzaren kudeaketa" ildora. Eusko Jaurlaritzaren programa zehatz horren zenbatekoak dira, baina beste erakunde batzuek (foru-aldundiak eta udal ugari) ere funtsak bideratzen dituzte helburu horietara, eta ez dago programa horiei buruzko informaziorik.

...

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema (GZES) arretako sare publiko egituratua da, erantzukizun publikokoa, eta bere helburua da gizarteratzea, autonomia eta ongizatea bideratzea pertsona, familia eta talde guztiei, sustapen-, prebentzio-, babes- eta laguntza-funtzioa garatuz, funtsean pertsonen eta harremanen arlokoak diren prestazioen eta zerbitzuen bidez. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak (GZL) arautzen eta antolatzen du sistema hori, eta hauek dira haren ezaugarri nagusiak: gizarte-zerbitzuetarako eskubide subjektiboa ezartzea, Sistema osatzen duten Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa definitzea, horrela eskubide horren irismena zehaztuz eta haren garapena eta ezarpena bermatuz, eta, azkenik, katalogo hori garatzeko aurreikuspena, prestazio eta zerbitzuen zorro baten bidez: ezaugarri nagusiak eta sarbide-baldintzak definitzen ditu.

GZES "Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoarekin" osatzen da. Plan horren bigarren edizioa 2023-2026 aldirako egin da, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari ahalik eta eraginkortasunik eta efizientziarik handiena lortzeko beharrezkoak diren prestazioak, zerbitzuak, programak eta bestelako jarduketak planifikatzeko. Plan horren arabera, GZESren gastu arrunt publikoa urtean 1.491 milioi eurokoa izango da 2025erako, eta 1.695 milioi eurokoa 2030erako.

Halaber, gure autonomia-erkidegoak "2021-2024 urteetako arreta soziosanitarioko estrategia" garatu du; zaintzei, osasunari eta gizarteari lotutako beharrei arreta emateko esparru integratu baten elementu egituratzailea da. Estrategia horren misioa hau da: "Pertsonak bizi-zikloaren etapa guztietan zainduko dituen arreta soziosanitaria, ikuspegi sistemiko, jasangarri eta beren bizi-proiektua errespetatuko duena" eskuragarri izatea eta ikuspegiaren helburua da "ahalik eta ongizaterik handiena lortzea pertsonentzat, arreta koordinatuaren esparruan eta euskal gizartean sortzen ari diren premiekiko sentikorra den esparruan. Tokiko zaintza-, gizarte- eta osasun-ekosistemen sare gisa egituratuko da".

Estrategiaren indarraldia bukatuta, 2025ean Eusko Jaurlaritzak egin zuen ebaluazio-txostenak dio betearazpenaren batez bestekoa altua izan zela (% 84). Arlo estrategikoen analisi kuantitatiboak dio Gobernantza Soziosanitaria, Arreta Soziosanitaria eta Elkarreragingarritasun Soziosanitaria izan zirela gehien garatu direnak: betearazpenen batez bestekoak % 100, % 98 eta % 87 dira hurrenez hurren. Kontrara, Prebentzio Soziosanitaria eta I+G+b Soziosanitaria gutxiago garatu dira; hurrenez hurren, horien betearazpen-ehunekoak % 62 eta % 75 dira. Proiektu estrategikoak garatzeari dagokionez, gehienek betearazpen-maila altuak izan dituzte. Estrategiako hamabost proiektuetatik bederatzia bukatu ziren (% 60) eta gainerako seik (% 40) garatzen jarraitzen dute, epe luzeko proiektuak direlako.

Bestalde, **EAEko Gizarte Zerbitzuen gastua** 2023an (datuak dituen azken urtea) 3.817 milioi eurokoa izan zen, aurreko urtean baino % 18,4 gehiago, EUSTATen²¹ "Gizarte Zerbitzuei eta Gizarte Ekintzari buruzko Estatistikaren" arabera. Gastu

²¹ Kontuan izan behar da diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) eta enplegurako zentro bereziak ez daudela Gizarte-zerbitzuen Euskal Sistemaren barruan, estatistika horrek barne hartzen dituen arren. Horiei buruzko informazio zehatza eskuratzeko, kapitulu honetako 4.3.2 atalera (DSBE) eta III. kapitulura jo daiteke. Enplegua eta lan-harremanak EAEn (EEE).

hori gure autonomia-erkidegoaren urte horretako BPGd-ren % 4,1 da eta biztanle bakoitzeko batez beste 1.737,6 euroko gastua, 2022 baino % 17,8 gehiago. Gastuaren % 68,1, ia 2.600 milioi euro, gastu arruntei dagokie, eta horietatik 1.063,1 milioi familiei transferentziak egiteko erabili ziren (2022an baino % 21,3 gehiago). Gainera, administrazio publikoek 2.724,8 milioi euro finantzatu zituzten (+% 17,2), guztizkoaren % 71,4; sektore pribatuak, berriz, gainerako % 28,6a finantzatu zuen.

...

2007ko Mendetasunaren Legea ezartzeari dagokionez, *Adinduen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren (IMSERSO)* 2025eko abenduaren 31ko azken datuen arabera, aipaturiko data horretan, EAEk 121.716 balorazio-eskaera zituen erregistraturik Mendetasunaren Arretarako Sistemari. Horietatik (gainerako erkidegoetan bezala) gehienak mendekotasun-gradua aintzatesteko berriak diren dagozkie. Eskatzailearen profila honako hau da: emakumea (guztizkoaren % 60,3) eta 80 urte edo gehiagokoa (eskaeren % 53,9; baina % 63,6 emakumeen artean).

Erregistratutako 121.716 irizpen-eskaeretatik, % 99,88k zegokion ebazpena jaso zuten jada (Estatuan, batez beste, % 95,30), eta 88.036 pertsonari, irizpena jaso zuten kasuen % 72,42ri, prestazioa jasotzeko eskubidea onartu zieten. Ehuneko hori Estatuko batez bestekoa (% 80,48) baino txikiagoa da. Baina biztanleria osoaren gaineko onuradunen ratioa kontuan hartzen badugu, tasa handiagoa da EAEn Estatuan baino: Biztanleriaren % 3,95 EAEn, eta % 3,67 Estatuan.

Mendekotasunaren Espainiako Behatokiak, EAeri dagokionez, nabarmendu du azken urtean sistemak artatutako pertsonen kopurua hazi egin dela, baina 2024an gertatu zen bezala, hazkunde hori estatukoa baino txikiagoa da (+% 5,7, Estatuko batez bestekoaren +% 10en aldean). Alderdi positibo gisa, nabarmendu da itzarote-zerrenda, bigarren urtez jarraian, murriztu egin dela, aurreko % 7,5 eta Estatuko batez bestekoaren parean mantendu da; halaber, 835 enplegu garbi sortu dira, eta, beraz, zuzeneko 19.600 enpleguen muga gainditu da.

Zainketei dagokionez, Europa hegoaldeko herrialdeetako eredu tradizionalak familia jartzen du zainketen eta laguntzaren emaila nagusi gisa. Ikuspegi horrek zaintza-erantzukizunak eremu pribatuaren kokatzen ditu, eta familiei esleitzen dizkie sozialki, eta, bereziki, emakumeei, haiek arduratzen baitira batez ere zeregin horretaz. Hala ere, zaintza eredu tradizional hori krisian dago. Biztanleriaren zahartzea, gaur egungoa eta espero dena, "zainketen krisia" deiturikoan eragina duten faktoreetako bat da.

Testuinguru horretan, EUROFOUNDek, Bizi Baldintzak Hobetzeko Europako Fundazioak, orain dela gutxi gin duen "Ordaindu gabeko zaintzak EBN" izeneko txostenean azpimarratu du, beste batzuen artean, EBko biztanleen ia erdiak (% 45) ordaindu gabeko zaintzak ematen dituela. % 10ek zaintzei lotutako askotariko erantzukizunak betetzen dituzte aldi berean eta emakumeek probabilitate handiagoa dute zaintzaile izateko gizonen baino, zaintzak modu intentsiboan eman behar izateko ere bai eta aldi berean rol ezberdinak betetzeko baita ere. Gainera, "zaintza ezkutua" direla-eta, ordaindu gabeko zaintzaile asko ez dira inkestetan detektatzen. Zaintzaile gazteei buruzko datuak (18 urtetik beherakoak) oso urriak dira. Kalkuluek diote 15-17 urte arteko gazteen laurden batek haurrak zaintzen dituela ordainsaririk jaso gabe eta % 8 eta % 24 arteko ehunekoak epe luzeko zaintzak ematen dituztela.

...

Amaitzeko, **EAEko borondatezko gizarte-aurreikuspeneko sistemaren bilakaeraren** balantzea egiteko, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailak adierazten du 2024an EAEko BGAEek 30.826,56 milioi euroko ondarea zutela (azken datu erabilgarria). Zenbateko hori % 6,7 handitu da aurreko urtearekin alderatuta, eta aurtengo BPGd-ren % 31,69 da. Era berean, erakunde horietan 1,18 milioi pertsona daude kidegata edo atxikita (kontuen kopurua kontuan hartuta eta ez pertsonen kopurua, zaila baita zehaztea zenbat dauden bikoiztuta edo zenbat bazkide dauden etenda ekarpenetan),

hau da, 2023an baino % 0,3 gehiago. 2024ko abenduaren 31n, EAEn 68 BGAE zeuden; horietatik 41 enpleguko BGAE ziren (horietatik 3 lehentasunezko enplegukoak²²), 25 banan-banakakoak eta 2 elkartutakoak.

Bazkideen erdia baino gehiago (% 51,5) banakako BGAEetan zeuden, eta, horien atzetik, enplegukoetan (bazkideen % 48,4). Ondareari dagokionez, % 55,1 enpleguko BGAEei dagokie, eta gainerako ia guztia banakakoei (% 44,8); ordaindutako prestazioak, berriz, enplegu-erakundeetan eta banakakoetan biltzen dira gehienbat (guztizkoaren % 67,7 eta % 32,1, hurrenez hurren). Azkenik, ekarpenak nagusiki enpleguko BGAEei dagozkie (% 52,9), eta gero banakoei (% 47,1).

2024ko balantze gisa, EAeko BGAEren ondarea 30.826 milioi eurotik gorakoa da, eta % 6,7 hazi da aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Kuotak edo ekarpenak, bestalde, 2024an 880,2 milioi eurokoak izan ziren, hau da, 2023an baino % 4,3 gehiago. Genero-ikuspegiaren arabera portaera aurreko ekitaldietakoaren antzekoa izan da. Izan ere, sistemari egindako ekarpenen % 57 gizonen ordaindu dituzte, eta % 43 emakumeek.

Eta, BGAEei eta pentsio-planei egindako ekarpenengatik PFEZaren zerga-oinarri orokorrean egindako murrizketei dagokienez, 2022an (eskura dagoen azken datua) murrizketen zenbatekoa (—% 0,4) eta aitortzaile bakoitzeko batez besteko murrizketa (—% 1) gutxitu dira. Azken hori 2.043 € izan da. Zenbateko hori aldatu egiten da: errenta-maila baxuenen batez besteko ekarpena 1.295 eurokoa da (30.000 eurorainoko likidazio-oinarria), eta zergadunen % 22,5ek soilik egin ditu ekarpenak; 30.000 eta 90.000 euro arteko oinarria duten zergadunen batez besteko ekarpena 2.506 eurokoa da, eta % 49,9k egin ditu ekarpenak; eta batez besteko ekarpena 4.937 eurokoa da errenta-mailarik handienetan, eta zergadunen % 62,3k egin ditu ekarpenak.

²² Enpleguko BGAEek lehentasunezko enpleguko BGAE kalifikazioa lor dezakete, baldin eta baldintza jakin batzuk betetzen badituzte; besteak beste, jatorria eta enpresa-hitzarmen edo -itun bidez eratzea, bazkideak hartzeko orduan diskriminaziorik ezaren printzipioa eta, ahal dela, prestazioa errenta gisa jasotzea. Memoria hau egin den egunean, GEROA, ELKARKIDETZA eta LAGUNARO dira lehentasunezko enpleguko hiru BGAEak.

VI. BIZI KALITATEA

VI.1. HEZKUNTZA

EUSTATen arabera, 2024-2025 ikasturtean 362.431 ikasle²³ matrikulatu ziren unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzan EAEn, aurreko ikasturtean baino 3.558 gutxiago. **Matrikulazioaren bilakaera desberdina izan zen hezkuntza-mailaren arabera.**

- Hasierako etapak: azken urteotako beheranzko joera mantendu da. Heziketa Berezia zenbatu gabe, hasierako etapetan (Haur eta Lehen Hezkuntzan) 187.818 ikasle matrikulatu ziren (70.095 Haur Hezkuntzan eta 117.723 Lehen Hezkuntzan), hau da, 2023-2024 ikasturtean baino % 4 eta % 3,1 ikasle gutxiago, hurrenez hurren.
- DBH: goranzko joera eta gero, behera egiten hasi zen. 431 ikasle gutxiago, guztira 89.904 ikasle.
- Oinarrizko Lanbide Heziketa: azken urteotako hazkundera mantentzen da. 329 ikasle gehiago, guztira 5.612 ikasle.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoa: gehitu egin dira batxilergoko eta lanbide-heziketako zifrak. Batxilergoan 33.255 pertsona²⁴ matrikulatu ziren (+% 2,1) eta erdi-mailako lanbide-heziketan 17.395 (+% 6,7). Hala, derrigorrezko hezkuntza amaitzean, ikasleen % 65,7k Batxilergoa aukeratu zuten eta % 34,3k, aldiz, erdi-mailako lanbide-heziketan eskainitako modulu etako bat egitea erabaki zuten. Goi-mailako lanbide-heziketan 25.913 pertsona matrikulatu ziren, aurreko ikasturtean²⁵ baino % 5 gehiago.

Sexuen araberako banaketa batxilergoan eta lanbide-heziketan²⁶ ezberdina izan zen. Batxilergoan emakumeak ziren % 54,2. Lanbide-heziketan desoreka handiagoa egon zen gizonen alde eta batez ere oinarrizko mailan nabaritu zen. Hauek izan ziren zifrak: % 64,3 gizon eta % 35,7 emakume erdi-mailan, % 62,7 eta % 37,3 goi-mailan eta % 72,3 eta % 27,7 oinarrizko mailan.

Ikastetxeen titulartasunari dagokionez, Haur eta Lehen Hezkuntzan eta Lanbide Heziketan matrikula gehiago egon dira sare publikoan sare pribatuan baino. Bestalde, DBHn eta Batxilergoan matrikula-kopurua pixka bat handiagoa izan da sare pribatuan sare publikoan baino.

Hizkuntza-ereduaren araberako banaketari dagokionez, D ereduaren geroz eta ikasle gehiago matrikulatzen dira. Hala, argi eta garbi eredu hori izan zen nagusia (ikasleen % 71,4 2024-25 ikasturtean), B ereduaren (% 15,9) eta A ereduaren (% 12,2) baino askoz ere gehiago. Gainerakoak (% 0,6) X ereduak izan ziren.

Hala eta guztiz ere, datuek bi dinamika bereizi erakusten dituzte irakaskuntza ez profesionalen eta lanbide-heziketaren artean. Lehenengoetan D ereduaren beheranzko gradienteak hautematen da hezkuntza-etapan aurrera egin ahala; Haur Hezkuntzan % 84,2 zen, Lehen Hezkuntzan % 80,2, DBHn % 73,8ra jaitsi zen eta Batxilergoan % 68,1era. Hau da, nahiz eta D ereduak etapa guztietan nagusi izaten jarraitu zuen, zifrak gutxitzen joan ziren progresiboki.

LHn, nahiz eta ikuspegi historikotik matrikulazioaren pisuak gora egin duen D ereduaren, hizkuntza-ereduen araberako banaketa aurreko patroiak urrundu egin zen. Ikasleen erdiak baino gehiagok (% 55,3) gaztelaniaz ikasi zuten eta euskara presentzia irabazten joan zen maila akademiko handiagoko ikasketetan.

²³ Helduentzako hezkuntza eta araubide bereziko irakaskuntzak salbuetsiz

²⁴ Batxilergoan bi ikasturte akademiko daude, normalean 16 eta 18 urte artean egiten direnak.

²⁵ Lanbide Heziketaren irakaskuntza-sisteman 16 urterekin sartzen dira ikasleak erdi-mailako heziketa-zikloan, Batxilergoaren alternatiba gisa, eta 18 urterekin goi-mailako heziketa-zikloan, betiere Hirugarren Hezkuntzaren edo goi-mailako irakaskuntzaren baitan. Erdi-mailako prestakuntza-zikloekin teknikari titulua lortzen da, eta goi-mailako prestakuntza-zikloekin goi-mailako teknikari-titulua.

²⁶ Derrigorrezko Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako sexuen banaketa ez da aztertu, horrek ez baitu zerikusirik hautaketa-arrazoiekin.

Azterketa hezkuntza-mailaren eta ikastetxeen titulartasunaren arabera egiten bada, ikusi da D ereduan matrikulatu ziren ikasleen % 63 ikastetxe publiko batean matrikulatu zirela eta lanbide-heziketan zeudela ratorik handienak, bereziki erdi-mailako lanbide-heziketan (D ereduan matrikulatzen diren ikasleen % 82,8 ikastetxe publikoetan matrikulatzen dira).

Batxilergoko modalitateei dagokienez, 2023-2024 ikasturtean, ikasleen % 56 Zientzia eta Teknologian matrikulatu ziren, % 38,6 Giza eta Gizarte Zientzietan eta % 2,9 Arteetan: Arte plastikoak, Irudia eta Diseinua bidean eta % 0,8 Arteetan: Musika eta arte eszenikoak bidean eta % 1,7 orokorrean.

Aurreko ikastaroetan bezala, datuek genero-ezberdintasunak erakutsi zituzten batxilergoko modalitatea aukeratzean. Arte-adarreko lau matrikulatik hiru emakumeek egin zituzten eta gehiengoa izan ziren, baita ere, Giza eta Gizarte Zientzietan (% 58,2). Kontrako aldean batxilergo orokorra dago; % 59,8 matrikulazio gizonak egin zituzten. Zientzia eta Teknologia modalitatea izan zen sexu bien kopuruak orekatuta zeuden bakarra.

2024-2025 ikasturtean, **lanbide-prestakuntzan** ikasle gehien bildu zituzten erdi-mailako zikloak **lanbide-arlo** hauetakoak izan ziren: Osasuna (% 17,7 +% 4), Fabrikazio Mekanikoa (% 13,3, +% 12,3), Elektrizitatea eta Elektronika (% 9,4, +% 5,8), Instalazioa eta Mantentze-lanak (% 8,2, +% 11,7), Administrazioa eta Kudeaketa (% 7,9, +% 7,5), Garraioa eta ibilgailuen mantentze-lanak (% 6,9, +% 1,9) eta Zerbitzu soziokulturalak eta komunitarioak (% 6,6, +% 5,4). Goi-mailako titulazioen artean hauek nabarmendu ziren matrikulazio-bolumenaren arabera: Informatika eta komunikazioak (% 12,4, +% 14), Administrazioa eta Kudeaketa (% 11,1, +% 6,8), Fabrikazio Mekanikoa (% 11, —% 0,6), Elektrizitatea eta Elektronika (% 10,3, +% 5,8), Zerbitzu Soziokulturalak eta Komunitaterako Zerbitzuak (% 10,2, +% 4,6), Osasuna (% 8,6 +% 5,7) eta Instalazioa eta Mantentze Lanak (% 7,4, +% 11).

Emakume asko egoten dira oraindik ere Irudi pertsonalean, Zerbitzu soziokulturalak eta komunitatekoetan, Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza eta Osasungintza. Bigarren taldean daude berriro ere Elikagaien industriak, Administrazioa eta kudeaketa, Merkataritza eta marketina, Kimika eta Arte grafikoak. Hala ere, batez beste, emakumeen parte-hartzea gizonena baino txikiagoa da lanbide-ikasketetan (erdi-mailako heziketa-zikloetan, % 35,7koa; goi-mailako heziketa-zikloetan, berriz, % 36,8koa). Horrez gain, ikusi da emakume gutxiago matrikulatu direla teknikoagoak diren lanbide-arloetan, laneratzeko aukera hobek eskaintzen badituzte ere. Hala, Elektrizitatea eta Elektronika, Fabrikazio Mekanikoa, Informatika eta Komunikazioak, Instalazioa eta Mantentze Lanak eta Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze Lanak arloei dagokienez, emakumeen matrikulazioa % 15,7koa izan da soilik, kasurik onenean (goi-mailako zikloa Informatikan eta Komunikazioetan, alegia).

LANBIDEk 2024an ikasketak amaitu zituzten **Lanbide Heziketako ikasleen 2023ko lan-egoerari buruz** emandako datuek erakusten dutenez, jarduera-tasa²⁷ % 60,3koa da, emakumeena gizonena baino handiagoa (% 60,8 vs % 60); enplegu-tasa²⁸ % 84,6koa da, emakumeena gizonen berdina; langabezia-tasa²⁹ % 15,4koa da, gizonena eta emakumeena berdina, eta enplegu-tasa³⁰ % 51koa da, emakumeena gizonena baino handiagoa (% 51,5 vs % 50,7).

Lanbide-arloen (24 guztira) arabera azterketak erakusten duenez, ikasketak gainditu dituzten ikasleen bolumen handiena duten zortzien artean (Osasuna, Fabrikazio Mekanikoa, Zerbitzu Soziokulturalak eta komunitatekoak, Elektrizitatea eta Elektronika; Administrazioa, Informatika eta Produzioaren Zerbitzuen Mantentzea; eta Berez Dabiltzan Ibilgailuen Mantentzea), enplegu- eta okupazio-tasa handienak honako hauek dituzte: Produzioaren Zerbitzuen Mantentzea (% 56,3 eta % 89, hurrenez hurren), Berez Dabiltzan Ibilgailuen Mantentzea (% 55,9 eta % 89), Elektrizitatea eta Elektronika (% 54,2 eta % 87), Fabrikazio Mekanikoa (% 51 eta % 87), Administrazioa (% 53,6 eta % 83) eta Osasuna

²⁷ Jarduera-tasa: lan-jarduera dutela (lanean edo lan bila daudela) erantzun dutenen kopurua, inkesta erantzun duten guztiak aintzat hartuta.

²⁸ Okupazio-tasa: okupatuta (lanean) daudela erantzun dutenen kopurua, lan-jarduera dutela (lanean edo lan bila daudela) erantzun duten guztiak aintzat hartuta.

²⁹ Langabezia-tasa: langabezian (lan bila) daudela erantzun dutenen kopurua, lan-jarduera dutela (lanean edo lan bila daudela) erantzun duten guztiak aintzat hartuta.

³⁰ Enplegu-tasa: lanean daudela erantzun dutenen kopurua, inkesta erantzun duten guztiak aintzat hartuta.

(% 50,4 eta % 86). Administrazioaren, Zerbitzu soziokulturalen eta komunitatekoen eta Osasunaren kasuan izan ezik, emakumeen matrikulazioa oso txikia da.

Aipatutako zortzi lanbide-arloetako heziketa-ziklo bakoitzaren okupazio-tasari dagokionez, hauek dira ikasketak bukatu dituzten ikasle-kopurua ehunetik gorakoa eta okupazio-tasa % 85etik gorakoa dituzten zikloak:

- Elektrizitatean eta Elektronikan: goi-mailako zikloa, Telekomunikazio-instalazioetan: Automatizazioan eta Robotika Industrialean goi-mailako zikloa eta Sistema Elektrotekniko eta Automatizatueta goi-mailako zikloa.
- Fabrikazio Mekanikoan: goi-mailako zikloa Fabrikazio mekanikoko diseinuan eta goi-mailako zikloa Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioan.
- Garraioan eta Ibilgailuen Mantentze Lanetan: erdi-mailako zikloa Ibilgailuen elektromekanikan eta goi-mailako zikloa Automobilgintzan.
- Instalazioa eta Mantentze Lanetan: goi-mailako zikloa mekatronika industrialean.
- Osasunean: Erizaintzako Zainketa Osagarrietako erdi-mailako zikloa eta Aho-hortzetako Higieneko goi-mailako zikloa.

Unibertsitateko irakaskuntzei dagokienez, 2023-2024 ikasturtean, guztira 72.915 ikasle zeuden matrikulatuta EAEn zentroak dituzten unibertsitateetan, hots, % 2,5eko igoera izan da aurreko ikasturtearen aldean. Horrela, finkatu egin da azken urteetako goranzko joera. Gehikuntza unibertsitate-maila guztietan gertatu zen. Sexuaren arabera banaketa eginez gero, emakume gehiago doaz unibertsitatera (guztizkoaren % 54,3 emakumeak dira).

Ikasle gehienek (% 68,1) unibertsitate publikoak aukeratu zituzten. Hala ere, zentro publiko eta pribatuen arteko matrikulen banaketan azken horien aldeko joera nabari da. Erregistroak daudenez geroztik, unibertsitate publikoetan matrikulatutako ikasleak guztizkoaren % 70 baino gutxiago izan ziren lehen aldiz 2022-2023 ikasturtean. Unibertsitate publikoa, ordea, titulazio bikoitzen gorakadara egokitzen ari da bere eskaintza. Duela hamarkada bat gradu bikoitzak unibertsitate pribatuen eskumenekoak soilik ziren, publikoak eskaini ere ez zituelako egiten, baina bilakaera nabarmena gertatu da.

Gradu-ikasketei dagokienez, matrikulen % 48,3 Gizarte eta Lege Zientzietan izan da. Horren ostean kokatu dira Ingeniaritza eta Arkitektura (% 23,4) eta, ondoren, Osasun Zientziak (% 14,7).

EUSTATen arabera, hiru titulaziorik ikasleen % 22 izan zituzten. Administrazioa eta Enpresa Zuzendaritza, Lehen Hezkuntza eta Zuzenbidea graduak izan ziren; gizonen eta emakumeen artean matrikulazio gehien izan zituzten titulazioak izan ziren. Hala eta guztiz ere, matrikulazio gehieneko hamar graduen taldea osatu zuten gainerako titulazioetan gizonen eta emakumeen kopuruak oso ezberdinak izan ziren. Gizonen sailkapenean zenbait ingeniariak zeuden eta emakumeenean, aldiz, osasunari eta gizarteari lotutako ikasketak.

2021ko promozioiko **unibertsitate-ikasleen** 2024ko **lan-egoerari erreparatuta**, LANBIDEn datuen arabera, jarduerata-tasa³¹ % 94koa da, gizonen jarduerata-tasa emakumeena baino handiagoa da (% 95 vs % 93); enplegu-tasa³² % 85koa da, gizonena emakumeena baino handiagoa (% 87 vs % 84); okupazio-tasa³³ % 91koa da, gizonena emakumeena baino handiagoa (% 92 vs % 90), eta langabezia-tasa³⁴ % 9koa da, gizonena emakumeena baino txikiagoa (% 8 vs % 10).

³¹ *Jarduerata-tasa: lan-jarduerata dutela (lanean edo lan bila daudela eta lanean hasteko prest daudela) erantzun duten pertsonen %, inkesta erantzun dutenen guztizko kopurua aintzat hartuta.*

³² *Enplegu-tasa: enplegu ordaindua duten edo jarduerata independente bat burutzen duten pertsonen %, inkesta erantzun dutenen guztizko kopurua aintzat hartuta.*

³³ *Okupazio-tasa: ordaindutako enplegua duten pertsonen %, pertsona aktiboen guztizko kopurua aintzat hartuta.*

³⁴ *Langabezia-tasa: ordaindutako enplegurik ez duten pertsonen %, inkesta erantzun dutenen guztizko kopurua aintzat hartuta.*

Enplegu ahokatuaren tasak hirugarren hezkuntzari (unibertsitateko ikasketei edo goi-mailako zikloari³⁵) lotutako enplegua lortu duten pertsonen ehunekoa islatzen du, eta % 88koa da; aurreko promozioko tasaren berdina. Emakumeen tasa eta batez besteko tasa bat datoz. Ikasketei lotutako enpleguaren tasari dagokionez, haien unibertsitate-ikasketei oso lotuta dagoen lanean ari diren pertsonen ehunekoa islatzen du eta, hortaz, ikuspuntu kualitatibotik enplegu ahokatuaren tasa osatzen du; kasu honetan % 77koa da tasa (aurreko promozioko tasa baino 1 puntu gehiago). Emakumeen tasa batez besteko tasa baino ehuneko puntu bat handiagoa izan zen. Hileko soldata garbia, hamalau ordainsaritan, lanaldi osoan 1.828 eurokoa izan zen. Emakumeen soldata baxuagoa izan zen (1.780 euro). Emakumeek soldata horrekiko duten gogobetetasuna batez beste erregistratzen denaren berdina izan zen (10etik 7,1). Emakumeek enpleguarekiko zuten gogobetetze orokorra (egindako lanak, sustapen-aukerak, lan-egonkortasuna...) batez bestekoa baino zertxobait txikiagoa izan zen (10etik 7,1 eta 7,2). Ikasketak bukatu dituzten eta EAEtik kanpo bizi diren eta lan egiten dutenen ehunekoa % 8 izan zen.

Jarduera-, enplegu- eta langabezia-tasak ezagutza-eremuen arabera banakatuz gero, alde nabarmenak daude. Bereziki honako hauek:

- Titulazio teknikoek, osasunarekin lotutakoek eta ekonomiko-juridikoek dituzte enplegu-tasa handienak eta langabezia-tasa baxuenak. Zehazki, arlo teknikoetan langabezia % 3koa izan zen, osasunari lotutakoetan % 5koa eta ekonomiko-juridikoetan % 7koa. Gainerako arloetan % 10 baino gehiagokoa izan zen.
- Enplegu ahokatuaren tasa % 98koa izan zen arlo teknikoetan, % 96koa osasunarekin lotutakoetan eta % 93koa esperimentaletan. Guztiak ere batezbestekoaren gainetik zeuden, hura % 88koa baitzen. Tasarik txikiena ekonomia eta zuzenbide arlokoa izan zen, % 82koa.
- Osasun-arloetako enpleguaren % 88 ikasketekin nahiko edo oso lotuta dago. Ehuneko hori % 83koa izan zen arlo teknikoetan eta % 78koa esperimentaletan. Guztiak ere batezbestekoaren gainetik (% 77). Tasarik txikiena giza zientzien arlokoa izan zen, % 59koa.

Jarraian, **hezkuntza-sistemaren gastuari eta finantzaketari** buruzko adierazle batzuk aztertuko ditugu:

- EUSTAT. Hezkuntza-kontua³⁶

2024an, EAEko hezkuntzako gastu osoa % 6,4 hazi zen EAEn 2023. urtearekin alderatuta, eta 5.240,5 milioi eurokoa izan zen, EUSTATen datuen arabera. Biztanleka banatuta, hezkuntzako gastua 2.373 eurokoa izan zen, hau da, BPGd-ren % 5,4, aurreko urtean baino 0,1 ehuneko-puntu gutxiago.

- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren gastua

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren gastua (hezkuntzaren arloa soilik), 2024an, 3.615.746 milioi eurokoa izan zen. Hortaz, % 0,2ko gehikuntza egon da aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Partaidetza hori, Eusko Jaurlaritzaren guztizko gastuan, % 24,2koa izan zen, aurreko urteko ratioa baino txikiagoa. Gastu hori EAEko BPGd-ren % 3,88 da, 2023an erregistratutako ratioaren antzekoa.

Ikasle bakoitzeko hezkuntzako gastu-ratioa (ikasleena, guztira, hau da, araubide orokorrekoan³⁷ zein berezikoan³⁸) jaitsi egin zen 2023 eta 2024 bitartean, 7.554 eurotik 7.556 eurora.

³⁵ Enpresen zuzendaritza eta gerentzia, unibertsitateko titulazioari lotutako profesional zientifikoak eta intelektualak, eta laguntza-teknikariak eta -profesionalak.

³⁶ EUSTATen Hezkuntzaren Kontuan hezkuntza-jarduera guztietako (arautuetako eta ez-arautuetako) ohiko gastua eta kapital-gastua jasotzen dira, hezkuntza-erakundeetan eta bestelako zentroetan eta enpresetan egindakoak, eta iturri publikoekin eta pribatuekin finantzatuak izan direnak.

³⁷ Unibertsitarioa eta ez-unibertsitarioa.

³⁸ Arte plastikoak eta diseinua, hizkuntzak, musika, dantza, kirola eta diseinuko goi-mailako ikasketak.

- Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioa.

- Hezkuntzako guztizko gastu publikoaren nazioarteko alderaketa, BPGd-arekiko.

2022an EB27n³⁹ BPGd-ren % 4,66 lortu zen, estatuko % 4,42 baino gehiago. Ratio handienak izan dituzten herrialdeak azken urteotako berberak dira, baina aldaketak daude sailkapenean: Suedia (% 6,86), Belgika (% 6,18), Finlandia (% 5,96), Danimarka (% 5,87) eta Herbehereak (% 5,18).

- Hezkuntzako gastu publikoaren estatistika. 2024ko datuak

Gastua administrazio-motaren, hezkuntza-jardueraren eta izaera ekonomikoaren arabera bereizita aurkezten da.

Estatu osorako hezkuntzako guztizko gastu publiko.

Hezkuntzako gastu publiko GUZTIA estatuan, finantza-kapitulua kenduta, nazioarteko metodologian egiten den bezala, 71.059,9 milioi eurokoa izan zen, alegia, BPGd-ren % 4,46. Horrela, gastua % 4,7 igo zen.

Hezkuntzako gastu publikoa administrazio-motaren arabera.

EAEn, Hezkuntza Sailaren gastua 2024an 3.799,1 milioi eurokoa izan zen, hots, aurreko urtean baino % 6,6 gehiago. BPGd-ren gaineko ehunekoa EAEko BPGd-ren % 4,15 da; ratio hori pixka bat handitu da aurreko urtearekin konparatuta, baina estatuko ratioaren azpitik dago (estatuko BPGd-ren % 4,46).

Hezkuntzako gastu publikoa, hezkuntza-jardueraren arabera: unibertsitateko eta unibertsitatez kanpoko hezkuntza-erakundeetan egin den gastu publikoa

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 2024an unibertsitatez kanpoko hezkuntzan egindako ahaleginak (BPGd-ren gaineko gastuaren ehunekoa) gainditu egiten du estatuak egindakoa (BPGd-ren % 3,46 eta % 3,19); ez, ordea, unibertsitate-hezkuntzan (% 0,6 eta % 0,8) egindakoa.

Hezkuntzako gastu publikoa, izaera ekonomikoaren arabera: itunetako gastu publikoa eta irakaskuntza pribaturako dirulaguntzak, hezkuntza-administrazioaren arabera

EAEn irakaskuntza pribatuari emandako itun eta dirulaguntzetan egindako gastu publikoa 989,4 milioi eurokoa izan zen 2024an (+% 12,5, 2023rekin konparatuta). Espainian 8.342,3 milioi € izan zen (+% 6). Hala, EAEn, itunen eta dirulaguntzen gastua Hezkuntza Sailaren gastuaren % 26 da, estatuko % 11,7ren gainera, eta EAE da ratorik handiena duen autonomia-erkidegoa.

- Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako gastu publikoa ikasle bakoitzeko. Estatuko konparazioa.

Ikasle publiko nahiz itunpeko bakoitzagatik unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan EAEn egindako gastu publikoa 8.946 eurokoa izan zen 2023. urtean; hortaz, EAEk lehen postua lortu du berriz ere autonomia-erkidegoen sailkapenean.

Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako ikastetxe publikoetan ikasle bakoitzeko egindako gastu publikoa 12.484 eurokoa izan zen EAEn 2023. urtean eta, hortaz, gure autonomia-erkidegoak du, berriz ere, ikasle bakoitzeko gasturik handiena. Horrela, EAEko ikastetxe publikoetako ikasle bakoitzeko gastua estatuko batezbestekoa baino % 57,2 handiagoa izan zen.

³⁹ Maila guztiak sartzen dira, HNSN 01 azpimaila izan ezik: Lehen haurtzaroko hezkuntza-garapena (Haur Hezkuntzako lehen zikloa).

- Ikasleko gastuak (EAP erabiliz bihurturiko euroak) hezkuntza-erakundeetan. Nazioarteko konparazioa. Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa

Aurreko adierazleak ez bezala, adierazle honek erakunde publiko eta pribatuetan gastu publikoa nahiz pribatua eta lanerako prestakuntza hartzen ditu kontuan, eta eurotan kalkulatuta dago (EAP erabiliz bihurtuta). Hezkuntza-maila guztiei erreparatzen zaie, haurren hasierako hezkuntza-garapenari (Haur Hezkuntzako lehenengo zikloa) izan ezik.

EUROSTATen arabera, 2022an, ikasle bakoitzeko gastua 8.140 eurokoa izan zen estatuan, hezkuntza-erakunde publikoetan eta pribatuetan, eta 9.155 eurokoa erakunde publikoetan. Bi gastuak EB-27n eta estatu-kide gehienetan izandakoen azpitik daude.

Beste hezkuntza-adierazle batzuk:

- Haur-hezkuntzako eskolaratze-tasa

Ministerioaren datuen arabera, 2022-2023 ikasturtean EAEko haur-hezkuntzako (0-5 urte) eskolaratzeen batez besteko urte-kopurua 4,6 urte izan zen, estatuko batezbestekoaren (4,3) gainetik, eta hala, mailarik altuena izan zuen, Madrilgo autonomia-erkidegoarekin, Galiziarekin eta Andaluziarekin batera; horiek ere 4,6 urte erregistratu zuten. Zifretan sakonduz, ikusten dugu EAEn bi urtekoen eskolaratze-tasa % 94koa izan zela 2024-2025 ikasturtean, autonomia-erkidegoen sailkapeneko lehen posizioa; estatuko batezbestekoa % 74,7koa izan zen. Ez dago ezberdintasun handirik mutilen eta nesken eskolaratzean.

- Araubide orokorreko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzetako ikasleak, hezkuntza-taldean arabera: nazioarteko konparazioa lehen hezkuntzan.

Ministerioaren datuen arabera, 2022-2023 ikasturtean talde bakoitzeko ikasle-kopurua txikiagoa da EAEn Espainiako batezbestekoarekin konparatuta unibertsitatez kanpoko hezkuntza-maila guztietan, salbu eta erdi-mailako prestakuntza-zikloetan eta hezkuntza berezian; azken horietan batezbestekoak pixka bat handiagoak dira.

Lehen Hezkuntzako datuei erreparatuta, non nazioarteko datuekin konparatzeko datuak eskuragarri dauden, 2022-2023 ikasturtean EAEko talde bakoitzeko ikasleen batezbestekoa 20,8 izan zen, estatuko antzera (20,9), baina ELGAren batezbestekoa (19,9) eta ELGAren parte diren edo kidetuta dauden EBko herrialdeetan (18,8) baino gehiago.

- Irakasle bakoitzeko ikasleak araubide orokorreko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzetan

Ministerioaren datuen arabera, EAEn 2023-2024 ikasturtean lanaldi osoan zegoen irakasle bakoitzeko ikasleen batez besteko kopurua 11,2 izan zen, estatuko batezbestekoaren antzera (11,1). Ikastetxeen titulartasuna aztertuta, EAEko ikasleen batezbestekoa lanaldi osoan dagoen irakasle bakoitzeko ikastetxe publikoetan 8,4 izan zen, estatuko batezbestekoa (10) baino gutxiago. Bere aldetik, ikastetxe pribatuetakoa 17,4 izan zen, estatuko batezbestekoaren gainetik. Lehen-hezkuntza eta DBH ematen dituzten ikastetxeetan egoten dira irakasle bakoitzeko ikasle-ratiorik altuenak (EAEn 14,4). Izan ere, horrelako ikastetxe asko pribatuak izaten dira. Ratorik txikiena Haur Hezkuntzako ikastetxeetan dago (EAE: 7,2 ikasle).

- Hezkuntza eta prestakuntza goiz uztea

Ministerioaren datuen arabera, EAE % 5n kokatu zen 2024an, estatuko batezbestekoaren (13), % 9ko helburuaren eta EB-27ko batezbestekoaren (% 7,7 azpitik). Sexuaren arabera, tasa txikiagoa da oraindik ere emakumeen artean gizonen artean baino. EAEn, emakumeen tasa gizonena baino 4,2 puntu gutxiagokoa izan zen (% 2,9 eta % 7,1).

- Goi-mailako ikasketetako titulua dutenen ehunekoa gazteen artean (25-34 urte)

Ministerioaren datuen arabera, 2024an EAEko ehunekoa % 67,8 izan zen (gizonak % 66,6 eta emakumeak % 69), estatuko batezbestekoak baino gehiago (% 52,6, gizonak % 47,1 eta emakumeak % 58,3), eta Europako % 45eko

helburua eta EB-27ko batezbestekoa (% 44,1) baino askoz ere gehiago. Alde nabarmena dago gizonen eta emakumeen artean eta kopurua handiagoa da emakumeen kasuan. Gure autonomia-erkidegoak du estatuko ratorik handiena, eta % 10,2 igo da 2014. eta 2024. urteen artean. Ehunekorik handienak izan zituztenak Irlanda (% 65,2), Luxenburgo (% 63,8) eta Zipre (% 60,1) izan ziren.

- Unibertsitateko abandonu- eta trantsizio-tasak

Espainiako Unibertsitate Sistemaren (SUE, gaztelaniaz), graduiko ikasketen abandonu-tasak (2019-2020 taldea) unibertsitate presentzialetan aldakuntza handiak ditu autonomia-erkidegoen artean, eta EAEk, Nafarroarekin eta Extremadurarekin batera, balio baxuenak erregistratu ditu (Nafarroa (% 10,7), EAE (% 10,8) eta Extremadura (% 10,8)).

Gradutik masterrera trantsizio-tasan, SUEko unibertsitate presentzial batean 2022-2023 ikasturtean gradu-ikasketak bukatu zituztenen % 25,1 master batean matrikulatu ziren hurrengo urtean. Gradutik masterrera trantsizio handiena duten autonomia-erkidegoen artean daude EAE (% 31,5) eta Asturias (% 30,1).

- Ikasleen mugikortasuna unibertsitate-ikasketak gauzatzeko. 2023-2024 ikasturtea

Ministerioaren datuen arabera, 2023-2024 ikasturtean EAEko unibertsitateetan ikasi zuten nazioarteko ikasleak (Credit mobility eta Degree mobility barne) ikasle guztien % 6,8 izan ziren. Datu horietan unibertsitate publikoak eta pribatuak daude. Ikasle guztiekiko nazioarteko ikasleen proportzio handiena duten autonomia-erkidegoak dira Nafarroa, Kantabria, Gaztela eta Leon, Katalunia eta Valentziako Erkidegoa. Jatorrizko herrialdeari dagokionez, EBtik eta Latinoamerika eta Karibetik etorritako ikasleak nabarmentzen dira, bai EAEn, bai Estatuan.

- Shangaiko unibertsitate-sailkapena

2025. urtean, Espainiako hamar unibertsitate daude munduko 500 onenen artean. 200 onenen artean Bartzelonako Unibertsitatea baino ez dago. 300 onenen artean dago, Bartzelonako Unibertsitateaz gain, Valentziako Unibertsitatea. 400 onenen artean, aurrekoen gain, honako hauek ageri dira: Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa, Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea, Pompeu Fabra Unibertsitatea, Granadako Unibertsitatea eta EHU. Eta 500 onenen artean, aurretik aipatutako gain, Valentziako Unibertsitate Politeknikoa eta Sevillako Unibertsitatea ageri dira.

Hauek dira EHUn kokapen onena duten diziplinak 2025ean: Ingeniaritza kimikoa, Kimika, Nanozientzia eta Nanoteknologia, Matematika, Ingeniaritza zibila, Materialen zientzia eta ingeniaritza, Energiaren zientzia eta ingeniaritza eta Elikagaien zientzia eta teknologia, Fisika, Konputazioaren zientzia eta ingeniaritza, Ekologia eta Lurraren zientziak.

VI.2. KULTURA ETA HIZKUNTZA-ANIZTASUNA

Argitaratutako informazioak maiztasun finkorik ez duenez, datu-iturriaren arabera azterketa egitea erabaki da, kontuan hartuta EAEn bi hizkuntza koofizial daudela eta hizkuntza eta kultura estuki lotuta daudela.

KULTURA ETA KIROL MINISTERIOA

Kultura-ohituen eta -praktiken inkesta (2024-2025 aldia). EAEn eta Estatuaren arteko konparazioa

Argitaratu diren azken datuek agerian uzten dute pandemiaren aurreko ohiturak berreskuratu direla. Izan ere, **kultura-jardueren gauzatze pasiboaren** ratioak berreskuratu egin dira, eta, gainera, jarduera horiek egiten dituzten 15 urtetik gorako pertsonen ehuneko handiagoa da EAEn Estatuan baino. Hala ere, **parte-hartze aktiboari** dagokionez (idaztea, margotzea, marraztea, argazkigintza, dantza/balleta, abesbatza batean kantatzea edo musika-tresna bat jotzea), gauzatze-ratioak txikiagoak izan dira EAEn Estatuan baino, eta 2025ean argitaratutako datuek joera berretsi dute.

Jarduera ekonomikoa: kultura-enpresak eta -enplegua. EAEn eta Estatuaren arteko konparazioa

EAEn, jarduera ekonomiko nagusia kultura izan zuten enpresen kopurua % 2,4 hazi zen 2023tik 2024ra, eta 9.385era iritsi zen. Enpleguak % 10,1 egin zuen gora, 34,7 mila lagunetik 38,2ra. Estatuan, aldi berean, enpresen kopurua % 1,6 hazi zen eta enplegua % 6,6.

EAEko kultura-enpresetan lan egiten duten 38,2 mila pertsona horiek EAEko enplegu osoaren % 3,9 osatzen dute; ratio hori Estatuako batezbestekoa baino handiagoa da (% 3,6). Kultura-enplegu gehien sortzen duten autonomia-erkidegoen sailkapenean EAE laugarrena da.

Autonomia-erkidegoetako administrazioek kulturean likidatutako gastua. EAEn eta Estatuaren arteko konparazioa

2023an Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak kulturean likidatutako gastua 179,3 milioi eurokoa izan zen (+% 17,3, 2022ko datuekin alderatuta). Estatuako autonomia-administrazioek 2023an kulturean likidatutako gastu osoaren % 10,2 da gastu hori, eta Eusko Jaurlaritzak urte horretan egindako gastu osoaren % 1,23. Gainera, gure erkidegoko BPGd-aren % 0,20 da, estatuko ratioaren gaineratik (% 0,12). Ceuta eta Melilla beren ezaugarriengatik alde batera utzita, Nafarroa bakarrik dago EAEn gaineratik.

EAEko biztanle bakoitzeko gastua 80,9 euro izan da 2023an, 2022an baino 10,7 euro gehiago. Kopuru hori Estatuako batezbestekoa (36,4 €) baino handiagoa da, eta, berriz ere, Ceuta eta Melilla beren ezaugarri bereziengatik alde batera utzita, Nafarroa soilik dago EAEn gaineratik.

Euskal etxeetan kultura-ondasun eta -zerbitzuetan egindako gastua, EAEn eta Estatuaren arteko konparazioa

Euskal etxeek kultura-ondasun eta -zerbitzuetan egindako gastua 603,4 milioi eurokoa izan zen 2024an. EAEko ondasun eta zerbitzuetan egiten den gastu osoaren % 1,8 da, Estatuako batezbestekoa (% 2,2) baino txikiagoa, eta EAE da bigarren gastu-ratiorik txikiena duena.

Etxeko batez besteko gastuari dagokionez, EAE hamahirugarren postuan dago autonomia-erkidegoen rankingean (638,6 euro).

Bestalde, pertsona bakoitzeko batez besteko gastuan, EAE hamaikagarren postuan dago (272,7 euro).

EAEn pertsona batek batez beste gastatzen dituen 272,7 euroetatik, % 34 kultura-zerbitzuetara bideratu zen (% 29,6 Estatuan), % 24 ikus-entzunezko euskarri, ekipo eta osagarrietara eta informazioaren tratamendura (% 27,9 Estatuan), % 21,4 liburu eta aldizkako argitalpenetara (% 13,8 Estatuan) eta gainerako % 20,5 telefonia mugikorrera eta Internetekin lotutako zerbitzuetara (% 28,6 Estatuan).

EUSKO JAURLARITZA. KULTURA SAILA ETA KULTURAREN EUSKAL BEHATOKIA

Euskal Autonomia Erkidegoko kultura-partaidetzari buruzko inkesta. 2024

EAEko herritarren kulturarekiko jarrerak

- Kulturari eskainitako denbora: 1etik 10erako eskala batean (0k “ezer ez” esan nahi du eta 10ek “asko”), liburuak edo aldizkariak irakurtzea (5,5) eta paseatzea eta erosketak egitea (5,8) izan ziren batez besteko puntuaziorik handiena lortu zuten jarduerak.
- Kulturarekiko jarrerak eta dauden kultura-oztopoak: elkarrizketatutako pertsonen % 91,8k adierazi zuen arteak eta kultura oso garrantzitsuak zirela gizarte hobea lortzeko. Parte-hartze kultural handiagoa izatea eragozten duten arazoak aipatzean, eskaintza mugatua (% 57,2) eta prezioa (% 51,7) nabarmendu ziren, konpainiarik ezaren (% 29,6) eta ezagutzarik ezaren (% 25,1) aurretik.

- Herritarrek inguruko kultura-eskaintzari buruz duten informazio-maila: 1etik 4rako balorazio-eskala batean (1 ez da ezer eta 4 asko da), batez besteko puntuazioa 2,6 izan zen.

2023an egindako hartzeko kultura-jarduerak eta 2018arekiko aldaketa

Horiek egiteko maiztasunari zeharka begiratu gero, lau multzo antzeman daitezke.

1. Elkarrizketatutako herritarren % 60k baino gehiagok egindako jarduerak:
 - Liburuak irakurtzea (azken urtean behin, gutxienez). % 75,9, 1,7 puntu gehiago.
 - Telebista ikustea (egunero). % 71,8, 9,5 puntu gutxiago.
 - Egunkariak irakurtzea (egunero edo astero). % 68,4, 9 puntu gutxiago.
 - Kontzertuetara joatea (gutxienez behin). % 64,8, 2,1 puntu gehiago.
 - Zinemara joatea (gutxienez behin). % 63,4, 5,8 puntu gutxiago.
2. % 40tik % 60ra bitarteko ehunekoak:
 - Antzerkira joatea (gutxienez behin). % 57,9, 12 puntu gehiago.
 - Irratia entzutea (egunero). % 56,5, 9,7 puntu gutxiago.
 - Museoetara joatea (gutxienez behin). % 54,2, 2,8 puntu gehiago.
 - Liburutegietara joatea (gutxienez behin). % 40,6, 1,4 puntu gutxiago.
3. % 20tik % 40ra bitartean:
 - Dantza-ikuskizunetara joatea (gutxienez behin). % 32,5, 1,9 puntu gehiago.
 - Aldizkariak irakurtzea (egunero edo astero). % 25,7, 7,3 puntu gutxiago.
 - Arte-galerietara joatea (gutxienez behin). % 24,5, 5,6 puntu gehiago.
4. % 20tik behera bideojokoetan jolasten dira. % 16, 7,2 puntu gutxiago.

Sormena: amateur mailako praktika artistikoak 2023an, eta 2018arekiko aldea

Hiru multzo hauek daude:

1. Jarduera sortzaileak egiten dituztenen % 20k baino gehiagok egindako jarduerak:
 - Eskulanak eta artisautza. Praktikarik hedatuena da (% 40,5). Hala zen 2018an, baina sei puntu handitu da (orduan % 34,2 zen).
 - Marraztea edo margotzea: % 29,2 (+4 puntu).
 - Idaztea: % 28,2 (9,4 puntu).
 - Argazkigintza: % 21,4 (+2,9 puntu).
 - Musika-tresna bat jotzea: % 20,8. (+1,9 puntu).
2. Jarduera sortzaileak egiten dituztenen % 10 eta % 20 artean egindako jarduerak:

- Dantza eta balleta: % 20 (-5,4 puntu)
- Bideoak editatzea: % 12,3 (+4,6 puntu).

3. % 10etik behera daude:

- Abesbatza edo musika talde batean kantatzea: % 8,8 (+1,8 puntu).
- Bestelako ikus-entzunezkoak: % 3,9 (+1,6 puntu).
- Antzerkia: % 3,1 (+3,3 puntu).
- Irakurle-kluba: % 3,9 (+0,7 puntu).
- Bertsolaritza: % 1,6 (+1,1 puntu).

Euskararen ezagutza EAEn

- Euskaraz hitz egiten dute: 2023an elkarrizketatutako biztanleen % 37,7k ondo edo nahiko ondo hitz egiten du euskaraz. Ratio hori 1,6 puntu handitu da 2018koarekin alderatuta, eta 8,3 puntu 2008koarekin alderatuta. Bestalde, % 25,1ek ez du ezer hitz egiten, eta ratioa 2018koaren antzekoa da (% 25,2).
- Euskara ulertzen dute: 2023an elkarrizketatutako biztanleen % 49,2k euskara ondo edo nahiko ondo ulertzen du. Ratio hori hobetu egin da 2018koarekin alderatuta (% 47,2). Bestalde, % 15,3k ez du ezer ulertzen; ratio hori ere 2018an erregistratutakoa baino handiagoa da (% 14,4).
- Irakurketa euskaraz: 2023an elkarrizketatutako herritarren % 37,7k ondo edo nahiko ondo irakurtzen du. Ratioa 2018an erregistratutako % 38,6ren azpitik dago.
- Euskaraz idaztea: 2023an elkarrizketatutako herritarren % 35,5ek ondo edo nahiko ondo idazten du. Ratioa 2018an erregistratutakoaren antzekoa da (% 35,7).

Euskarazko kultura-partaidetza eta euskarazko kultura-ohiturak 2023an, eta 2018arekiko aldea

2023an, elkarrizketatutako herritarren % 22,1ek euskarazko kultura-jardueretan parte hartu zuen (euskal hiztunen artean, % 51,6k egiten zuen). Bi ratioak 2018koak baino pixka bat handiagoak dira. Hona hemen azterketa zehatzago bat:

Euskarazko arte eszenikoen kontsumoaren bilakaera: antzerkia, musika eta bertsolaritza

Antzerkia euskaraz (arte eszenikoen ikusleen artean)

- % 33,2 euskarazko antzezlanen bat ikustera joan zen. (2018an, % 27,8).
- Euskal hiztunak soilik kontuan hartuta: % 57,5, 2018an baino 8,6 puntu gehiago.

Musika euskaraz

- Grabatutako musika entzun zutenen % 58,3k euskarazko musikariak edo musika-taldeak entzun zituen.
- Euskal hiztunak soilik kontuan hartuta: % 88,7, 2018an baino ia zazpi puntu gehiago.

	<p>Kontuan hartu behar da musika entzutea oso praktika hedatua dela eta, gainera, kasu horretan, hizkuntza ez dela oztopo gaindiezina.</p> <p><u>Bertsolaritza</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • % 19,6 joan zen bertso-saioren batera. 2018an baino ia 5 puntu gutxiago • Euskal hiztunak soilik kontuan hartuta: % 37,5. 2018an baino ia 2 puntu gutxiago
<p>Euskarazko ikus-entzunezkoen kontsumoaren bilakaera: zinema, irratia eta telebista</p>	<p><u>Zinema euskaraz</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Azken 12 hilabeteetan zinemara behin edo gehiagotan joan diren biztanleak kontuan hartuta: % 63,4. Ikusi nahi zuten filma euskaraz ematen zenean, % 27,7k bertsio hori aukeratu zuen, beti edo askotan. • Euskal hiztunak soilik kontuan hartuta: %41,6, 2018an baino 4 puntu gutxiago. <p><u>Irratia edo telebista euskaraz</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Komunikabideak kontsumitzen dituzten herritarren artean, euskarazko irratiak euskarazko telebistak baino audientzia handiagoa izan zuen. • Euskal hiztunen artean, hiru laurdenek entzuten zuten irratia euskaraz (% 74,9), eta hamarretik seik (% 59,6) ikusten dute telebista euskaraz. Euskarazko irratiaren kontsumoak bost puntu egin du gora 2018arekin alderatuta.
<p>Euskarazko irakurketaren bilakaera</p>	<p><u>Euskarazko liburuen irakurketa</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Irakurleen % 19,1ek euskarazko liburuak irakurri zituen, oso gutxitan, azken hiru hilabeteetan. Hala, 2018ko datuekin alderatuta, igoera bat izan zen, orduan % 13,5era iritsi baitzen. • Euskal hiztunen artean, euskarazko libururen bat irakurri dutenen ehunekoak ere behera egin du, % 45etik % 33,7ra <p><u>Euskarazko egunkari eta aldizkariak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Komunikabideetako kontsumitzaileen artean (lagin osoaren % 68,5) ohikoagoa da euskarazko aldizkariak irakurtzea euskarazko egunkariak irakurtzea baino (% 22,7 eta % 21,3, hurrenez hurren). 2018ko datuekin alderatuta, igoera batez ere aldizkarietan gertatu da. • Euskal hiztunak bakarrik kontuan hartuta, % 56,1ek euskarazko egunkariak irakurtzen ditu, eta % 52,4k euskarazko aldizkariak irakurtzen ditu (2018an ratioak % 48,8 eta % 44,6 izan ziren, hurrenez hurren).

EAEko kultura-programazioa

Kulturaren Euskal Behatokiaren “EAEko kultura-programazioaren azterketa” txostenak EAEko kultura-programazioaren egoera jasotzen du, [Kulturklik](#)-en informaziotik abiatuta; ekitaldien unibertsoa osoa da, eta ez lagin-mailakoa. Bereziki: kontzertuak, antzerkiak, erakusketak, dantza, bertsolaritza, jaiak, hitzaldiak, azokak, zinema eta ikus-entzunezkoak, ikastaro-tailerrak, lehiaketak, jaialdiak, zikloak eta beste batzuk.

Kulturklik agendan bildutako datuen arabera, 2024an 20.644 kultura-ekitaldi egin ziren EAEn, hau da, 2023an baino % 12,6 gehiago.

2024ko datuen arabera, kontzertuek ekitaldi guztien % 27,8 hartzen dute (5.743), 2023an baino % 3,1 gehiago. Sarreraren batez besteko prezioa 15,8 eurokoa izan zen, 2023ko 14,4 euroen aldean, eta doako kontzertuak % 49,1 izan ziren (2023an % 46,2). Kontzertuetako hizkuntzari erreparatu gero, ikusten da euskara izan zela EAEko musika-emanaldietan gehien agertu zen hizkuntza: kontzertuen % 26 euskaraz izan zen, gaztelaniazko kontzertuen (% 19,8) eta hizkuntzarik gabeko musika-emanaldien (% 17,8) aurretik. Era berean, kontzertu eleaniztunak (talde batek baino gehiagok parte hartzen duten musika-ekitaldiak dira gehienak, eta ez dute hizkuntza bera erabiltzen musika-errepertorioan) % 17 izan ziren, eta ingelesezko kontzertuen aurretik jarri ziren (% 10,9).

Antzerki-emanaldiak ekitaldi guztien % 21,4 dira (4.408), eta 2023an baino % 2,8 gehiago. Sarreraren batez besteko prezioa 15 eurokoa izan zen, 2023ko 13,2 euroen aldean, eta antzerki-emanaldien % 35,5 doakoa izan zen (2023an, % 31). Hizkuntzari erreparatuta, antzerki-emanaldien % 44,2 gaztelaniaz izan zen, eta % 40, euskaraz. Bestalde, emanaldien % 12,3 testurik gabe antzeztu zen (kasu gehienetan txotxongiloak, maskara-antzerkia, zirkua, kale-antzerkia...).

Zinemak eta ikus-entzunezko jarduerak ekitaldi guztien % 10,8 hartzen dute (2.231; 2023koekin alderatuta % 27,7 gehiago); hitzaldiek % 9,2 (1.900; % 57,3 gehiago); erakusketek % 6,1 (1.266; % 2,7 gehiago) eta bertso-saioek % 5,1 (1.062; % 0,5 gehiago).

Dantza-emanaldiek ekitaldi guztien % 4,4 hartzen dute (903). Sarreraren batez besteko prezioa 14 eurokoa izan zen (2023an, 14,1 eurokoa), eta emanaldien % 59,7 doan izan ziren (2023an, % 56,1).

Jarduera ekonomikoa. EAEko kultura- eta sorkuntza-industriak: liburuak eta prentsa, musika eta ikus-entzunezkoak eta multimedia. Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila. 2020tik 2023ra bitarteko bilakaera

Bilakaera esanguratsua —positiboa zein negatiboa— izan duten sektoreak hautatu dira.

- *Liburuen eta prentsaren sektorea*: sektorearen enpresen kopuruak % 9,8 egin du behera. Beherakada horrek sektorearen jarduerari (-% 12) zein jarduera osagarriari (-% 7) eragin die, eta horrek agerian uzten du balio-kate osoari eragiten dion krisia. Gainera, enplegua % 3,9 murriztu da, eta sektorearen berezko enpresei eragin die (-% 8,5); enpresa osagarrietan, berriz, hazi egin da (% 1,2).
 - Gaztelaniazko liburuen salmenta % 16,7 areagotu da, eta euskarazkoena, % 7.
 - Prentsak, berriz, % 80 egin du behera inprimatuen merkatuan, eta, horren ondorioz, harpidetza digitaleko ereduaren aldeko apustua egin dute hedabideek. Hala ere, eredu berri horiek ez dute lortu publizitate-sarreraren galera konpentsatzea, eta horrek ziurgabetasuna sortzen du sektorearen jasangarritasunaren inguruan.
- *Musikaren sektorea*: sektorearen enpresen kopurua handitu egin da (+% 7,4), eta 2023an 636 izatera iritsi da. Hazkunde hori izan arren, enplegua % 4 murriztu da, eta 63 lanpostu galdu dira.

- Ikus-entzunezkoen eta multimediaren sektorea: sektoreak bilakaera positiboa izan du, % 6,5 handitu baita enpresen kopurua, eta 2023an 1.611 izatera iritsi da. Hazkunde horrek eragin zuzena izan du enpleguan, % 15,8 handitu baita (944 enplegu gehiago), bereziki jarduera osagarrietan (+% 25,2).

VI.3. OSASUN ETA OSASUN-SISTEMA

Osasun Ministerioaren datuen arabera, **jaiotzerako bizi-itxaropena** (JBI) EAEn 2023an 84,69 urte (81,81 gizonak eta 87,4 emakumeak) izan zen, hau da, Espainiako batezbestekoen gainetik: 83,9 urte (81,12 gizonak eta 86,59 emakumeak). Bakarrik bi herrialdek zuten Espainiak baino JBI handiagoa (Japoniak eta Suitzak).

Azken hamarkadetan, bizi-itxaropena gehitu egin denez, adin aurreratua dutenek gehikuntza erlatiboa izan dute eta horrek ondorio handiak sortzen ditu osasunean eta gizartean. Izan ere, herritar batek bizitzen dituen urte guztiak ez ditu osasun bikainarekin bizitzen. Horregatik, biztanleriaren hilkortasuna ez ezik, erikortasun- edo desgaitasun-esperientzia aintzat hartzen dituzten osasun-adierazleak garrantzitsuak dira. Adierazle horien artean daude **bizitza osasuntsuko urteak** (BOU) edo **jarduera oso mugatuarekin bizitako urteak** (AVL).

Ministerioaren datuen arabera, 2023an EAEn jaiotako itxaropena zen 80,12 urtez osasuntsu bizitzea (83,06 emakumeak eta 76,82 gizonak); hau da, emakume euskaldunek jaiotzen zirenetik gizonek baino 6,24 urte gehiago bizitzeko itxaropena zuten.

EAEn eta Espainian emakumeen aldeko diferentzia aztertutako aldi osoan ikusten da (2006-2023), baina 2019 eta 2022 artean murrizketa gertatu zen. Urte horietan diferentzia hori murriztu izanak adierazi lezake gutxitze erlatibo txikiagoa dagoela emakumeak hiltzeko arriskuan gizonenarekin konparatuta. Gainera, kontuan hartu beharko litzateke baita ere urte horietan zeharreko jarduera-mugaketaren prebalentziaren bilakaera. Hala, EAEn, jarduera oso mugatuarekin bizitako urteak 2,6 ziren 2018n, 4,6 2019an, eta 4,3 2022an eta 2023an. Gizonen artean, aldiz, 2,3 urte izan ziren 2018an, 1,8 2019an, eta balio horren inguruan mantendu ziren urte batzuetan eta 2023an 5 urtera igo zen.

EAEn, "EAEko 2024ko heriotza-tasaren inguruko txostenean" jasotako datuen arabera, 2013an **Europako biztanleria estandarrari adinaren arabera doitutako heriotza-tasa** 727 izan zen 100.000 biztanleko (562,3 emakumeak eta 958,2 gizonak); ratio horiek oso txikiak izan ziren 2023koekin alderatuta (742,5 heriotza 100.000 biztanleko —569,7 emakumeak eta 994,0 gizonak—). Espainian, Osasun Ministerioak idatzitako "2024ko Osasun Sistema Nazionalaren Urteko Txostenaren" datuen arabera, 2023an adinaren arabera doitutako heriotza-tasa 780,2 izan zen 100.000 biztanleko (985,7 gizon eta 620,6 emakume), hau da, % 7,2 jaitzi zen 2022rekin konparatuta eta % 14,9 2020rekin alderatuta.

Bere aldetik, Eustaten "Heriotzen estatistikak" dio 2023 eta 2024 artean EAEko heriotza-kopurua % 0,4 gehitu zela, 22.311 heriotzatik 22.392 heriotzara. % 49,1 gizonak izan ziren eta % 50,9 emakumeak. 2024an hildako pertsonen batez besteko adina 81,7 urtekoa izan zen, eta hamar urte lehenago, 2014an, 79,3 urtekoa; hau da, 2,4 urteko igoera izan da azken hamarkadan.

Heriotza-kausei helduta, lehenik tumoreak daude (gutzizkoaren % 27,7), bigarrenik zirkulazio-aparatuko gaixotasunak (% 25,5) eta hirugarrenik arnas-sistemako gaixotasunak (% 8,3).

Eusko Jaurlaritzaren "2024ko EAEko hilkortasunari buruzko txostenean" jasotako datuen arabera, Eutanasiaren Legea (martxoaren 24ko 3/2021 Lege Organikoa) indarrean jarri zenetik, EAEn 133 egoiliar hil dira eutanasia-prozeduraren bidez. Emakumeen batez besteko adina 72,9 urte izan zen eta gizonena, 70,3. Tumoreak izan ziren hiltzeko laguntza medikoa jaso zutenen arteko kausarik ohikoena eta gero nerbio-sistemako gaixotasunak.

Heriotza goiztiarrei dagokienez, emakumeen artean azken urteetan bizitzako urte potentzial gehien galarazi duten hiru kausa espezifikoak trakeako, bronkioetako eta biriketako tumore gaiztoak, bularreko tumore gaiztoak eta suizidioak eta autolesioak izan ziren. Gizonen artean, aldiz, trakeako, bronkioetako eta biriketako tumore gaiztoak, suizidioak eta autolesioak eta miokardioko infartu akutua izan ziren.

Ospitaletako erikortasunari dagokionez, EUSTATen arabera, 2024an EAEko ospitaleek 255.417 ospitaleratze zenbatu zituzten, aurreko urtean baino % 2,7 gehiago, alegia, estatu osoaren % 5,1, 2023ko eta 2022ko ehuneko berbera. EAEn egindako arreten % 84,3 ospitale publikoetan eman ziren; estatuko batezbestekoa (% 72,8) baino ehuneko 11,5 puntu gehiago, eta Espainiako 17 autonomia-erkidegoetatik 11ren aurretik. Horien artean daude Katalunia (% 52,3), Madrilgo Erkidegoa (% 67), Andaluzia (% 73,6), Valentziako Erkidegoa (% 78,6), Galizia edo Asturias (kasu bietan, % 81,1).

Digestio-, arnas-, eta zirkulazio-gaixotasunak izan ziren ospitaleratze-kausarik ohikoena EAEn eta Espainian. Emakumeen artean, lehenengo aldiz, arnas-sistemako gaixotasunek (% 12,6) eta digestio-sistemakoek (% 11,4) haurdunaldien, erditzeen eta puerperioen (% 11,2) taldea gainditu zuten; azken hori orain arte lehenengoa izan zen. Espainian, hala eta guztiz ere, azken talde horrek ohikoena izaten jarraitu zuen (% 14,1).

Ospitaleratze bakoitzaren batez besteko egonaldia pixka bat gutxitu zen (8 egunetik 7,9 egunera), Espainiakoarekin bat etorritik, eta gizonen artean handiagoa izan zen (8,4 egun) emakumeen artean baino (7,3 egun). Nahasmendu mentalen eta portaeraren nahasmenduen taldea bereizi egiten da gainerako gaixotasun-taldeetatik, patologia batzuen ospitaleko egonaldiaren iraupen luzeagatik (eskizofrenia, nahasmendu eskizotipikoak eta delirio-nahasmenduak). Talde horrek bakarrik ospitaleratzeen % 29 osatu zuen eta egonaldi-egunen batezbestekoa 78,3 izan zen.

Haurdunaldien Borondatezko Etetei (HBE) dagokienez, Interbentzioen Erregistroaren datuen arabera, EAEko egoiliarrek 4.210 HBE izan zituzten (4.152 EAEko zentroetan egin ziren eta 58 beste autonomia-erkidego batzuetako zentroetan). Modu horretan, adin ugalkorra (15-44 urte) duten EAEko 1.0000 emakume egoiliarreko ratioa 11,8 izan zen, hau da, aurreko urtekoa baino pixka bat txikiagoa (11,9) eta estatuko batezbestekoaren azpitik (12,4).

Bere aldetik, Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera, EAEn 4.228 HBE egin ziren (4.152 EAEn bizi ziren emakumeei eta 76 beste autonomia-erkidego batzuetako emakume egoiliarrei egin zitzaizkien). EAEko emakume egoiliarren 4.210 HBE guztiak zentro pribatu batean egin ziren (4.028: % 95,7), baina informazioa osasun-zentro publikoetan eman zitzaizen kasu batzuetan (3.279: % 77,9).

Osasun mentalari, psikotropikoen kontsumoari eta adiktiboak izan daitezkeen jokaerei lotuta hauek dira datuak:

Osasun Ministerioaren datuen arabera, 2023an **nahasmendu mentalen prebalentzia** (hori kalkulatzeko lehenengo mailako arretan dauden eta nahasmendu mentalak erregistratuta dituzten pertsonen kopurua eta ⁴⁰ lehen mailako arretara esleitutako osasun-txartel indibiduala duten pertsonen kopurua kontuan hartzen da) EAEn % 19,8 izan zen (% 25,2 emakumeak eta % 14,1 gizonak); ratio horiek estatuko batezbestekoen gainetik zeuden (% 17,9: % 22,8 emakumeak eta % 12,7 gizonak). Denbora-ikuspegiaren datuek gorako joera nabarmena dute.

Jarrera autolitikoen gertaeren inguruan (norbaitek bere buruari kalte fisikoak egiteko gauzatzen dituenak), Eusko Jaurlaritzako datuek diote gehitzen doazela eta nerabeek zein helduek izaten dituztela.

⁴⁰ Historial klinikoan diagnosi hauetakoren bat duten guztiak sartzen dira (CIAP2 kodeak): Estres akutua (P02), eskizofrenia (P72), psikosi afektiboak (P73), antsietate-trastornoak/antsietate-egoerak (P74), somatizazio-/konbertsio-trastornoak (P75), depresio-trastornoak (P76), fobia/nahaste konpultsiboa (P79), trauma osteko estresa (P82), P02 edo P82 (P82/02) kodeen barne ez dagoen psikoeogokitze-erreakzioak eta zehaztu gabeko beste psikosi batzuk (P98).

“Euskadiko 2023ko adikzioei buruzko inkestaren” arabera, **kalamua bizitzan noizbait** kontsumitu dutenen prebalentzia gehitu egin da 2017 eta 2023 artean, % 39tik % 44,2ra. “1995-2024 artean Espainiako alkoholari eta drogei buruzko inkestak (EDADES)” autonomia-erkidegoen arabera analiza egiten du eta hauek dira datuak: EAE da bizitzan noizbait kalamuaren kontsumoaren prebalentzia handiena duen hirugarren autonomia-erkidegoa, eta ratioa estatuko batezbestekoaren gainetik dago: % 54,9 eta % 43,7.

Azken hamabi hilabeteetako, azken 30 egunetako edo eguneroko kontsumoaren inguruan galdetuta, joera beheranzkoa da. Hala, “Euskadiko 2023ko adikzioei buruzko inkestaren” arabera, 2017 eta 2023 artean, azken hamabi hilabeteetan kalamua kontsumitu zutela zioten 15 eta 74 urte bitarteko biztanleen ehunekoa % 8,6tik % 8,1era jaitsi zen, azken 30 egunetan kontsumitu zutela ziotenen ehunekoa, berriz, % 4,9tik % 4,1era, eta egunero kontsumitzen zutela baieztatu zutenena % 2tik % 1,5era.

Sexuaren arabera berezita eta azken 30 egunetako kontsumoari dagokionez, gizonek gehiago kontsumitzen dute emakumeek baino. Hala, 2023an 15-74 urte arteko gizonen % 5,5ek baieztatu zuten azken 30 egunetan kalamua kontsumitu zutela eta emakumeak % 1,7 izan ziren. Gizonen % 2,2k esan zuten egunero kontsumitzen zutela eta emakumeen % 0,6k.

Azken hamabi hilabeteetako autonomia-erkidegoetako kontsumoari dagokionez, analisiak dio EAE prebalentzia handienak dituztenetatik urruti dagoela. Hala eta guztiz ere, EAEko % 14,1eko datua Espainiako batezbestekoaren (% 12,6) gainetik zegoen. Autonomia-erkidego guztietan gizonek emakumeek baino gehiago kontsumitzen dute.

Zigarro elektronikoen kontsumoari dagokionez, “2023ko Euskadiko zigarro elektronikoen kontsumoaren” txostenak dio erretzeko gailu elektronikoen prebalentzia hazten doala. Bere aldetik, “2023ko Euskadiko adikzioen inkestaren” arabera, gailu horiek erakargarriagoak dira gazteentzat. Izan ere, azken 30 egunetan erabili zituztenen %58,1ek 15-34 urte artean zituzten.

Joko patologiko posiblearen prebalentziaren inguruan, azken hamabi hilabeteetan Euskadin astero jokatu zutenen 15 urtetik gorakoen ehunekoa % 2 izan zen. Sexuaren arabera analizatuta, argi dago joko patologikoaren prebalentzia gizonen artean gertatzen dela eta ez emakumeen artean. Adin-taldean arabera, arrisku handiena gazteenek dute, hau da, 15-34 urtekoek (% 5,8), eta gero 35-54 urtekoek (% 4,2). 55 urtetik gorakoen arriskua nulua da.

Jarraian, Osakidetzaren inguruan, **baliabideen eta asistentzia-jardueraren adierazle** batzuk azalduko ditugu, Osakidetzaren jarduera-memoretatik abiatuta.

2024an, **Osakidetzaren egiturazko plantilla** 32.536 pertsonen osatzen zuten (+% 4,6 2023rekin alderatuta). Zuzendaritzako karguen kopurua egonkor mantendu zen (94 pertsona). Medikuek eta bestelako lizentziaturak dituztenek % 3,7 egin zuten gora (8.099 pertsona), erizainek eta bestelako diplomadunek % 2,93 egin zuten gora (10.157 pertsona), eta beste lanbide-talde batzuetako langileek % 6,5 (14.186 pertsona). Langile berriei dagokienez, emakumeen presentziak gehiengoa izaten jarraitzen du, batez ere erizain egoiliarren artean (% 94,3).

Asistentziak, ospitaleratzeak eta esku-hartzeak 2024an eta aldakuntza 2023rekin konparatuta:

- **Lehen mailako arreta:** kontsultak gutxitu egin ziren 2023 eta 2024 artean.

2024an, Osakidetzako lehen mailako arretako osasun-profesionalek (familiako medikuntza, pediatria, erizaintza, emaginak eta odontologia) 18,8 milioi kontsulta artatu zituzten (-% 0,7), 2021ean baino % 20,9 gutxiago.

Profesional bakoitzaren eguneko kontsulta-kopuruak orokorrean beheranzko joera arina du. Familia-medikuntzaren kasuan helburura hurbiltzen da (eguneko gehienez ere 30 kontsulta).

- **Ospitaleko arreta:** kontsultak gehitu egin ziren 2023 eta 2024 artean.

Ospitaleko arretako profesionalek 7 milioi kontsulta artatu zituzten 2024an (+% 5,6). 2024ko datuak 2021ekoekin alderatuta, ospitale-arretako profesionalek 2021ean baino % 4,8 kontsulta gutxiago artatu zituzten.

- **Kontsulta presentzialak eta ez presentzialak lehenengo mailako arreta eta ospitale-arretan**

- **Lehen mailako arreta:** kontsulta presentzialek gehitzen jarraitzen dute eta ez presentzialek (telefonoa, online...) gutxitzen. Telefonoz egindako kontsultak % 15 gutxitu ziren 2023tik 2024ra. Telefono-kontsulten ratioa kontsulta guztiekin alderatuta % 26,7tik % 22,9ra igaro da.
- **Ospitale-arreta:** kontsulta presentzialak gehitu egin dira, baina ez presentzialak ere bai. Telefonoz egindako kontsultak % 5,6 gehitu ziren 2023tik 2024ra. Hala eta guztiz ere, telefono-kontsulten ratioa kontsulta guztiekin alderatuta % 11,1n mantendu da.

- **Ospitaleratze-altak** ⁴¹: % 5,3 gehitu ziren akutuen ospitaleetan eta % 2,5 epe luze eta ertainekoetan.
- Osakidetzak bestelako **ospitaleratze-alternatiben** alde egiten jarraitzen du, hala nola etxeko ospitaleratzeak eta eguneko ospitale medikoak. 2024an 12.742 paziente artatu zituzten etxean, 2023an baino 489 gehiago, eta batez besteko egonaldia 15,5 egunekoa izan zen. Bere aldetik, eguneko ospitale medikoak 2024an 348.475 prozedura izan zituen, hau da, % 8,7 gehiago.
- **Ebakuntza kirurgikoak:** % 5,4 egin zuten gora, eta horrek esan nahi du jarduera berreskuratu egin zela.
- Prozedura ez-kirurgikoez eta konplexutasun handikoez ⁴² goranzko joera izaten jarraitzen dute (+% 10,8). Oftalmologiaren arloan egindakoak dira nagusi (gutzizkoaren % 55, % 10,9ko hazkundearekin).
- **Diagnosirako proba osagarriak:** gehitzen jarraitzen dute (% 7,8). Gehikuntza handiena egindako erresonantzia da (+% 16,2).

2024ko **itxarote-zerrendak** eta 2023arekiko aldakuntza:

- **Kirurgiako itxarote-zerrendak:** Osakidetzaren arabera, 2024 bukaeran 23.286 paziente zeuden itxarote-zerrendetan (2023an baino +1.200). Batez besteko atzerapen-egunak 62tik 59ra igaro ziren. Hala, itxarote-zerrendetan paziente gehiago dauden arren, ebakuntzetarako batez besteko denbora gutxitu egin da.

Osasun Sistema Nazionalaren (SISLE-SNS) itxaron-zerrendei buruzko Informazio Sistemaren arabera, 2023ko abenduaren 31ko datuekin, osasun-txartela duten 1.000 biztanleko premiazkoak ez ziren kirurgiako itxaron-zerrendetan zeuden pazienteen kopurua txikiagoa zen EAEn estatuko batezbestekoarekin alderatuta (10,16 eta 17,8). EAEk du ratio txikiena autonomia-erkidegoen sailkapenean. EAEko batez besteko itxarote-denbora 59 egun da, autonomia-erkidegoen artean bigarren posizioan. Ebakuntza egiteko sei hilabete baino gehiago itxaron behar duten pazienteen ehunekoa % 1,3koa da EAEn, estatuko batezbestekoa (% 22,9) baino txikiagoa. EAE da bigarren ratorik txikiena erregistratzen duen autonomia-erkidegoa.

- **Itxarote-zerrendak kanpoko kontsultetan eta proba osagarrietan.** Osakidetzaren arabera, atzerapen-egunak 82,2tik 59,7ra gutxitu ziren kanpo kontsultetan. Jaitsiera hori zerrendetan paziente gutxiago egotearekin ere lotzen da, zehazki, 2023an baino % 10,7 gutxiago. Bere aldetik, proba osagarri bat egiteko batez besteko itxarote-denbora 16,7 egun izan zen, aurreko urtean baino 0,7 egun gutxiago. Zerrenda horretako pazienteak 336 gutxiago izan ziren.

⁴¹ *Alta emateak esan nahi du pazienteak, ospitaleratu, behatu edo tratatu ondoren, ospitalea utzi duela sendatu delako, hil egin delako edo beste arrazoi batzuegatik.*

⁴² *Ebakuntza-gelatik kanpo egiten dira eta ez dakarte ospitaleratzetik.*

Osasun Sistema Nazionalaren (SISLE-SNS) itxaron-zerrendei buruzko Informazio Sistemaren arabera, 2024ko abenduaren 31ko datuekin, osasun-txartela duten 1.000 biztanleko lehen kontsultarako itxaron-zerrendetan zeuden pazienteen kopurua txikiagoa zen EAEn estatuko batezbestekoarekin alderatuta (30,2 eta 83,21). EAEk du bigarren ratorik txikiena autonomia-erkidegoen sailkapenean. EAEn itxaroteko batez besteko denbora 43 egun izan zen, Espainiako batezbestekoaren azpitik (105 egun). EAEk du ratio txikiena autonomia-erkidegoen sailkapenean. Arreta jasotzeko zain 60 egunetik gora dauden pazienteen ehunekoaren harira, ratioa EAEn % 21,9koa da, estatuko batezbestekoa (% 62,3) baino txikiagoa. EAE da ratorik txikiena erregistratzen duen autonomia-erkidegoa.

Osakidetzako **ospitalez kanpoko osasun mentaleko** sarearen jarduerak gehitzen jarraitzen du bai emandako altakopuruan, bai eta egindako kontsulten eta prozeduren kopuruan ere. Hala, artatutako pazienteen kopurua 2024an 109.000 ingurukoa izan zen, altak % 2,3 igo ziren eta egindako kontsulten eta prozeduren kopurua % 2,7 gehitu zen eta 1.166.799 izatera iritsi ziren. **Ospitaleetan** altak ia % 8 gutxitu ziren 2023 eta 2024 artean.

Larrialdietako zerbitzuak kudeatzen duen Osasun Aholkuko erizainen taldeak jasotako dei-kopurua % 9,3 gehitu zen eta 220.000 baino gehiago izan ziren. Jardueraren gehikuntza orokor horren barnean, programatutako jarduera (paziente kronikoen, paziente aringarrien, kirurgia handi anbulatorioaren osteko alten, paziente pluripatologikoen, arnas-gaixotasunak dituztenen, bihotz-gutxiegitasuna dutenen eta abarren jarraipena) % 9,2 gehitu da.

Bestalde, Suizidioari arreta emateko 2022ko programa abian jarri ondoren, suizidio-saiakeren ondoren kontseiluak egindako deiak gehitu egin ziren (% 35 2023tik 2024ra).

Jarraian, **osasun-sistemaren gastua eta finantzaketa** aztertuko ditugu.

Eusko Jaurlaritzaren 2024ko aurrekontu-likidazioak erakusten du Osasun Atalaren gastu-aurrekontua aldatu egin zela, 4.983,9 milioi eurotik 5.252 milioi eurora. Azkenean, Osasun Atalean egindako gastua 5.219,8 milioi eurokoa izan zen. Baliabideen ehunekoari dagokionez, lehenengo tokian geratu zen, gastu osoaren % 35 eta BPGd nominalaren % 5,3, 2023ko ratio berbera. *Finantzaketa eta Kontratazio Sanitarioko (programa nagusia Osakidetzari egindako transferentziei dagokie) eta Farmaziako* programek guztizko gastu likidatu ia osoa hartzen dute (% 98,1). Finantzaketak eta Osasun Kontratazioak % 86,9 eta Farmaziak % 11,2.

Aurrekontuan jasotako zenbateko osoaren eta benetan egikaritutakoaren arteko desbideratzeari dagokionez, Osasun Atalean likidatutako gastua (5.219,80 milioi €) aldatutako aurrekontua (5.251,98 milioi €) baino txikiagoa da, eta horrek 32,2 milioi euroko beheranzko desbideratzea dakar.

Bestalde, 2025erako berariaz sanitarioak diren partiden gastuen aurrekontua 5.119,4 milioi eurokoa da (+% 2,7 2024an hasieran aurrekontuan sartutako gastuaren aldean). Gastu hori BPGd nominalaren % 5 da, 2024an aurrekontuen arabera erregistratutako ratioa baino apur bat baxuagoa.

Finantzaketa eta Osasun Kontratazioa programaren partida nagusia Osakidetzaren eta Osateken kontratu-programakoa den arren, programa horretan daude baita ere **osasun-itunak**. Euskal autonomia-erkidegoko sektore publikoko urteko kontuen arabera, *Osasuneko kanpoko zerbitzuak: Osakidetzaren eta Osateken kontratu-programa* partidak 2024an 3.889,7 milioi euro izan zituen, 2023ko 3.671,7 milioi euroak baino gehiago. Modu horretan, partida horren gastua % 5,9 gehitu zen. Bere aldetik, *Osasuneko kanpo zerbitzuak: osasun-itunak* partidak 2024n 268,2 milioi euro izan zituen, 2023ko 236,6 milioi euro eta 2022ko 228,2 milioi euro baino gehiago. Hala, osasun-itunen gastua % 13,3 gehitu zen 2023 eta 2024 artean. 2025erako gastuen aurrekontua 3.679.999 milioi eurokoa da Osakidetzaren eta Osateken programarako (+% 4 2024ko aurrekontuarekin konparatuta) eta 265.325,3 milioi euro osasun-itunen kasuan (+% 6,3 2024ko aurrekontuarekin alderatuta).

Osasun Ministerioaren datuen arabera, 2023an, autonomia-erkidegoen sektoreko osasun-gastu publiko finkatua 91.004 milioi euro izan zen, BPGd-ren % 6,1. Sektorearen osasun-gastu publikoaren % 46,2 hiru autonomia-erkidegok sortu zuten (Katalunia, Andaluzia eta Madrilgo erkidegoa). Biztanleriarekin lotuta, osasun-gastu publiko handiena duten autonomia-erkidegoak EAE (2.208 €/biztanleko), Asturias (2.182 €/biztanleko) eta Murtzia (2.134 €/biztanleko) dira. Estatuko batezbestekoa 1.890 euro da biztanle bakoitzeko. Bestalde, Extremaduran (% 8,9), Murtziako Erkidegoan (% 8,2) eta Kanarietan (% 8,1) izan ziren osasun-gastuaren ehunekorik handienak BPGd-ren gainean. EAEk % 5,6 erregistratu zuen. Madrilgo erkidegoak (% 4,1) eta Balear Uharteek (% 5,3) izan zituzten ratorik baxuenak.

Osakidetzak 2024an egindako **gastua**, bere “Auditoretza Txostena, Urteko Kontuak eta Kudeaketa Txostenaren” arabera, 4.109,6 milioi eurokoa izan zen, hau da, % 5,7ko igoera 2023tik 2024ra bitartean. BPGd nominalaren % 4,18 da, eta ratioa 2023koa baino 1 ehunen handiagoa da. Igoera hori, osorik, ustiapen-gastuen gehikuntzagatik gertatu da, inbertsioek % 6,3 egin baitzuten behera. Likidatutako guztizkoaren % 96 ustiapen-gastuei dagokie, eta % 4 inbertsioei.

Likidatutako ustiapen-gastuak 3.945,2 milioi eurokoak izan ziren, hau da, % 6,3ko igoera 2023ko likidazioarekin alderatuta. Langileen gastuak (soldatak eta gizarte-kotizazioak), ustiapen-gastuen % 66,8 eta 2.636,2 milioi euro izan ziren eta aurreko urtearen aldean % 4,5 gehitu ziren. Funtzionamendu-gastuak 1.305,5 milioi eurokoak izan dira, hau da, aurreko aldian baino % 10,3 gehiago.

Aurrekontuan jasotako zenbatekoaren eta 2024an benetan egikaritutakoaren arteko desbideratzeari dagokionez, likidatutako gastua aurrekontukoa baino handiagoa da (+6,7 M€), eta ustiapen-gastuei (+14,5 M€) dagokie, inbertsioak murriztu egin baitira (-8 M€).

Amaitzeko, gogoratu egin nahi dugu Eusko Jaurlaritzak 2024ko irailean bultzatutako akordio estrategikoa (**Osasun Ituna**). Lehendakariak sustatu zuen eta Osasun Sailak koordinatu zuen, Euskadiko osasun-sistema publikoa eraldatzeko eta epe ertain eta luzera kalitatezko arreta iraunkorra eta bidezkoa bermatzeko. Hauek dira itunaren helburuak:

- Biztanle guztien eskuragarritasun unibertsala.
- Laguntzaren kalitatea etengabe hobetzea eta osasun-arretan bikaintasuna sustatzea.
- Sistemaren jasangarritasuna, etorkizunean sistemaren bideragarritasuna ziurtatzen duten neurrien bidez.
- Herritarren partaidetza, besteak beste, herritarrek ahotsa izatea osasun-politiken inguruko erabakiak hartzen direnean, oinarritzat hartuta gardentasuna eta administrazioaren eta herritarren arteko elkarriketa.
- Osasuna prebenitzea eta sustatzea, ohitura osasuntsuak bultzatzen dituzten eta osasunaren gizarte-determinatzaileetan eragiten duten politikak sustatuz.
- Beharrezkoa da osasun-profesional nahikoak izatea eta lanean eta gizartean konprometituta eta aitortuta egotea.

VI.4. ETXEBIZITZA

Lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzaren “*Higiezin salerosketa-estatistikak*” dio 2025ean EAEn **etxebizitza 26.326 salerosketa** erregistratu zirela, 2024an baino % 13,9 gehiago eta 2015ean baino % 86,4 gehiago. Hauxe da lurralde-banaketa: salerosketen % 52 Bizkaian egin ziren (+% 14, 2024arekin alderatuta), % 32,1 Gipuzkoan (+% 14,3) eta

% 15,9 Araban (+% 13,1). Etxebizitza motari dagokionez, 2025eko laugarren hiruhilekoko salerosketen % 71,4 etxebizitza libre erabiliak dira (ehuneko -3,4 puntu 2024aren aldean), % 20,2 etxebizitza libre berriak (+4,4 puntu), % 6,7 etxebizitza babestu erabiliak (+1,4) eta gainerako % 1,7 etxebizitza babestu berriak (-2,4 2024aren aldean).

Metro koadroko prezioari dagokionez, etxebizitza librearen prezioa 3.295 €/ m². izan da 2025ean, 2024an baino % 8,2 gehiago Erabilitako etxebizitza libreetan, 3.247,7 euro/ m². izan da prezioa (+% 8,5, 2024koaren aldean), eta etxebizitza libre berriena 3.516,8 euro/ m². (+% 6,3). Etxebizitza babestuaren prezioa, berriz, 2022tik 2.000 €/ m²-tik gorakoa da, eta 2025ean 2.487,6 €/ m²-ra igo da, aurreko urtean baino % 13,2 gehiago.

EAEko **etxebizitza libreen** salerosketen **batez besteko prezioa** 276.277 eurokoa izan da 2025ean, aurreko urteko batezbestekoa baino % 7,9 gehiago. Lurraldeka, Bizkaian % 10 igo dira prezioak, eta Gipuzkoan eta Araban, berriz, % 5,8 eta % 7 igo dira, hurrenez hurren Ondorioz, prezioak 308.197 euro (Gipuzkoa) eta 240.189 euro (Araba) artekoak dira, eta Bizkaia tartean dago, 265.733 euro etxebizitza bakoitzeko batez beste.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailak **Alokairuaren Merkatuaren Estatistika** (AME) egiten du, EAEko alokairuaren merkata aztertzeko. Eragiketa hori Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legetik aurrera sortutako erregistroetan gordailututako fidantzetan oinarritzen da eta, beraz, nahitaezkoa da hiri-errentamenduen kontratuak erregistratzea eta etxebizitzak alokatzeko kontratuen fidantzak gordailutzea Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak Eusko Jaurlaritzan duen ordezkaritza bakoitzean.

AMEk egiaztatu duenez, 2025eko irailaren 30ean (eskuragarri dagoen azken datua) alokairu libreko 89.445 kontratu zeuden erregistratuta Eusko Jaurlaritzaren fidantza-gordailuan (merkatuko prezioan), 2024an baino % 1,8 gehiago. Horietatik 2.730 sasoiko etxebizitzak dira, eta duten berezitasunagatik, analisi honetatik kanpo geratzen dira. Era berean, ikerketa honetan ez dira aintzat hartzen familia bakarreko etxebizitzetako dagozkien 1.647 kontratuak, ohiko etxebizitza erabilera izan arren, ezaugarri bereizgarriak direla-eta, berariazko analisi bat egitea merezi baitute. Beraz, alokairu libreko 85.068 kontratutan ezarrita dago Eusko Jaurlaritzak AMEri buruz egindako txostenak aztertzen duen stocka: ohiko etxebizitzarako egoitza erabilera duten eta alokairu libreko kontratuak 2025eko irailaren 30ean indarrean zituzten eraikin kolektiboetan kokatutako etxebizitzak; 2024ko irailean baino % 2,1 gehiago. Lurraldeka, alokatutako etxebizitzak % 14,2 Araban daude (12.089 fidantza), % 35,7 (30.366 fidantza) Gipuzkoan, eta gordailu- kopuru handiena (42.613 fidantzari dagozkien % 50,1) Bizkaian dago.

2025eko hirugarren hiruhilekoan eraturako fidantzek 869,7 €-ko batez besteko errenta lortu dute, hau da, urte arteko % 4,2ko igoera. Hala ere, eraikitako m² bakoitzeko prezioa kontuan hartuz gero, 2024ko hirugarren hiruhilekoan 11,2 €/m² izatetik 2025eko aldi berean 10,8 €/m² izatera jaitsi da (-% 3,6).

Etxebizitza libreen salerosketa-prezioei dagokienez, Garraioak eta Mugikortasun Jasangarriko Ministerioak etxebizitza libreen (berriak eta bigarren eskukoak) higiezinaren transakzioen batez besteko balioak kalkulatzeko Notariotza Estatistikak emandako informazioarekin, eta horrekin, **autonomia-erkidegoen arteko** konparazioak egin daitezke.

2025ean EAEn saldutako etxebizitza libreen batez besteko balioa, notario-erregistroetan agertzen denez, 266.621 eurokoa izan zen, 2024an baino % 9 gehiago eta estatuko batezbestekoa (210.630 euro) baino % 26,6 gehiago (+% 8,8). Oro har, preziorik altuenak Balearretan eta Madrilgo Erkidegoan daude, eta baxuenak Extremaduran, Gaztela-Mantxan eta Gaztela eta Leonen. Eraikuntza berriko etxebizitzak bakarrik kontuan hartzen baditugu, EAEko datua 344.021 euroraino igotzen da, 2024an baino % 18 handiagoa. Zifra hori (behin-behineko datuekin) estatuko batezbestekoa (290.022 euro) baino % 18,6 handiagoa da, azken urtean % 0,7 igo baita. Erabilitako etxebizitzari dagokionez, EAEko batez besteko balioa, 2025ean, 258.135 eurokoa da, 2024an baino % 8,7 gehiago. Estatuko datua 203.105 da (+% 10,1), eta, beraz, bien arteko aldea da nabarmena, % 27,1koa.

Eraikuntza-jarduerari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Behatokiak dio COVID-19aren pandemia gertatu zen 2020. urtean 4.191 etxebizitza eraikitzen hasi zirela, aurreko urtean baino % 33,1 gutxiago, eta 2021ean tasa positiboetara itzuli ziren (+% 13,1), babestutako etxebizitzaren eraikuntza-kopurua berreskuratu zelako, eta joera hori 2022an mantendu zen (+% 20,6). 2023an, hasitako etxebizitza guztiak % 0,1 baino ez ziren hazi, 2024an % 3,3ko jaitsiera erregistratu zen, eta 2025ean, azkenik, jaitsiera % 19,2koa izan da, 4.468 unitateraino, zeren eta hasitako etxebizitza libreak (-% 10,2, 2024arekin alderatuta) eta, batez ere, babestuak (% 33,9) murriztu baitira. Hasitako guztiakin alderatuta babestutako etxebizitzaren ehunekoa gehitzen joan zen 2022ra arte; orduan % 39,1 zen. 2025ean, hasitako etxebizitzaren % 31,2 osatzen dute (2024an baino 6,9 puntu gutxiago).

Bestalde, EAEn 2025ean amaitutako etxebizitzak 4.237 izan dira, aurreko urtean baino % 9 gutxiago, amaitutako etxebizitza libreen segmentuan izandako gorakadaren ondorioz (+% 13), babestutako etxebizitzak % 39,5 jaitsi baitira. Zifra horien ondorioz, etxebizitza babestuak EAEko eraikuntza-jardueran duen partaidetzak behera egin du 2025ean, amaitutako etxebizitzaren pisua 2024ko % 42tik % 26,5era igaro baita.

Etxebizitzaren eskariari dagokionez, gurasoekin edo tutoreekin bizi diren 18 eta 44 urte arteko pertsonen lehenengo etxebizitza izateko beharizanari buruz, Eusko Jaurlaritzaren "Etxebizitzaren Beharizanei eta Eskariari buruzko Inkestan" egiaztatu zuten, 2023an, diru-sarrerak zituzten 70.013 pertsonen lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharizana zutela eta, beraz, 2021eko inkestarekin alderatuz, % 7,9ko igoera gertatu zen. Pertsona horiek behar duten etxebizitza-kopuruari dagokionez (baxuagoa da, etxebizitza banaka edo bikotean eskuratu dezaketelako), guztira 63.378 pertsona dira, bi urte lehenago baino % 9 gehiago.

Halaber, 77.369 familiak etxebizitza aldatzeko beharra adierazi dute, guztien % 8,4k. Hau da, % 6ko jaitsiera 2021aren aldean: urte horretan guztien % 9,1 ziren etxebizitza horiek. Badirudi datu horiek finkatu egiten dutela 2021ean hasi zen joera negatiboa, 2015-2019 urteetako gehikuntzaren ondoren. Azkenik, Etxebizitza Beharren eta Eskariaren Inkestak adierazten du, guztira, 75.620 euskal etxek behar zutela esku-hartzea 2023an birgaikuntza egiteko; hala, magnitude hori EAEko familia-etxebizitzaren parkearen % 8,2 da. Bilakaeraren aldetik, etxebizitza birgaitzeko beharrak behera egin zuen 2021aren aldean, bai etxeen bolumenean (-% 13,9), bai behar horren eragin erlatiboan (ehuneko -1,5 puntu) ere.

EAEko familiek **etxebizitzak ordaintzeko egin beharreko finantza-ahaleginari** dagokionez, lehenik eta behin, Espainiako Jabetza, Ondasun Higiezin eta Merkataritzako Erregistratzaileen Elkargoaren "Higiezin Erregistro Estatistikak" adierazten du EAEko familiek beren etxebizitzak ordaintzeko egiten duten finantza-ahalegina, hileko batez besteko hipoteka-kuotaren eta soldata-kostuaren arabera neurtuta, % 31,8koa dela 2025eko laugarren hiruhilekoan, aurreko urtean baino 2,3 puntu gehiago. Espainia osoan, azken urteko bilakaera goranzkoa ere izan da, ahalegin hori batez besteko soldata-kostuaren % 33,8 baitzen 2025aren amaieran, urtebete lehenago baino 1,2 puntu gehiago. Ikuspegi zabalago batetik, azken hamarkadan (2015etik 2025era bitartean) finantza-ahalegin hori 2,2 puntu handitu da EAEn, eta bikoitza baino gehiago (5,5) Estatu osoan.

Bigarrenik, EINen "*Familia Aurrekontuei buruzko Inkestak*" aukera ematen du jakiteko, ECOICOP (European Classification of Individual Consumption by Purpose) gastuaren sailkapenaren lau digituko desagregaziotik abiatuta, zer gastu egiten duten familiek beren etxebizitza nagusiaren alokairua ordaintzeko, bai eta etxebizitza nagusiari jabetzan egotzitako alokairua ere (halako etxebizitza baten jabe den familiak ordainduko lukeen errenta, etxebizitza horretako maizterra balitz). Datu horiek etxe bakoitzeko batez besteko gastuari eta familia-unitatearen urteko gastuaren gaineko ehunekoari dagokienez ematen dira.

2024an, informazioa dagoen azken urtean, EAEko familiek, batez beste, 7.870,43 euro gastatu zituzten urtean ohiko etxebizitza ordaintzeko, 2023an baino % 3,9 gehiago, etxebizitza horri jabetzan egotzitako alokairua kontuan hartuta. Zenbateko hori urteko familia-gastuaren % 21,67 da (+0,82 puntu aurreko urtearen aldean). EAEko gastua, gainera, estatuko batez bestekoa (6.091,66 €) baino % 29,2 handiagoa da, hau da, Espainiako familien gastuaren % 17,89. Alde hori aldatu egiten da etxebizitzaren alokairu-gastua kontuan hartzen badugu: EAEko familiek, batez beste, 1.130,31 euro gastatu zituzten 2024an (urteko gastuaren % 3,11) ohiko etxebizitzaren alokairuan; estatu osoan, berriz, gastu hori handiagoa da, bai kopuru absolutuetan (1.274,03 euro), bai erlatiboetan (gastu guztiaren % 3,74) ere.

Bestalde, etxebizitzarekin lotutako alderdi delikatuetakoa bat da **hipotekak edo alokairu-errentak ordaindu ezin dituztelako** etxebizitzak galtzen dituzten familien egoera. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak (BJKN) EAEko lehen instantziako epaitegietan aurkezturiko hipoteka-betearazpenen jarraipena egiten du, eta adierazi duenez, 2025ean 577 betearazpen erregistratu ziren, hots, % 21eko gehikuntza aurreko urtearen aldean. 2025ean aurkezturiko betearazpenak estatuko 31.416 betearazpenen % 1,8 dira (+% 35,6, 2024arekin alderatuz).

Halaber, 2025ean, EAEn, lehen instantziako epaitegiek 974 kaleratze egin zituzten, aurreko urtean baino % 60,2 gehiago, eta estatuko guztien % 2,2. Horietatik 216 hipoteka-betearazpenak izan ziren (+% 176,9, 2024arekin alderatuz), 716 etxegabetze-prozedurak (+% 43,8) eta 42 beste prozedura batzuk (+% 31,3).

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak “**EAEko etxebizitzaren erabilerari buruzko inkesta**” egiten du, gure Erkidegoan hutsik dauden etxebizitzaren parkearen dimentsioa eta kudeatzeko posibilitateak zein diren jakiteko, informazio garrantzitsua baita hutsik dauden etxebizitzak mugiarazteko politikak sortzeko. 2023ko azken emaitzak aztertuta, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak nabarmendu du EAEn milioi bat etxebizitza baino zertxobait gehiago zenbatu direla, eta horietatik % 92,7 okupatuta egon ohi direla (2021ean, % 92,8). Eta hutsik dauden edo nagusiak ez diren etxebizitzaren % 7,3tik (78.358 unitate), % 3,3 sasoiko etxebizitzak dira, eta gainerako % 4 (43.052 etxebizitza) jenderik gabeko etxebizitzaren parkeari dagozkio (% 4,4 2021ean). Lurraldeka, Gipuzkoan jenderik gabeko etxebizitzaren tasa txikiena izan da. % 2,6 dira; Bizkaian eta Araban, berriz, % 4,9 eta % 3,9, hurrenez hurren.

Era berean, Etxebizitzaren Behatokiak nabarmentzen duenez, etxebizitza horietako zenbait dagoeneko merkatuan daude eta, beraz, ezin kudea daitezke etxebizitza hutsak mugiarazteko programen ondorioetarako. Halaber, beste batzuk aldi baterako daude hutsik, ezinbestean, jabeen osasunarekin lotutako arrazoiengatik edo lanagatik. Horregatik, “kudeagarriak” deritzen jenderik gabeko etxebizitzetara erreparatzen die: 2023an 25.450 etxebizitza erabat kudeagarriak dira, 2021ean baino % 2,6 gutxiago eta etxebizitza-parkearen % 2,4 dira. Halaber, jenderik gabeko etxebizitzaren % 59,1 dira.

Bestalde, **Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza-politikaren** oinarria alokairuko etxebizitza publikoaren parkea gehitzea eta hiri birgaitze- eta berrikuntza-politika berria sustatzea izan da, irtenbide eraginkor eta jasangarri gisa, hain zuzen ere. Era berean, lurzorua kudeatzeko politika aktiboari eutsi nahi dio, etxebizitza berrien eraikuntzaren sektoreari arintasuna emateko eta lurralde-banaketa orekatuagoa lortzeko asmoz, etxebizitza-politikaren zerbitzuan dauden baliabideak erabiltzeko orduan efizientzia handiagoa duen testuinguruaren barnean. Gaur egun, Euskadik bi tresna nagusi dauzka etxebizitza-politika publikoak garatzeko:

- Etxebizitzari buruzko 2015eko Euskal Legea, esparru juridiko berritzaile gisa eratu, ezin dena alderatu etxebizitzaren arloan autonomia-erkidegoan edo Estatuko gainerako lurraldeetan dauden araudiekin; izan ere, haren elementu nagusia etxebizitza lortzeko eskubide subjektiboa eratzea da, araututako eta edozein herritarrek eskatu dezakeen administrazio-prozedura gisa. Eskubide horren edukia oinarritu egiten da babes publikoko etxebizitza bat edo, halakorik ezean, laguntza publiko bat benetan aitortzean eta esleitzean, etxebizitza libre bat arrazoizko prezioan eskuratzea edo edukitzea errazteko.
- Etxebizitzaren aldeko 2036ko Itun Sozialak inplikaturako eragile instituzional eta sozial guztien artean hitzartutako jarduketa-esparru orokor bat eskaintzen du, euskal biztanleriak etxebizitza lortzeko duen eskubideari euskarria emateko helburu nagusiarekin, etxebizitza eskuragarriaren eskaintza modu jarraituan handituz, ahal dela alokairuko etxebizitza sustatuz eta dagoen parkea birgaituz, irisgarritasunaren eta efizientzia energetikoaren irizpideak egitura-politika gisa txertatuz.

Testuinguru horretan, **2025-2027 aldirako etxebizitzaren plan zuzentzaileak** Etxebizitzari buruzko Legeak gaitutako neurri nagusiak hezurramitzen ditu, etxebizitzaren aldeko itun sozialaren helburuak erdietsi ahal izateko, eta honako hauek dira nabarmen: EAEko etxebizitza nagusien % 5 alokairu eskuragarriko eskaintza publikora bideratzea 2036rako (50.000 etxebizitza); babes publiko iraunkorreko etxebizitzaren parkea etxebizitza nagusien % 12ra igoaraztea; eta hamabost urteko epean eraikinen % 3 urtero birgaitzea lortzea, gaur egun % 1,5ean kokatuta baitago; horrek esan nahi du 350.000 etxe eraberritu behar direla epe horretan (eraikitako hiru etxetatik bat, gutxi gorabehera).

Etxebizitzaren plan zuzentzailearen esparruan, Eusko Jaurlaritzaren 2025-2027 aldirako etxebizitza-programak 1.205,1 milioi euroko gastua aurreikusi du; horietatik 365,6 milioi (guztizkoaren % 30,3) alokairuko etxebizitzaren azpiegituran egingo diren inbertsioei dagozkie (lurzorua, urbanizazioa, eraikuntza, eta abar), eta 724,7 milioi euro (% 60,2), ordea, alokairurako eta birgaitzeko dirulaguntza-politikei. VISESaren eta ALOKABIDEn gastuen aurreikuspena gehituz gero, etxebizitzaren plan zuzentzailearen aurrekontu bateratua 1.550 milioi eurokoa da. Era berean, Etxebizitza Sailak kalkulatu du Foru Aldundiek plan horren indarraldian beren gain hartuko duten etxebizitzarako gastu fiskala 1.700,7 milioi eurokoa izango dela.

2025ari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza-programaren aurrekontu bateratua 535,1 milioi eurokoa da, 2024an baino % 9,8 gehiago, eta 2023an baino % 51,7 gehiago (352,8 milioi euro).

Bestalde, Euskal Ogasunaren 2023. urteko txosten integratuak agerian utzi du 2022an (eskuragarri dagoen azken datua) PFEZaren 475.601 aitorpenek ohiko etxebizitzagatiko kenkari motaren bati heldu ziotela, 2021ean baino % 3,2 gehiagok, eta kopuru horrek aitorpenen % 45,7 osatu duela. Emaizta gisa, **etxebizitza-arloko PFEZn egindako kenkariei lotutako gastu fiskala** 485,3 milioi eurotara iritsi zen, 2021ean baino % 5,3 gehiago. Zenbateko hori Etxebizitza Sailak ekitaldi horretan bertan likidatutako gastuaren % 138 da.

Azkenik, Etxebizitzarako Eskubideari buruzko maiatzaren 24ko 12/2023 Estatuko Legeak hainbat neurri jasotzen ditu, besteak beste, etxebizitza arrazoizko prezioan eskuratzea bermatzeko. Horien artean, **“tentsionatutako guneak”** deiturikoetara bideratutako neurri espezifikoak nabarmentzen dira. Tentsionatutako gune izendatzeko, irizpide hauetako bat bete behar da: Etxebizitzaren alokairuaren batez besteko prezioak, tentsionatutako etxebizitzaren merkatu-eremu izendatu aurreko bost urteetan, KPIren hazkunde metatuaren ehunekoa baino % 3 handiagoa jasan izana gutxienez; edo etxebizitzaren salerosketaren batez besteko prezioak, tentsionatutako etxebizitzaren merkatu-eremu izendatu aurreko bost urteetan, KPIren hazkunde metatuaren ehunekoa baino % 3 handiagoa jasan izana gutxienez. Norberaren eta elkarbizitza-unitatearen aurrekontuan hipotekaren edo alokairuaren kostuaren batez besteko kargak gehi oinarritzko gastuek eta hornidurek batez besteko diru-sarreraren edo etxebizitzetako batez besteko errentaren % 30 gaintzea. Prozedura horrekin bat etorritik, lurralde-eremu bat tentsionatutako bizitegi-merkatuko gune aitortzen denean, administrazio eskudunak plan espezifiko bat idatziko du eta bertan neurriak proposatuko dira nabariak diren desorekak zuzentzeko. Gainera, neurriak aplikatzeko egutegia ere finkatu egingo da.

2025eko apirilean 1,5 milioi pertsona bizi ziren EAEn, biztanleria osoaren % 68, tentsionatutako gune gisa identifika zitezkeen udalerrietan (aurreko urteko zifra berberak). Guztira, Bizkaiko hamazazpi udalerriz, Gipuzkoako hamalauz eta Arabako hiriburuaz ari gara. Tentsionatutako guneen izendapenak atea irekitzen die, halaber, etxebizitza-politika publikoko esku-hartze espezifikoak “tentsionatugarri” gisa identifikatutako udalerriei.

Zentzu horretan, Gobernu lege-erreformetan ari da lanean, tentsioan dagoen eremuari irismen handiagoa emateko. Gaztelagun edo Bizigune programak, Erabilera Turistikoko Etxebizitzaren mugak, tentsioan dagoen eremuari indexatuta egon daitezke, figura horri ibilbide luzeagoa emango dioten premiazko neurrien arau-garapenaren barruan. Hori 2026an gauzatu da [55/2026 Dekretuan, apirilaren 21ekoan, etxebizitzaren arloko erregelamendu-edapenak presaz aldatu dituenean](#). Memoria honen hurrengo edizioan aztertuko da horren edukia.

ONDORIOAK

I. EKONOMIA

Euskal ekonomiak nazioarteko egoera konplexu bat du aurrean, hazkunde globalaren apaltzeak eta merkataritza- eta geopolitika-tentsioen iraunkortasunak baldintzatuta.

Zalantzarritasun-egoera horretan, 2025ean hazkunde positiboa eta Eurogunean eta EB27n erregistratutakoa baino handiagoa mantendu zuen, baina aurreko urtearekiko pixka bat moteldu zen. Hala eta guztiz ere, hazkunde horren eraketak zaurgarritasun-elementu batzuk ditu: jarduerak atsedean hartu zuen nagusiki barne-eskarian eta inbertsioan eta kanpo-eskaerak ekarpen negatiboa mantendu zuen eta industriak dezelerazio argia izan zuen.

Horregatik, Batzorde honek beharrezkotzat jotzen du euskal ekoizpen-sarearen gaitasun lehiakorak, teknologikoak eta nazioartekoak indartzea, batez ere, kanporako esposizio handiena duten industria-adarretan. Bitartean, testuingurua markatzen dute merkataritza-tentsioek, zalantzarritasun geopolitikoak eta nazioarteko merkataritzako patroien aldaketek.

Hala, txikizkako merkataritzaren salmenta-indizeak eta azalera handiko saltokietako eta elikadura-kate handietako merkataritzaren indizeak 2024 eta 2025 artean hazkundera bizkortu zuten bitartean, Industria Produkzioaren Indizeak (IPI) hazkunde nabarmena izan zuen 2025eko urtarrilean, baina gero hazkunde negatiboak izan zituen, eta, hilabeteko gorabeherekin, urte osoan errepikatu egin ziren.

Finantzarioak ez diren euskal enpresen errentagarritasun ekonomikoak emaitzarik onenak izan ditu 2010etik. Erregistro horiek 2022an eskuratutakoa baino ia ehuneko puntu bat gehiago dira. Hala eta guztiz ere, errepikatzen dugu behin eta berriz errentagarritasun baxua dutela I+G jardueren enpresek eta jarduera artistikoak, jolasekoak eta entretenimendukoak egiten dituzten enpresek.

Errentaren banaketa funtzionalean ikus daitekeenez, 2024ko datuek, 2021koekin alderatuta, erakusten dute soldatapekoen ordainsariak pisua galdu duela guztizkoaren gainean, eta kapital-errentek baino emaitza txikiagoak lortu dituela.

Azken urteetako batez besteko errenta pertsonala analizatuta errenta-motaren arabera bereizita, ikusten da lan-errenten ekarpenak gutxitzen ari direla, baita ere jarduera ekonomikoak, eta aldi berean, transferentzia-soberakinak hazi egin dira. Horrekin lotuta, kontuan hartu beharra dago EAEko bizilagunen % 36,8ren errenta pertsonala 15.000 eurotik beherakoa dela.

Bukatzeko, prezioekin lotuta, gogorarazten dugu apaldu egin ziren arren, 2025 urte inflazionista izan zela berriz ere. Izan ere, prezioen gehikuntza 2024an erregistratutakoari gehitzen zaio eta tentsio geopolitikoak areagotu egin dira.

....

EAEko **sektore publikoari** dagokionez, Batzorde honek, lehenik eta behin, azpimarratu nahi du COVID-19ak sortutako ekonomia- eta gizarte-krisi larriaren ondoren, 2022an finantza publikoen berreskurapena bukatu zela, nagusiki, inflazioak lagundutako diru-bilketaren bilakaera positiboari esker. Aldagai horren bilakaera positiboa izan da 2025era arte; azken urte horretan gehikuntza nabarmena izan da, % 11koa, barne-eskariaren eta lan-merkatuaren indarrari esker.

Bestalde, inbertsio errealek, herrialdearen garapenerako funtsezkoak direnak ondo bideratuta daudenean, hazkunde nabarmena izan zuten 2023an, eta % 9 jaitsi dira 2024an (ia % 20 Eusko Jaurlaritzari dagokion zatian), eta horrek kezkatu egiten gaitu.

Horrekin lotuta, beharrezkoa da aurrekontu-ahalegin handia eta jarraitua egitea etorkizunean inbertsio-maila onargarriari eusteko. Era berean, berretsi egiten dugu "Next Generation" funts europarren aukera aprobetxatu behar dela funtsezko zerbitzuak eta inbertsio publikoa eta pribatua indartzeko, eta are gehiago kontuan hartuta funts horiek gauzatzeko baimendutako epea geroz eta gertuago dagoela (hasiera batean, 2026. urtea).

Beste alde batetik, positibotzat jotzen dugu 2025ean bederatzigarrenez bonu jasagarriak eman izana. Tresna hori martxan jarri zenetik 5.700 milioi euro metatu dira eta garrantzitsua da aldizka bere gizarte- eta ingurumen-inpaktua baloratzea eta bermatzea zorpetze publikoaren mailak zuhurrak direla.

Enplegu publikoari dagokionez, Batzorde honek, beste urte batez ere, azpimarratzen du beharrezkoa dela EAEko administrazio publikoetako bitartekotasuneko eta behin-behinekotasuneko tasa altuak gutxitzen jarraitzea, modu horretan, egiturazko fenomenoak bihurtu den irregulartasuna zuzentzeko.

II. ZIENTZIA, TEKNOLOGIA, BERRIKUNTA ETA DIGITALIZAZIOA

Ikerketak, garapen teknologikoak eta berrikuntzak, enpresen lehiakortasuna bultzatzeaz gain, eragin positiboa dute ekonomian eta gizartean. Izan ere, gakoa da klima-aldaketaren, biodibertsitatearen galeraren, mendekotasun energetikoaren, osasunaren, biztanleriaren zahartzearen, desberdintasunaren eta digitalizazioaren ziozko lehentasuneko erronkei aurre egiteko. Bestela esanda, I+G+B gakoa da sozietateak aurre egin behar dien erronka handiei aurre egiteko, aise gainditzen baititu ezagutzaren mugan aurrera egiteko eta ekonomien lehiakortasuna sustatzeko helburu klasikoak.

Ezagutza berriak eta berrikuntzak bultzatuko dituzte abian diren eraldaketa energetiko, digital eta sozialak, eta, modu justu, kontziente eta parte-hartzailean kudeatzen baditugu (adostuta), guztiontzat eta planetarentzat jasangarria eta oparoa izango den etorkizun horretarantz azkarrago joaten lagunduko digute.

EGABen ustez, I+G+Bn azaldutako datuak ikusita, gure Erkidegoak abantaila konparatiboak ditu, eta, ondorioz, Europako bikaintasun-gune gisa kokatzen da, berrikuntza handiko eskualdea baita, berritzaile moderatua den estatu kide batean kokatua. Baina ezin dugu alde batera utzi, Europako panelen arabera, Euskadik hiru ahulezia erlatibo dituela: enpresek hodeian konputatzea, ETEek prozesu berrikuntzak sartzeara eta diseinu aplikazioak sartzeara. Era berean, ezin dugu alde batera utzi berrikuntzak enpleguan eta salmentetan duen eragin ekonomikoa Europako batez bestekoa baino txikiagoa dela. Izan ere, gure enpresek zailtasunak dauzkate oraindik merkatuan edo beren erakundeetan berrikuntzak sartzera, bai eta I+Gn egiten duten inbertsioa emaitzetera eramaterakoan ere.

Pozten gaitu DESIren 2024ko edizioak EAE positiboki kokatzea digitalizazioaren egoerari dagokionez. Zehazkiago, giza kapitalaren maila altuak izatea eta mundu digitalean moldatzeko prestatzea, eta azpiegitura digitaletan Europako liderren artean egotea. Hala ere, gogoratu behar dugu tarteko posizioak dituela eduki digitala sortzeko gaitasunetan edo IKT graduatuetan. Aldi berean, euskal enpresek jardura ona dute digitalizazio prozesuan, baina teknologia konplexuagoak eta potentzial handiagokoak sartzeara (datuen analitika, hodeiko konputazioa edo AA) emaitza zuzenak erakusten ditu Europako batez bestekoarekin alderatuta, baina enpresa guztien % 50 gainditu gabe. Beste ahulgune bat da ETEen merkataritza elektronikoa ez dela Europako mailara iristen, nahiz eta negozio-bolumenaren proportzioa hobetu egin den.

Ezinbestekoa da, batetik, berrikuntza ingurumen- eta gizarte-irizpideekin sustatzea (isurien eta lurzorua erabilerekin murrizketa, energia-efizientzia, ekodiseinua, genero-oreka), gizarterako eta ingurunerako balio erantsi iraunkor bat sortuko duten egitasmoak babestuz. Bestetik, berrikuntza industrialetik harago, berrikuntza soziala indartzea komeni da; bereziki, zainketen ekonomiarekin eta zahartze osasuntsuarekin zerikusia duena, pertsonengan oinarritutako metodologiek; horrela, I+G+Bren dimentsio soziala indartuko da.

Eta esparru horretan, etengabeko bilakaera azkarrean, funtsezkoa da, halaber, ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-politikak hezkuntza-, enplegu- eta sustapen profesionaleko politikekin lerrotzea, berrikuntzako inbertsioak eta pizgarriak enpleguaren kalitatea mantentzera eta hobetzera eta plantillen sustapen profesionalera bideratuz, aldaketen eta trantsizioen gobernantza nahi ez diren ondorioak saihestera eta nahi diren ondorioak maximizatzen bideratzeko, herritarrek beren karrera profesionala garatzeko aukerak izan ditzaten, batez ere Zientziarekin, Teknologiarekin, Ingeniaritzarekin, Artearekin eta Matematikarekin (STEAM profilak) lotutako arloetan ezagutzak dituzten pertsonen, eta enpresa eta administrazio publikoek digitalizazioaren eta teknologia berriak hartzearen arloan (adimen artifiziala, esaterako) gero eta premia handiagoei aurre egiteko behar adinako giza kapitala dutela ziurtatuz.

Azaldutako guztia dela-eta, komenigarria iruditzen zaigu enpresak (beren tamaina edozein dela ere) eta herritarrak egunerokoan I+Gn eta berrikuntza sartzearan inguruan sentibilizatzen jarraitzea, bai eta gizarteari eta gure enpresa-sareari aholku ematea ere, aldaketak eta trantsizioak ahalik eta ondoen gobernatzea eta, horrela, nahi ez ditugun ondorioak saihestu eta nahi ditugunak areagotu daitezten.

Era berean, enpresa-sektoreak garrantzi handia du I+Gko gastua gauzatzean, eta eredu horretan enpresek zeregin garrantzitsua betetzen dute, finantzaketa publikoan oinarrituta. Ezaugarri hori sistemaren indargune bat da lankidetzaren publiko-pribatuari dagokionez, eta, aldi berean, gainerako eragileen zeregina birbideratzen jarraitzearen egokitasuna planteatzen du, bereziki ezagutza sortzeari eta oinarritzko ikerketari dagokienez.

Azkenik, I+Gko euskal sistemaren indarra, neurri handi batean, ikerkuntzan oso intentsiboa den enpresa- eta industria-nukleo batean oinarritzen da, baina indar hori I+Ga produkzio-sare osora gutxiago hedatzearekin batera gertatzen da, batez ere zerbitzuetan eta enpresa txikiagoetan.

III. INGURUMENA, ENERGIA ETA GARRAIOA

Klimak hainbat aldaketa jasan ditu Lurraren historian zehar. Hala ere, oraingo aldaketa oso desberdina da aurreko beste batzuekin alderatuta. Giza jarduerak eragindako berotegi efektuko gasen emisioek eta gure energia sortzeko moduak handitu egiten dute Lurreko atmosferak beroa atxikitzeke duen gaitasuna, eta, ondorioz, berotze globalaren fenomenoak sortzen da.

Deskarbonizazioak (atmosfera isurtzen ditugun karbono-emisioak murrizteko prozesu progresiboa) funtsezko zeregina dauka ekonomia jasangarriago bat lortzeko. Horregatik, atsegin dugu egiaztatzea 2023an EAeko emisioak 1/2024 Legean planteatutako helburuak betetzeko bidean daudela, eta aztergai izan diren urteetan, oro har, CO₂ finkapen edo mugitze bat gertatu dela. Positiboki baloratu dugu baso-azaleraren handitzea, aipatu finkapena areagotzen lagundu baitu.

Baina deskarbonizazioaren arrakasta neurri aringarriak gainditzeko dituen ikuspegi integral baten menpe dago, ez baita nahikoa esku-hartze puntualak aplikatzea prozesu honetako galtzaile zuzenak konpentsatzeko. Eraldaketa ekologikoa ezin da konpentsazioko esku-hartze puntaletara mugatu; aitzitik, eredu ekonomiko berri baten motor gisa eratu behar da. Horregatik guztiagatik, trantsizio energetikoa palanka estrategikotzat etsi behar da, gure eredu ekonomikoa eraldatzeko eta lehiakortasun globala irabazteko, karga gisa ikusi beharrean.

Aurrezpen eta efizientzia energetikoak, bestalde, zeregin garrantzitsua eduki behar dute, kanpoko kontsumoak eta mendekotasun energetikoa murriztuz. Horregatik kezkatzen gaitu energiaren eskarian eta energiaren azken kontsumoan antzeman dugun igoerak, bai eta petrolioak eta bere deribatuek energia-kontsumo horretan pisu handia izaten jarraitzeak ere.

Gogorarazi nahi dugu hidrokarburoen (petrolio eta gas naturala) eta erregai fosilen nahiz horien deribatuen errekuntzak ingurumen-arazoak sortzen dituela, arazo nagusia berotegi-efektuko gasen emisioa delarik.

Atseginez ikusten dugu energia-efizientziaren bideak batez ere euskal industria sektorearenak) markatzen duen energia-intentsitatearen etengabe hobetuz doala, handitu egin dela martxan jartzen ari diren eguzki-instalazio termikoen zein fotovoltaikoen kopurua handitzearen ondorioz instalatutako potentzia berriztagarria, airearen kalitatea hobetu dela eta industriaren ingurumen-babeserako gastua igo egin dela.

Energia berriztagarrien ekoizpena handitzen jarraitu behar dugu Euskadin, ez bakarrik ingurumenaren gainean dituen abantailengatik, bai eta energia-mendekotasun handiaren maila ekonomikoaren eta aringarriaren gaineko abantailengatik ere.

Bestalde, gure aburuz, arlo horretako politika publikoek bizi-kalitatea hobetzen lagundu behar dute, eta, esparru horretan, ezinbestekoa da herritarrek eta enpresek jasaten duten energia-faktura kontuan hartzea eta, ondorioz, murriztea.

Gainera, kontziente izan behar dugu esparru berri honetan intermodalitatean oinarritzen diren garraio-politikek duten garrantzi nabarmenaz. Europako garraio-sare bakarraren garapena (EAeren esparruan, Atlantikoko korridorea du ardatz, eta euskal Y-aren nahiz portuko trenbide-loturen inguruan biratzen da) bete-betean murgilduta gauden Europako mugarri garrantzitsuenetako bat da.

Ondorioz, funtsezkoa iruditzen zaigu erakundeek konpromisoa hartzea xedatutako jarduketak gauzatzearekin: euskal Y-aren azpiegitura eta gainegitura, trenbide-loturak goi-lautadarekin eta Bilboko Portuarekin, intermodalitatea eta abar, bai eta xedatu ez diren baina interes estrategikokoak diren beste batzuk ere: ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegiturak ezartzea, zerbitzu publikoko flotak elektrifikatzea (autobusak, azken miliako banaketa).

Ezinbestekoa iruditzen zaigu, halaber, erabiltzen ari garen eredu ekologiko-energetiko berriak erregai fosilen erabilera pixkanaka murriztu dezala eta ekoizpen garbian eta kontsumo-, erabilera- eta birziklapen-jarraibide egokietan eragin dezala; baina, aldi berean, funtsezkoa da balantze orekatua erdieste trantsizio klimatiko-energetikoaren erritmoaren eta

enpleguan dituen efektuen artean. Nolanahi ere, behar diren trantsizioek bidezkoak izan behar dute inklusioari eta kohesioari dagokienez, arrakasta bermatzeko.

Trantsizio ekologiko-energetikoak lanpostuak galtzea ez, baizik eta bidezko birmoldaketa ekarri dezan, funtsezkoa da gobernantza-eredu parte-hartzaile batean lan egitea elkarrekin, eta, horrela, bermatzea eraldaketa ekologikoak ez duela desberdinkerietan sakonduko, baizik eta kohesio sozialerako tresna bihurtuko dela.

Behar adinako aurrerapenarekin, komenigarria izango da prestakuntza- eta birkualifikazio-planak hedatzea hainbat sektoretan, hala nola energia berriztagarrian, etxebizitzaren birgaitze energetikoan, mugikortasun jasangarrian edo hondakinen kudeaketan. Gainera, komeni da eskumen “berdeetan” espezializazioa sustatzea lanbide-heziketatik, unibertsitatetik eta etengabeko prestakuntzatik, Espainiak lehiakortasun-elementu nagusi baitu Europako energia garbi merkeenak edukitzea. Gauzak horrela, lehiarako abantaila hori aprobetxatu behar da, eta eraldaketa horretarako erabili beharreko produktuak fabrikatzen dituzten enpresak erakarri.

Bukatzeko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak uste du komenigarria litzatekeela eragile guztiak (gizartea, enpresak eta administrazioak) sentsibilizatzen jarraitzea, etorkizuneko belaunaldien bizi-kalitatea arriskuan jartzen ez duten bizi-ohituren alde; azturak sortzea berotegi-efektuko gasak murrizten, hondakinak gutxitzen, baliabide naturalak nahiz energetikoak arduraz kontsumitzen, lantokietarako mugikortasun-planak egiten, garraio publikoa erabiltzen eta abarrean laguntzeko; eta kontzientziazio-lan bat gauzatzea, lurraldean energia berriztagarrien azpiegiturak eta proiektuak instalatzeko beharrianaz jabetu daitezen, baita horrek dakartzan kostuez ere, aldeaz aurreko azterketari eta proiektuon ingurumen-inpaktuaren nahitaezko kontrolari kalterik egin gabe.

IV. EMPLEGUA ETA LAN-HARREMANAK

Orokorrean, 2025ean lan-merkatuak 2023ko eta 2024ko joera positiboa mantendu du okupazioan eta enpleguaren jaitsieran, eta urte arteko tasek jaisten jarraitzen dute. Gainera, hobekuntzaren arrazoia dira zerbitzuen eta industriaren bilakaera; azken horrek aurreko urtean baino zifra hobeak lortu ditu.

Positiboki nabarmentzen dugu biztanleria aktiboak gora egiten jarraitu duela azken urtean, baina enpleguaren proportzio txikiagoan, eta aldi berean ratio txikietan jarraitzen du, batez ere, emakumeen artean.

Bere aldetik, iturriek diote behin-behinekotasun tasek jaisten jarraitzen dutela. Nolanahi ere, behin-behinekotasunak oso altua izaten jarraitzen du sektore publikoan, eta arazo hori lehenbailehen zuzendu behar da. Partzialtasunari dagokionez, bilakaera ez dago hain argi, iturri ezberdinek irakurketa ezberdinak ematen baitituzte. Edonola ere, nahi ez den partzialtasuna da enplegua gehien prekarizatzen duten alderdietako bat eta batez ere emakumeei eragiten die.

Aldi berean, behin-behinekotasunaren adierazleak hobetzeak gomendatzen du lan-merkatuaren jarraipena osatzea lan-ibilbideen benetako egonkortasunaren adierazleekin, eta kontuan hartuta jarduera-adarrak, txandakatzea, behin-behineko kontratuen batez besteko iraupena eta sexuen arabera diferentziak.

Beste alde batetik, EAEko lan-merkatuaren bilakaerak agerian jartzen du atzerritarrak geroz eta gehiago direla bai afiliazioan, bai kontratazioetan, eta langabeziarekiko esposizio erlatibo handiagoak iraua egiten du. Horrek berresten du beharrezkoa dela beraien laneratzean laguntzea kualifikazio-politikekin, gaitasunak aitortuz eta laneratze-prozesuetan lagunduz, horrela, lan-integrazioa erraztu dadin berdintasun- eta kalitate-baldintzetan.

Lan-erreformari dagokionez, adierazi nahi dugu, indarraldiko lehen urtean hobekuntza argia izan ondoren, ondorioak mantentzen ari direla Gizarte Segurantzako afiliazioaren zifretan, baina agortze-sintoma batzuk ikusten direla, lehen ondorioei dagokienez.

Era berean, genero-arrakalen murrizketan izandako aurrerapenak positiboak direla ikusten badugu ere, lan-merkatuan emakumei eragiten dieten desberdintasunak zuzentzeko ahaleginak sakondu eta zabaldu behar direla uste dugu, adibidez, jarduera-tasa txikiei, behin-behinekotasun handiari eta partzialtasunari dagokienez, besteak beste.

Bestalde, enplegu-politika aktiboek zailtasun handienak dituzten kolektiboak enpleguan txertatzeko eta mantentzeko ahaleginak hobetzen jarraitu behar dute, baita enplegua lortzeko aukerak hobetzen ere, Lanbideren zerbitzu-zorroa ondo diseinatuta.

Era berean, enplegurako, bereziki, laneratze eta enpleguari eusteko zailtasun handienak dituzten kolektiboentzako partida publikoen garrantzia nabarmendu behar da, baita gizarte-babeseakoak ere, enpleguaren gaineko helburuak lortzen ez diren bitartean.

Gainera, eta 2023an eta 2024an bezala, 2025eko negoziazio kolektiboaren emaitza positiboak azpimarratu nahi ditugu, urtearen amaieran % 95,5eko estaldura izan baitute, azken hamarkadako handiena, eta, aldi berean, estaldura horretan dagoen genero-arrakalan arreta jarri beharra dugu, puntu bat hazi baita.

Bukatzeko, 2025eko lan-istripuen datuek konpentsatu egin dute aurreko urteko goranzko bilakaera. Gauzak horrela, esfortzuak egiten jarraitu beharra dago arriskuen prebentzioa eta lan-merkatuko segurtasun-kultura indartzeko eta esposizio handiena duten sektoreak lehenetsi behar dira.

V. BIZI BALDINTZAK

V.1. DEMOGRAFIA

Beste urte batez, migrazio-saldo positiboek, pandemiaren eraginetik berreskuratutakoek, hazkunde natural negatiboa (jaiotzak ken heriotzak) orekatzen jarraitzen dute, eta, horri esker, biztanleria hazten ari da, bai gure erkidegoan, bai EB osoan.

Hala eta guztiz ere, ezin dugu ahaztu aurrean dugun egoera demografikoa. Memoria honetan azaldutako kopuruen aurrean, Erronka Demografikorako 2030 Estrategia sakontzeko eta bizkortzeko beharra azpimarratu nahi dugu, ez baitauekagu 2024. eta 2025. urteetan estrategia horren inguruan egin denari buruzko informaziorik. Familia-politiketan egindako gastuari dagokionez, deigarri egin nahi dugu, estrategiak berak adierazi bezala, Euskal Autonomia Erkidegoa ELGako batezbestekotik oso urrun dagoela, familian inbertitzera bideratutako BPGd-aren ehunekoari dagokionez.

Halaber, eraldaketa demografikoaren funtsezko alderdi gisa, aurten ere migrazio-erronkaren garrantzia azpimarratu nahi dugu. Eta, zentzu horretan, IKUSPEGIren urteko azterlanetan egiaztatu dugu euskal gizartea kontziente dela migrazioaren gaia egiturazko prozesu bat dela dinamika globalago baten barruan, eta migrazio-prozesuak gure aberastasunari eta ongizateari laguntzen dien moduak, guk ere ekarpenak egin ditzakegula pertsona horiek gure zuzenbide-estatuaren esparruan benetan parte har dezaten laguntzen duten mekanismoen garapenean, horrek ezartzen baititu gure eskubideak eta betebeharrak.

Hala ere, ohartarazi nahi dugu, Euskadin bizi den atzerritar jatorriko biztanleriaren zati handi batek hemengo biztanleekin integratzeko zailtasun handirik ez duela adierazi arren, egoera hori oso desberdina dela pertsona horien jatorri geografikoaren arabera, eta, gainera, diskriminazio- eta abusu-esperientziak eta tratu txarren kasuak, batzuetan, larriak izatera irits daitezkeela.

Gogorarazi nahi dugu, ildo beretik, 2030 Estrategiaren testuinguruan, harrera-politikak ez ezik, gizarte-kohesiorako eta -bizikidetzarako mekanismoak ere indartzea garrantzitsua dela, dinamika demografikoa migrazio-saldoaren mende dagoen testuinguru batean.

V.2. BIZI-BALDINTZAK

Beste urte batez, Euskadi oso posizio onean dago bizi-kalitatearen nazioarteko zerrendetan (GGI), Bizi Baldintzen Inkestako adierazle gehienetan bezalaxe.

Oro har, adierazi behar dugu, iaz bezala, 2025ean ere hobekuntzak hauteman zirela. Hala ere, adierazle jakin batzuen bilakaerak arriskuan jartzen du 2030 Agendaren helburuak betetzea. Izan ere, kontrako emaitza batzuk ikusi ditugu eta horien inguruan arreta jarriko dugu.

Beste urte batez ere, AROPEko adierazleek erakutsi dute 2025ean gutxitu egin dela pobrezia- eta bazterketa-egoeran zeuden biztanleen kopurua, baina bakarrik hamarren bat eta, gainera, adierazle nagusia bereizita dagoen hiru arloetatik bitan soilik. Izan ere, lan-intentsitate baxua duten herritarrak, Europako batezbestekoaren azpitik egon arren, gehitu egin dira azken urtean.

Gainera, ez dugu ahaztu behar orokorrean bilakaera ona den arren, AROPEren adierazleek 2030 Agendan ezarritako helburuekiko duten distantzia oraindik ere handia dela. Horrek agerian uzten du garrantzitsua dela pobrezia eta gizarte-bazterketa murrizteko politikak mantendu eta indartu beharra.

Bestalde, Bizi-baldintzen Inkestak (BBI) adierazten du 2025erako errenta pertsonala eta familiarra handitu egingo dela Euskadin; lau urtez jarraian daramatza horrela. Orobat, gurea bezalako gizarte baten bizi-maila baloratzeko beste adierazle garrantzitsuetako batzuek okerrera egin zuten 2024an, baina 2025ean hobetu egin dira. Hain zuzen ere, pobrezia energetikoa duten edo ongi elikatu ezin diren familien ehunekoak dira, beste batzuen artean. Hala eta guztiz ere, okerrera egin du urtean astebeteko oporraldirik izan ezin duten familien proportzioak. Aurreko guztiarekin, jarraipen xehea egin behar zaien aldagaiak dira.

PGDI inkestaren azken emaitzen arabera (2024koak) egoerak orokorrean okerrera egin du eta kezkatu egiten gaitu ongizate osoan dauden familien ehunekoak gutxitu izanak 2022ko gehieneko historikoarekiko, baina batez ere, EBtik kanpoko atzerritarren bizi-baldintzak okertu izanak. Izan ere, benetako pobrezia erdia baino gehiago dira eta lan egonkorrik ez duten taldeen egoerak ere okerrera egin du. Bestalde, hobetu egin da ama buru duten guraso bakarreko familien egoera eta emakumeen pobrezia ere bai, orokorrean.

Gainera, gogorazi nahi dugu, aurten ere, ezinbestekoa dela kontuan hartzea familia-tipologietan gertatzen ari diren aldaketak eta aldaketa horien ondorioak. Familiek botere publikoen lehentasunezko arreta behar dute; izan ere, tipologia desberdinak izan arren, gure gizartean beren zentralitatea mantentzen jarraitzen dute.

Familia-politikekin lotuta, gogorazi nahi dugu Arartekoak orain dela gutxi argitaratu duen txosten batean gomendatu zuela euskal administrazioek hasitako bidea indartu beharra dagoela, bat etortzeko Europako familien batezbesteko gastuarekin. Horretarako, urtero gehitu behar dira eremu horretako aurrekontu-efortzuak eta gizarte-itzulera handia duten inbertsioak lehenetsi behar dira nazioarteko ebidentziarekin bat etorri (laguntza ekonomikoak hazkuntzarako bizitzaren lehen urteetan, lehen haurtzaroko hezkuntza eta zainketak, kontziliazio- eta erantzunkidetasun-politikak eta haur-pobrezia murriztea). Aurrekoa lortzeko, honelako tresnak egokiak dira: 1) Familien erakunde-arteko planak; 2) Euskal administrazioen bestelako ekonomiako, finantzetako eta aurrekontuetako tresnak.

Gainera, uste dugu bereziki zuzenak direla zaintzen feminizazioaren eta etxebizitzaren egoeraren inguruan azaldu dituzten ondorioak, lege-esparrua aurreratuta egon arren, euskal familien egoerak kontuan hartuta.

Aurrekoarekin lotuta, espero dugu Familiei Laguntzeko 2026-2030 Plan Berriak (horren aurrekontu-zuzkidurak 2023an hasitako bidea finkatzen du diru-kopuru handiekin) lagunduko duela familiek nahi duten ondorea eta baldintza onenetan izan dezaten.

Lana, bizitza pertsonala eta familia-bizitza uztartzearen adierazleei dagokienez, egin dugun adierazleen urteko jarraipenean ez dugu detektatu zaintza-lanetan genero-arrakala modu argi eta jarraituan murriztu denik. Egiaz, altua izaten jarraitzen du emakumeek eta gizonek etxeko lanak egiten ematen duten denboraren diferentziak, eta horrek kezkatu egiten gaitu.

Bukatzeko, ikusi dugu nahiz eta pertsona askori eragiten ez dion, bizitegi-bazterketa larriaren bilakaera berria asko handitu dela eta agerian jartzen du bere dimentsio kuantitatibotik haratago doan arazo konplexu bat, eta erronka kolektibo bat planteatzen du inklusioaren eta gizarte-kohesioaren alde egiten duen gizarte batean. Horrekin lotuta, espero dugu Eusko Jaurlaritzak 2024-2028 urteetarako sortu duen estrategia berriaren ikuspegia lotesleak diren ekimenetan hezurramituko dela, arazo hori modu efikazean borrokatzen lagunduko dutenak.

V.3. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA

EAE ez dago emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeria arazo unibertsaletik kanpo, eta, Memoria honen apartatuetan egiazta daitekeenez, azken urteotan bilakaera positiboa izan den arren, oraindik urrun gaude benetako berdintasuna lortzetik. Bereziki nabarmendu nahi dugu lan-eremuan ikusten den bereizketa, baita lanaldiak, kontratuak, soldadak eta ondorengo pentsioak kontuan hartzean ikusten diren genero-arrakalak ere.

Datu horiek eskuragarri dauden aldagai guztietan genero-ikuspegia txertatzeaz gain, 2024ko edizioaz geroztik, memoria honek berariazko apartatu bat du, hautemandako gabeziak modu sintetikoan ikustarazteko, eta, aldi berean, Eusko Jaurlaritzak duela hiru hamarkada baino gehiagotik gauzatzen dituen berdintasun-politiken ildo nagusiak deskribatzen ditu.

Oraingo honetan, emakumeen aurkako indarkerian jarri dugu arreta, egiturazko arazoa baita. Horrez gain, komeni da Arartekoak esandakoa⁴³ gogora ekartzea: *“indarkeria matxistak urtero errugabeen biziak kentzen jarritzen duela, indarkeria hori zuzenean nozitzen duten emakumeen osotasun fisiko eta moralaren eta duintasunaren kontra eraso egiten, baina, horrez gain, zauri moral sakona sortzen duela emakume guztiengan, emakume izate hutsagatik segurtasunik ezaren espazio sinbolikoan kokatzen dituen”*.

Gogoratu nahi dugu indarkeria matxistari aurre egitea, bere zentzu guztietan, gizarte osoaren eta erakundeen zeregina dela, eta emakumeek, beren sexuagatik eta diren bezalakoak izateagatik betetzen duten espazio sinbolikoari esanahi berria ematea ere badakarrela. Emakumeak ahalduntzeak, matxismo bortitzaren aurrean emakume eta neskato guztientzako espazio seguruak sortuta, munduan bere lekua izateko eskubidea aitortzea dakar, beren berdintasunaren eta duintasunaren defentsa bermatuta.

Eta, emakumeen aurkako indarkeriaren gaitzari aurre egiteko, funtsezko lehenengo urratsa da arazoaren dimentsioa kategorizatzea eta kuantifikatzea. Testuinguru horretan, uste dugu lehenengo urratsa dela Eusko Jaurlaritzak 2024an egindako *Emakumeen aurkako Indarkeriari eta pertsonen arteko beste indarkeria-mota batzuei buruzko Inkesta*. Inkesta horretatik atera dugu apartatu honen informazio gehiena.

Hala ere, emaitzen txostenean hobetu beharreko eremuak aurkitu ditugu, etorkizuneko lanei begira:

- Lehenik eta behin, oso ondo azaldu beharko lirateke besteak beste “indarkeria matxista” eta “emakumeen aurkako indarkeria” kontzeptuak, indarrean dagoen araudira egokituta, eta Inkestaren izenburutik eta apartatuetatik hasita.
- Era berean, lan-inguruneen jazarpenari buruzko apartatua ikusten dugu ez daudela argi lan-jazarpenaren, sexu-jazarpenaren, sexuagatik jazarpenaren eta abarren kontzeptuak. Uste dugu zehaztasun osoz bereizi behar direla egoera horiek, biktimen identifikatzea dezaten zer gertatzen zaien.
- Era berean, lan-inguruneen indarkeriari buruzko salaketan tratamenduan gabeziak antzematen ditugu, ez baita galdetzen lehen auzialdiko salaketa-bideei buruz, adibidez, enpresan dagoen protokoloa irekitzeaz edo, protokolorik ez dagoenean, lan-ikuskaritzara jotzeko erabakiaz.
- Azkenik, laneko jazarpen-kasu baten ondoren, enpresan borondatezko baja eskatu zuten emakumeen proportzioaren kalkulua ere falta da inkestan, emakumeen erdiek baino gehiagok adierazi baitute gertaera horiek beste lan batean jasan dituztela.

Bestalde, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko EUSTATen emaitzen txostenak adierazten du, kasuen hazkundeaz hitz egitean, biktimen “borondate” handiagoa dutela dagozkien salaketak jartzeko. Gure ustez, borondate hori, askotan, “gaitasun” handiagoa izan daiteke, laguntzeko sistema bat dagoelako, edo salaketak jartzeko erraztasun handiagoa. Edonola ere, beste terminologia-eremu bat da, eta hobetzea eta etorkizuneko inkestetan zehaztea komeni da.

Memoria honetan jasotako datuak kontuan hartuta, kezkatu egiten gaituzte laguntza eskatzeko eta salatzeko dauden tasa txikiak, batez ere emakumeen aurkako indarkeria-mota batzuetan, baita kolektibo batzuek jasaten dituzten gorabehera handiek ere, hala nola jatorri atzerritarreko emakumeek, bereziki bikote barruko eta kanpoko indarkeria matxistari erreferentzia egitean. Horrek guztiak, gure ustez, erakundeen arreta berezia behar du.

Azkenik, lan-ingurunean gertatzen diren sexu-jazarpen eta/edo jazarpen errepikatuko egoerak direla eta, kezkatu egiten gaitu ikusteak, behin salaketa jarri ondoren, biktimen kopuru handi batek adierazten duela jokabide horiek bere

⁴³ Arartekoaren erakunde-adierazpena, 2025eko azaroaren 25ekoa, Emakumeen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna dela-eta.

horretan jarraitzen dutela. Horregatik, eta enpresek lan-ingurunean emakumeen aurkako jazarpenari aurre egiteko garatu dituzten tresnetan antzeman den hobekuntza-tarte handiarekin batera, ezinbestekotzat jotzen dugu indarkeria-mota horien aurrean emakumeak babesteko sistema osoa berrikustea, aplikatu beharreko araudiaren helburua bete dadin.

V.4. GIZARTE BABESA

Atal honetan azaldutako datuek erakusten dute EAEko gizarte-babeseko sistemak bere estaldura mantentzen duela beste urte batez, Europako herrialde nagusien pareko mailetan. EAEko Gizarte Babesaren Kontuak erakusten du 2023an gizarte-babesera bideratutako baliabideen bolumenak gora egiten jarraitzen zuela. Era berean, EAEko gizarte-babeseko biztanleko gastua EBko eta Estatuko batez bestekoen gainetik zegoen.

Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemari dagokionez, gure ongizate-sistemaren tresna garrantzitsua baita, Eusko Jaurilaritzaren azken PGDIak (2024ko datuekin) baieztatzen du tresna hau beharrezkoa dela, EAEn pobrezia nabarmen murrizteko aukera ematen duen neurrian. (% 45,3 2022an eta % 33,8 2024an). Hala eta guztiz ere, PGDIk kalkulatu du sistema 2024an pobrezia-egoeren % 63,6ra iritsi dela, 2022an baino gutxiago (% 75,5 izan zen). 2023an DSBen gertatu ziren araudi-aldaketak analizatu behar dira; asmoa izan zen detektatutako beharrak hobeto kudeatu ahal izatea eta detekzioak azaleratzen laguntzea eta ordura arte estaltzen ez ziren arazo batzuei erantzun ahal izatea.

Testuinguru horretan, 2023an arau-aldaketa horiekin batera gertatu zen aurrekontu-igoera nabarmendu nahi dugu, eta ahalegin horri eutsi zaio gaur egunera arte ere. Espero dugu Inklusiorako V. Planean jasotako ekimenekin lortutako aurrerapenek herritar guztien bizi-baldintzak hobetzen lagunduko duela.

Bestalde, 2023-2026 aldirako diseinatutako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoak, Gizarte Zerbitzuen Sistema *baby boom*aren belaunaldiaren zahartzeak dakarren inpaktura egokitzeko erronka duenak, ahalegin berezia egin beharko du, gure ustez, beharriak dituzten kolektibo guztiak gizarteratzeko laguntza-sarea indartzen jarraitzeko, zahartzearen ondoriozko mendekotasun- edo bazterketa-egoeretatik harago. Adibidez, bizitegi-bazterketa jasaten duten pertsonen edo etorkinei buruz ari gara.

Mendekotasunaren Arretarako Sistemari dagokionez, Mendekotasunaren Espainiako Behatokiaren txostenek nabarmentzen dute EAEk beste autonomia-erkidego batzuek baino garapen handiagoa duela, bai baloratutako pertsonen ehunekoari dagokionez, bai emandako prestazioei dagokionez ere. Aldi berean, azken bi urteetan, itxarote-zerrendak murriztu egin dira, eta datozen urteetan finkatzea espero dugu. Hala eta guztiz ere, sistemak lanean jarraitu behar du hurrengo urteetan. Izan ere, zerbitzu-prestazioaren eskaintza- eta estaltze-mailak bateratu egin behar dira geroz eta zaharragoa den gizarte baten beharrekin.

Era berean, funtsezkoa iruditzen zaigu, arduraren duten instantzia guztietatik, sistema hori behar beste hornitzea geroz eta behar handiagoekin, zainketen kostu handia dela-eta. Eta, testuinguru horretan, ezinbestekoa da zaintzarekin zerikusia duten lan guztien aitortzen sozial eta ekonomiko handiagoa egitea, bai familietan, bai lan profesionalizatuetan. Eta aitortzen hori egiteko, uste dugu garrantzitsua dela informazio gehiago izatea EAEko zaintza-jardueren inguruan, batez ere, sexuen bereizketari dagokionez, modu horretan, errealitate horiei neurri egokiek erantzuteko.

Gizarte Segurantzaren pentsioei dagokionez, beste urte batez, EAEko saldo defizitarioak kezkatzen gaitu. Sistemaren jasangarritasunari eta ekitateari dagokionez, gogorazi nahi dugu berrikuntza-neurrien ondorioak egiaztatzeke aplikazio-epe bat behar dela, eta, beraz, jarraipena eta azterketa egin behar direla neurrian inpaktua eta planteatutako helburuekiko egokitasuna egiaztatzeke. Hala ere, oraingoz mantendu egiten da sistemak geroz eta defizit handiagoa izateko duen joera.

DSBERi dagokionez, azpimarratu beharra dago bere ondarearen bolumena EAEn estatuko batezbestekoarekin konparatuta (BPGd-ren % 31,7 eta % 8,3). Aldi berean, uste dugu arreta jarri beharko zaiela gure ongizate-sistemaren bigarren zutabe horretako araudi-berritze berriari.

Edozelan ere, 2025. urteak agerian utzi du, beste urte batez, gizarte-babeseko sistema sendoa izateak duen garrantzia, gure gizarteak bere gain hartu dituen erronkei, geroz eta premia handiagoei eta balizko erronka eta errealitate berriei aurre egiteko

VI. BIZI-KALITATE

VI.1. HEZKUNTZA

Hezkuntzako beheko mailetak (Haur eta Lehen Hezkuntzako) matrikulazioak aurreko urteetan bezala behera egiten jarraitzen du eta orain, DBH ere joera horretara gehitu da. Kontrara, batxilergoan, lanbide-heziketan eta unibertsitatean matrikulazioek gehitzen jarraitzen dute.

Deigarria da haur-hezkuntzan, lehen-hezkuntzan eta lanbide-heziketan sare publikoko matrikulazioak pribatukoa gaitzen duela eta DBHn eta batxilergoan kontrakoa gertatzen dela.

Hizkuntza-ereduei dagokienez, unibertsitatez kanpoko irakaskuntzetan irakaskuntza ez profesionalen eta profesionalen artean ikusitako dinamika ezberdinak azpimarratu nahi ditugu. Lehenengoetan argi ikusten da D ereduaren beherazko gradienteak hezkuntza-etapan aurrera egin ahala, eta lanbide-heziketan kontrakoa gertatzen da; modu horretan, euskarak presentzia handiagoa du maila akademiko handiagoko ikasketetan.

Ikus dezakegunez, aurreko urteetan bezalaxe, Batxilergoko modalitateak, lanbide-arloak eta unibertsitate-graduak aukeratzean, emakumeek eta gizonen pixka bat desberdin jokatzeko jarraitzen dute. Emakumeek gizonen baino neurri handiagoan aukeratzen dituzte gizarte- eta osasun-arloak, eta gizonen berriz, teknologia- eta industria-arloak. Dena den, poliki-poliki bada ere, aldeak murrizten ari dira.

Berriro ere azpimarratu nahi dugu, nahiz eta ikasle gehienek unibertsitate publikoak aukeratzen jarraitzen duten, matrikulazioen banaketan ikastetxe pribatuen aldeko joera nabari dela. Horrez gain, unibertsitate publikoak titulazio bikoitzen gorakadara egokitzen ari da bere eskaintza; duela hamarkada bat, gradu bikoitzak unibertsitate pribatuen eskumen eksklusiboa ziren.

Positibotzat jotzen dugu gure autonomia-erkidegoak beste batzuekin konparatuta duen kokapena haur-hezkuntzako eskolaratze-tasan, hezkuntza eta prestakuntza goiz uztearen tasan eta goi-mailako ikasketetako titulua duten gazteen ehunekoan; eta bereziki pozgarria da egiaztatzea unibertsitate presentzialetan graduoko ikasketak uzten dituztenen tasa txikia dela, gradutik masterrera igarotzen direnen tasa handia dela eta EHUK duen posizioa Shangaiko sailkapenean, ahaztu gabe pixkanaka gehitzen ari direla ezagutza-diziplinak hobekien kokatuta daudenen artean.

Hala eta guztiz ere, ohartarazi nahi dugu araubide orokorreko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzetan talde bakoitzeko ikasle baten beste kopurua ELGAren eta ELGA osatzen duten EBko herrialdeetako edo kideetako daudenetako batezbestekoaren gainetik dagoela.

Azpimarratzen dugu Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren gastua, aurrekontu-likidazioaren arabera, handitu egin dela, baina ohartarazten dugu bere pisua gutxitu egin dela gobernuaren gastu osoan.

Gainera, gure autonomia-erkidegoko ituntze-ereduak unibertsitatez kanpoko hezkuntza-mailetan duen garrantzia azpimarratu nahi dugu.

Azkenik, batzorde honek dei egiten du hezkuntzari buruzko estatistikek eskola-segregazioari buruzko informazioa jaso dezaten, fenomeno horrek sortzen duen kezka kontuan izanda.

VI.2. KULTURA ETA HIZKUNTZA-ANIZTASUNA

Atsegin dugu ikustea ezen, Ministerioaren datuen arabera, 2023tik 2024ra bitartean hazi egin direla Euskadin jarduera ekonomiko nagusia kultura duten enpresen kopurua eta haiek sortutako enplegua.

Deigarria da euskal etxeetako kultura-ondasun eta -zerbitzuetako gastua zein pertsonako batez besteko gastua txikiak izatea estatuko batez bestekoarekin alderatuta. Eta, aldiz, bai Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak egindako ahalegina (kulturan likidatutako gastua BPGd-arekiko), bai gastu horren intentsitatea (kulturan likidatutako gastua pertsona bakoitzeko) handiak izatea; izan ere, EAEk lortu ditu daturik onenak (Nafarroarekin batera).

Kulturklik-en datuen arabera, eskaera eta hazkunderik handiena duten kultura-ekitaldien programazioan (kontzertuak eta antzerkia) doakotasunak goranzko joera duela ikusten dugu atseginez. Zentzu horretan, gogoratuko dugu 2024an kontzertuen % 49,1 eta antzerki-emanaldien % 35,5 doakoak izan zirela. Azpimarratu nahi dugu euskara izan zela musika-emanaldietan gehien agertu zen hizkuntza, eta, antzerki-emanaldietan, % 44,2 gaztelaniaz antzeztu zela, eta % 40, euskaraz.

Eskariaren bilakaera horrekin lotuta, positibotzat jotzen dugu jarduera suspertzea eta EAEn egindako azterketek eta Ministerioaren datuek erakusten duten enpresa-kopuruaren hazkundera (bereziki musika eta ikus-entzunezkoen eta multimedien sektorearenak); baita hainbat erakundek, horien artean Eusko Jaurlaritzak, kultura-sektoreak eta gure hizkuntza nazioartean sustatzen eta proiektatzen lan egitea ere, plataforma handiek menderatzen duten merkatu globalean kokatzeko zailtasunen aurrean.

Azkenik, digitalizazioak eta kultura-ohituren eraldaketak bultzatuta, kultura-sorkuntzan, -kontsumoan eta -sarbidean gertatzen ari diren aldaketak eragin nabarmena izaten ari dira kultura-sektorearen funtzionamenduan. Testuinguru horretan, Kontseilu honen iritziz, kultura sustatzeko eta ekimen pribatua sustatzeko jarduerak indartzeko estrategiak funtsezkoak dira kultura-industriaren eskaera bultzatu eta indartzeko eta jasangarritasuna bermatzeko.

VI.3. OSASUN ETA OSASUN-SISTEMA

Aurreko memoria sozioekonomikoetan azaldu dugun bezala, oro har, EAEko biztanleriak osasun onaren adierazleak ditu, eta horiek hobetzen jarraitzen dute (bizi-itxaropen eta osasun oneko bizi-itxaropen handiak eta gero eta handiagoak, heriotza-tasa gero eta txikiagoak eta abar). Hala eta guztiz ere, hildakoen batez besteko adinak gehitzen jarraitzen du eta horrek ondorio handiak sortzen ditu osasunean eta gizartean. Izan ere, herritar batek bizitzen dituen urte guztiak ez ditu osasun bikainarekin bizitzen.

Horrenbestez, osasun-arretaren egiturak (lehen mailakoa eta ospitalekoa) eta osasun-mentalaren egiturak ere bai zenbait erronka dituzte aurrean. Izan ere, euskal biztanleria etengabe zahartzen ari denez, beharrezkoa da osasun- eta gizarte-zerbitzuen arteko koordinazioa indartzea.

Osasun-laguntzaren eskariak handia izaten jarraitzen du. Ospitalekoak ez diren kontsultak gutxitu diren arren, profesional bakoitzeko kontsulta-kopurua mantendu egiten da. Bere aldetik, ospitalez kanpoko osasun mentaleko kontsulten kopuruak, ospitale-kontsultek, ospitaleratze-altek, ebakuntza kirurgikoek, kirurgikoak ez diren prozedurek eta konplexutasun handikoek eta diagnosi-probek gehitzen jarraitzen dute. Horrenbestez, egokia eta beharrezkoa dirudi ahaleginak egiten jarraitzea, bai ekonomikoki, bai sistemaren barne-antolamenduari eta plantillak indartzeari dagokienez ere.

Berriz ere, funtsezkoa da Osakidetzako plantillan plazak hornitzeko estrategia bati ekitea, hobekuntza zientifiko-teknologikoak txertatzea eta pazienteek beren osasunaren arduradun gisa parte har dezaten lortzea.

Haurdunaldia borondatez eteteari lotuta, adin ugalkorra duten 1.000 emakumeko HBEak gutxitu diren arren, berriro azpimarratzen dugu gehienek sistema pribatuan egiten dituztela eta deigarria da, hala ere, informazioa zentro publikoetan jasotzen dutela. Baliteke egoera hori emakumeen osasun-eskubiderako urraketa izatea. Espero dugu Euskal Osasun Itunean hartutako konpromisoa beteko dela, hau da, gaur egungo hitzarmen-ratioa ez gainditzea eta sistema publikotik arreta indartzea.

Psikotropikoen kontsumoari dagokionez, eta kalamuaren kontsumoari lotuta, nahiz eta bizitzan noizbait kontsumitu dutenen prebalentzia handia izan, pozgarria da ikustea azken hamabi hilabeteen, 30 egunen edo eguneroko kontsumoen inguruan galdetzean, 2017tik 2023ra joerak behera egin duela. Hala ere, ezin dugu albo batera utzi zigarro elektronikoen kontsumoa bereziki erakargarria dela 15-34 urteko gazteentzat, eta bizitzan noizbait *vaperrak* erabili dituztenen artean kalamua kontsumitzen dutenen proportzioa handiagoa dela. Gainera, gailu horiek erabiltzea kaltegarria da eta epe luzean osasunean sortzen duten ondorioen ebidentziarik ez dagoen arren, likidoetan eta aerosoletan substantzia kantzerigenoak dituzte. Epe motzeko inpaktuen kasuan arnas-bideetan eta funtzio baskularrean kontrako efektu fisiologikoak ikusi dira, tabakoak sortzen dituen antzekoak.

Eta balizko joko patologikoari dagokionez, esan behar dugu Adikzioen Inkestak sexuaren eta adin-taldean arabera prebalentziari buruzko informazio garrantzitsua ematen digun arren, informazio hori beste aldagai batzuk aztertuta osatu beharko litzatekeela, hala nola joko-establezimenduen kokapen geografikoa eta beste aldagai sozioekonomiko batzuk.

Geroz eta kezkatuago gaude osasun mentalaren inguruan, are gehiago, memoria sozioekonomiko honetako datuak aztertuta. Nahasmendu mentalen prebalentziak gure autonomia-erkidegoan estatuko ratioak gainditzen ditu. Denborarikuspegiko zifrek diote joera garbia goranzkoa dela eta jokaera autolitikoeekin gertatutako jazoerak gehitzen doaz, eta nerabeek zein helduek egiten dituzte. Egiaz, suizidio-saiakeren ondoren kontseiluak egiten dituen deiak gehitu egin dira.

Kontseilu horren iritziz, osasun mentalaren krisia lantzeko ekintzak sistemikoak izan beharko liriateke. Hau da, osasun-sistemak eta gizarteak arazoaren gaineko kontzientzia hartu beharko lukete eta irtenbideak bilatzen aktiboki inplikatu beharko liriateke. Suizidioa ez da gaixotasuna, jokaera bat da, eta jokaera guztiak moduan prebenitu egin daiteke. Hori dela-eta, gizartean albo batera utzi ezin dugun erantzukizuna dugu.

Amaitzeko, batzorde honek aditzera eman duen legez, osasuneko gastu publikoak hobetzen jarraitu behar du baliabideen optimizazioa alde batera utzi gabe. Euskal osasun-sistemaren etorkizuneko jasangarritasuna gizarte osoa kezkatzen duen balio partekatatu bat da.

VI.4. ETXEBIZITZA

Eusko Jaurlaritzaren 2025eko abenduko soziometroak adierazi zuen etxebizitza dela arazo sozial nagusia EAEko biztanleen %58rentzat, eta 2007tik ikusi ez diren mailalara iritsi dela (higiezinaren burbuila lehertu aurreko unetik). Arartekoa ere ildo beretik mintzatu da. Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari ez zaio arrotz kezka hori, eta gizarte-kohesiorako nahiz Euskadiren etorkizunerako erronka handienetako bat dela uste du.

Ikusten ditugun etxebizitza eskuratzeko zailtasunek, nahiz eta gure erkidegoan 2015az geroztik aintzatetsita egon etxebizitza lortzeko eskubide subjektiboa, izugarri zailtzen dute gure biztanleriaren geruza zabalaren bizi-proiektu autonomoak eta bete-beteak garatzea, bereziki gazteen bizi-proiektuak. Baina daborduko beste sektore batzuetan eragin handia duen arazoa da, zeren eta 2008ko krisiaren aurreko mailak gogorarazten dizkiguten edo gainditzen dituzten mailetan modu kezagarrian hazten diren prezioen ondoriozko ahalegin ekonomikoa baitakar.

Kapitulu honetan etxebizitzaren merkatuari buruz aztertu diren datu nagusiek erakutsi dute 2025ean etxebizitzaren salerosketak gora egin duela. Hala ere, eraikuntza-jarduerak behera egin du eta, aldi berean, etxebizitza-eskariak gora egiten jarraitzen du. Azpimarratu egin nahi dugu prezioen hazkunde-bidearen jarraitutasuna eta, bereziki, azken urteko gorakada.

Etxebizitza-eskaintza eskasa eta urria da, lehenik eta behin, eraikuntza-jarduerak datu negatiboak erregistratu dituelako (zifra oso apalak), batez ere etxebizitza babestuaren bilakaeraren ondorioz (hasitakoak eta amaitutakoak jaitsi egin dira) eta amaitutako etxebizitza libreak gorakada jasan arren.

Alokairuko etxebizitza gutxiegi eskaintzen dira oraindik ere, bai arlo pribatuan, bai publikoan ere. Gainera, alokairu pribatuen errentak oraindik ere altuegiak dira eskatzaileen ordainketa-gaitasunarekin alderatuta, eta horregatik, herritar askorentzat zaila da alokairuak eskuratzea. Arazo hori areagotu egin da azken urteotan, eta kezkatzen gaitu kolektibo zabalengan duen eraginak, bereziki gazteengan eta baliabide gutxien dituzten pertsonengan.

Halaber, kezkarri irizten diogu EAEko familien finantza-ahalegina areagotzen jarraitzeari. Ahalegin hori ez da nahikoa familia batzuentzat, eta 2025ean 577 hipoteka-exekuzio erregistratu ziren, aurreko urtean baino % 21 gehiago. Errealitate horrekin batera, hutsik dauden 43.000 etxebizitzatik gorako etxebizitza-parke bat dugu aurrean.

Zentzu horretan, ezin dira antzeman oraindik Euskadiko Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialaren emaitzak (tresna estrategikoa eta egiturazkoa da, eta, bertan, eragile publikoek eta pribatuek konpromisoa hartzen dute, besteak beste, 2015eko Legeak ezarritako etxebizitzarako eskubide subjektiboaren eraginkortasunean modu koordinatuan aurrera egiteko).

Era berean, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak oso garrantzitsutzat jotzen du “tentsionatutako guneen” figura etxebizitzaren merkatuan nabaritutako prezio-desorekak zuzentzeko tresna gisa eta, horregatik, kezka berezia izango du horien jarraipena egitean, haien eraginkortasuna ebaluatzeko. Era berean, 2025-2027 aldiko Plan Zuzentzailearen garapenari erreparatuko dio, eta, ildo horretan, gogorarazi nahi dugu plangintza-tresnen ebaluazioaren garrantzia, hartutako neurriak lortu nahi diren helburuetara egokituz joateko.

Bestalde, gogorarazi beharra dago Euskadin bizi diren hamar pertsonatik ia zazpi tentsionatu izendatu daitezkeen eremuetan bizi direla, eta, zentzu horretan, etxebizitzak eta apartamentu turistikoak ikuskatzeko mekanismoak hobetu behar direla. Jarduera horiek, kontzentrazio geografikorako joerarekin, enpleguan inpaktu eskasarekin eta arrapostu sozial handiarekin, kontrol eta fiskalizazio handiagoa eskatzen dute, etxebizitzaren funtzio sozialarekin talka egiten baitute.

Azkenik, uste dugu, etxebizitza babestuaren parkearen erabilera optimizatze aldera, oso interesgarria izango litzatekeela jakitea etxebizitza-eskatzaileek, dela erosketa-erregimenean, dela alokairu-erregimenean, etxebizitza eman arte itxaron behar duten batez besteko denbora, bai eta esleipen-prozesuen batez besteko denbora-tarteak ere, eskaera zehatzak hasten direnetik pertsonak beren etxebizitzetan benetan sartzen diren arte. Hori guztia, arazoak detektatzeko eta kudeaketa burokratikoak arintzeko xedez.